



Bizente Barandiaran

Lanik gabe ezin bizi



11173
QAS-128/88



FISKALTZAIND. A
Arbako Ondoakuzen

Lanik gabe ezin bizi

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Bizente Barandiaran

Lanik gabe
ezin bizi

Auspoa Liburutegia
(1995)

© SENDOA ARGITALDARIA

Fotokonposaketa eta inprimaketa: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89080-21-6

Legezko Gordailu: S.S. 595/95

Lanik gabe ezin bizi

GOIZEAN, etxetik irten ordurako, ikusten det alde guzietan lana. Ezin utzi asi gabe. Ekiten diot gutxi egiteko idean, baiñan beti berdin gertatzen zait: asitako lana bukatu egin nai, eta lengo sasoiak pikutara joana. Ustez zerbait naizelakoan, baiñan ezin. Azkenerako, izerditan busti, nekatu, jenio txartu eta asitako penarekin.

Etxean, berriz, sermoia seguru. Ikusi orduko, asten zaizkit esanez:

— Zu geroz eta tontoago egiten ari zera. Zergatik zabiltz orrela, zeure burua ondatzen? Orren bearrean al zaude bizitzeko?

İnoiz esaten diet:

— Zuentzako ari naiz.

Erantzuna jakiña izaten det:

— Guretzako ez daukazu egin bearrik. Len egin diguzu naikoa. Emendik aurrera guk egingo degu gerentzako diña, eta zu ondo bizitzea nai degu, al dezun arte.

Oien gogoa ikusita, pentsatzen nago atxurra plastikoa batean biltzea, erdoitu ez dedin, eta jaso. Ez dezala inork esan:

— Etziok asko kaso egin!

Nik uzten badet, bearbada egonaldiren bat egin bearko du.

Baiñan fameliak zer nai duen ikusi eta nere buruaren kaltean dala jakiñik, berriz, oso bidezkoa billatzen det lanari uztea.

Baiñan, aseran diotan bezela, lan gabe ezin bizi. Orduan, atxurra bakarrik utzi bearko det. Denbora txarrean, idazten; eta, ona dagoanean, ferira buelta bat eman. Lagunartera sarri, trago batzuk egiñez.

Bertsoak badira tartean, ondo. Alaitasuna beintzat bear degu mundu ontan. Batetik urtetan gora, bestetik umorea galtzen badegu, egin du gureak. Poztu dezagun alkar. Orrek ematen digu bizia. Alde batera begira jarri edo bestera pentsatu, alde ederra dago.

Lenago ere badet beste liburu bat, gaur bezelaxe denbora pasatzeko egiña. Idaztea oso gogozkoa beti izan det. Al dedan arte langintza oni segi egin nai nioke. Ez dakit, ordea, noiz arteko libertadea izango dedan.

Lenengo liburua gazte denborako kontuekin idatzi nuan. Baiñan geroztik urte zorionsu aietako gertae-ra geiago bururatu zaizkit. Oiek, oroitu aiñean, pape-reratzan jardun naiz. Eta, azkenean, beste liburu bat osatu det. Ea irakurlearen gogokoa izaten dan.

Liburu orri *Lanik gabe ezin bizi* jarri diot izena. Beste zer egiñetan ezin jardun eta orixe da, izan ere, ni liburugintzan saiatu arazi nauana.

Zartu geranak nola denbora
pasatuko degun gabiltz,
liburu auxe eingo ote dedan
pentsatuz amaika aldiz,
guztiok ondo ulertutzeko
jarririk euskera garbiz;
lagun maiteak, naiago nuke
zuen gustokoa balitz.

Jai arratsaldeak

GARAI bateko gazteak eta edadekoak nola ibiltzen giñan pentsatzen jarrita, pena ematen dit. Aste guzian bakoitza bere etxean lanean, igandea etortzeko pozak, alkar ikusteko.

Goizean mezetara zintzo zazpi t'erdietan. Inor etzan joan gabe geldituko, miñez ez bazegoan beintzat. Goizean ezin zuanak, amarretan bestea.

Gu askotan, lenengotik irten da urrengoa asi arte, pelotan. Apaizak etzigu uzten meza denboran ibiltzen. Orduan alde egiten genduan, alpargatak autsita askotan. Sarritan amak errita saio bat urrena.

Gosaria ematen bazigun, kontentu. Gero, gauduen jatenak ekarri ta bazkaldu. Siesta egiteko betarik gabe, jostatzera berriz.

Iru t-erdietan errosarioa. Ura ezin utzi. Bestela, aitak etzigu begiratu ederra egingo.

Andik irtenda izaten genduan naiko lana. Gu gazteak, sosik baldin bagenduan, jokuan. Guk *ogei-tamaikan* esaten genion. Beste batzuek *urre ezpatan* esaten diote.

Diruarekin ibiltzen giñan larri. Errial bat izan ezkerro, suerte piska batekin ondo arratsalde guztirako, tranpa batzuk egiñez tartean. Zazpikoak patrikan gordeta, gero, urrengo emanaldian, beltze-

koak sartu eta zazpikoa atera, bost zentimo jasotzeko askotan. Izaten nituan bi edo iru zazpiko nerekin. Konturatzen ziranean falta zirala, asten ziran esanez:

— Bixentek izango ditu!

Orduan maiaren azpira bota azkar. Disimuloan pasatzen bazan, pozik.

Egun batean, gogoan det, Zaldibiko lengusu bat gure etxean egoten zan, eskola ikastera etorrira, biok edade berdiñekoak. Beste lagunekin jokuan asi nai eta dirua bear. Alkarri esan genion:

— Goazen etxera.

An edukitzen genduan geren gordallua eltze itxu banatan. Alkarri esan genion zer egin bear genduan. Artu ditugu geren itxulapikoak eskuetan, astindu bana emanez.

— Nereak karga geiago zeukak!

Baiñan, astintzen nenbillela, jo zidan ukabillarekin. Lurrera bota ta lau puska egin zan. Eldu nion burrukan, baiñan ez benetan. Ama an zebillen lanak egiten, eta asi zitzaigun esanez:

— Egon zaitezte pakean, alkar jo gabe! Asteazkenean berria ekarriko det.

Uraxe nai genduan guk. Artu genituan diruak erdibana. Osorik zegoana jaso ta jokura pozik, naiko diruarekin. Ez genduan arratsalde txarra pasa.

Urrengo peri egunean, errial bat eman nion amari, bestea ekartzeko. Aita konturatu gabe pasa zanean, gustora giñan. Amak olakoak ixilik gordezten zituan.

Neska-mutillen jolasa ori izaten zan. Edadekoak, berriz, jakiña: bilduko ziran dozen erdi bat aitona beren apaizarekin. Asiko zitzaien danak toreatzen:

— Gaur, Markos, pagatu bearko dezu. Lengan libre atera ziñan, baiñan beti etzera orrela ibiliko.

Eta besteak:

— Ikusiko degu, jauna. Karta onak etortzen badira, larri ibiliko da. Emen suertea bear da irabazteko.

Urrena erasoko zion Prantziskori:

— Zuk zer? Diru asko ekarri al dezu?

Eta erantzuna:

— Berorri irabazteko asmoan etorri naiz.

Danei galdera bana egingo zien, eta an sartuko ziran danak.

Sukalde bat zegoan. Erriko alkateak, Juan Sarasolak, aginduta egin zuten etxe berria. Orduan ballarako jendearentzat gelditu zan.

Antxe ibiltzen giñan. Edadekoak ziranean, aientzat uzten genduan. Gu, sarrerako iskillara barreanean mai bat jarri ta antxe jarduten giñan.

Aitonak ez baziran osatzen, edo lagun bat falta bazuten, guri esaten ziguten joateko. Ni pozik sartzen nintzan aien tartera. Diru piska bat izatera, ditxa aundiarekin, naiago izaten nuan.

Maiaren bueltan eseriko ziran, da asiko zan bat besteari galdezka:

— Txekorra saldu omen dek.

— Bai. Koskor bat eraman diat.

— Zenbat egiten dik?

— Kiloa amar duron saldu nian, baiñan bajaran omen zijoak.

— Bajatu? Pentsua ez ditek, ba, bajatzen! Guri nai diguten guzia egiten zigutek. Izan ere, alkar ez diagu artzen da...

— Guk zera artuko diagu batak bestea, engañatzen gabiltzek eta! Lengo asteazkenean, Ordizin, Goikoetxeko Migelek bei bat erosi zian. Tratua etzian bereala egin. Ni ez niñuan enteratu zenbate-

an zan, baiñan jakin diat. Zuzen zebillek. Bi milla pezeta eskatu eta milla eta zortzireun eskeñi. Azke-
nean ganaduzaleak eman omen zioan, iñork galde-
tzen bazion bi millan erosi zuala esateko esanda.
Urrango egunean, besteko Jose, enteratu zanean,
joan omen zan ikustera bei ori. Gustatu omen zi-
tzaion. Galdetu zion zenbatean ekarri zuan, eta
besteak presko erantzun: “Bi milla pezetan”. Joan
adi arekin alkar artzera! Bizkarra berotzea merezi
dik arek! Tratanteak esandakoa egin naiago, auzo-
ko lagunari gezurra esanda. Ni jenio txarrean jar-
tzen nauk!

Orduan apaizak:

— *Bueno*, gaur zertara etorri gera: musera edo
ganaduen prezioak jakitera?

Markosek:

— Egia dio, jauna. Bota erregeak, zeñek zeñekin
jokatu.

Bota ditu: Domingo, Jose Antonio ta Prantzisko,
Markos, Don Salbador eta gure aita, Benito. Asi
dira bosna karta artu ta bana botata, musik eman
gabe.

Batek:

— Paso.

Besteak:

— Enbido!

Batzuetan:

— Euki! —erantzun. Edo bestela:

— Utzi!

Bigarren edo irugarren bueltan asarretu dira.
Markosek, paretara iritxi diranean, lau jo dio. Eta
Prantziskok:

— Ordo!

— Bota!

Azaldu dituzte biak: Markosek, txoteko laukoak; besteak, zazpiko batekoak. Ala dio galtzalleak:

— Galdu diat!

Eta Jose Antoniok:

— Ez, arraioa! Ez dik eramango!

— Ik ere ba al dituk?

— Bai!

An azaltzen ditu errege seikoak. Markosek:

— Kontxesa bat menderatu det, baiñan besteak ondatu nau.

Atera dituzte beren diru poltsak. Batzuek larruzkoak, besteak etxean tela puska batekin egiñak ibiltzen zituzten. Goenean doblatu ta soka bat pasata, ari tiratzen zioten ixteko, gero lepoan buelta batzuk eman da seguru, galdu bildurrik gabe.

Alkarri amar zentimo ordaindu bear. Orrek ematen zien pena. Gaur milla pezeta jokatuta baño ardura geiagorekin jarduten ziran.

Berriz ekin diote intentzio osoan. Bi edo iru buelta egindakoa, berotu dira lengoak. Markosek:

— Bost tanto enbido!

Prantziskok:

— Amar geiago!

Besteak:

— Ordo!

— Bota!

Azaldu dituzte kartak. Prantziskok bi zaldun da bi seiko. Eta Markosek, errege batekoak. Orduan esaten dio Jose Antoniori:

— Oraingoan ez al dek?

Erantzuna:

— Amorratua! Betikoa ez dek Jainkoa!

Beste aldera esan nai zuan, baiñan gaizki atera zitzaion. Askotan zituan olako deskuidoak.

Orrela pasatzen zuten arratsaldea. Geienak ekartzen zuten ogi koskor bana poltxikoan. Aiek alkarri partituta, baso erdi bana ardoarekin. Ura izaten zan aien gastua. Irabazten zutenak ordaintzen zuten edaria. Askotan galduan irtengo ziran. Ala ere gustora, irabazi zutelako. Ura zan zorionean bizitzea!

Illunabarrean, apaiza irtengo zan elizara, Aima-rietakoa jotzera. Eliz atarian bildu danak eta anjelus errezatuko zuan.

An dantzan ari bagiñan, gelditu; eta, kartak poltsikoan bagenituan, atera ta lurrean utzi. Errezoaren kontrakoak zirala esaten ziguten. Gurasoen esana egin bear izaten zan.

Errezoa bukatzean, danak alde egiten zuten. Gu ere bai geienean. Baiñan iñolz sartzen giñan barrena. Orduan zailla izaten zan goiz etxeratzen.

Aitonak utzitako maian esertzen bagiñan, ardoa edan da bertsoak kantatu. Ordu pare bat errez pasatzen genduan, etxera joateko presarik gabe.

Sorgin kontuak

GURE aurrekoak sorgin kontu asko kontatu oi ziguten. Guk ez genduan ezagutu olakorik. Gure aitona zanak bazuan olako istoria pranko. Nik uste det olakoak berak asmatuta batzuk esango zizkigula, guri bildurra sartzeko. Gazteak giñala, egun guzia soroan laian, udaberrian artoak ereiteko eta abenduan da ilbeltzean garitarako. Ondoren, zenbat kontu entzuten genion?

Berak bizi ziran etxean, iru fameli omen zirala lenago. Gero, dana bota ta berria egitea pentsatu zutela.

Orduan, erdian izan zanak, etzuala nai an gelditu esanda, alboan zegoan errota batera alde egin zuala. Nunbait aspertua zegoan ango sorgin kontu istoriekin.

Garai artan, olako oiturak ziran: goizean, udara partean, emakumeak saskia eta itaia artu ta muiño baztarretan belarra ebaki. Berak, ebaki ala, artu ta ekarri.

Seguru, kanpora joan zana izango zan. Goiz batean an dijoa gaixoa belar billa. Asi da murkora igota. Beste bizitzakoak ikusi duanean, pentsatu du susto bat ematea. Bai eman ere.

Artu omen zuan *lepo saskia*. Orrela esaten zaio bizkarrean ibiltzen dan zestoari. Oiaren gaiñean

tapatzeko, *oe azala* deitzen genion maindire telarekin egindako zaku bat izaten zan. Gero, *koltxilla* zuan izena. Ura azpitik zegoan. Koltxoia baiño meagoa, ariñagoa, barrenean sartuta edukitzen genduan, gauean tapatzeko.

Sorgintza egin nai zutenean, *oe azala* burutik bera sartu eta zuri-zuri ateratzen ziran, ikaratu nai zutenaren bidera.

Baiñan nola leku malda edo aldapa zegoan bera jesteko, orduan zesto aundi bat sartu omen zuan zaku zuri ortan, eta joan omen zan beste aldetik, gure emakume orrek ikusi gabe, eun bat metro gorago. Bere paretik bota dio zakua zestoarekin, bera sasi tartean gordeta.

An dijoa tramankulu ura andre orrengana. Onek, gauza zuri bat gaiñera datorkiola konturatu danean, ekin dio karrasika, sorgiñen bat zalakoan. Albotik pasatu zaio, amar metroko saltoaz egiñez. Bere itaia artu ta an dijoa etxe aldera, aingeru goardakoari erreguka eta ojuka:

— Goardatu eta anparatu nazazu! *Kyrie eleison!*

Ura etxean sartu zanean, bestea, Txotxipi izeneko mendi egal bat badago ta andik bera jetxi omen zan bere sorgiñarengana. An omen zegoan sasi tartean, erreka baztarrean. Atera zaku zuri ortatik zesto, sartu omen zuan zakua zestoan, artu buruan eta etxera lasai, ezer egin ez balu bezela.

Beste bizitzan amona an ari zitzaien bullaka, zer gertatu zitzaion esaten; eta bestea, ezer ez baleki bezela, joan zala beren sukaldera. Amona ikusi zuanean oso apuratuta zegoala, galdetu omen zion:

— Zer pasatu zaizu?

Erdi negarrez, gaixoak:

— Gizona, nere bizi guzian ez det artu olako sustorik!

— Zer gertatu da, ba?

— Belarra ebakitzen ari naizela, an etorri zait zuriz jantzitako bat belardian bera saltoka! Ura etzan onezkoa! Inpernuko deabrua izango zan seguru!

— Baiñan, emakumea! Egon zaitez lasa. Zuri sustoa emateagatik ibili dan txotxoloren bat izango zan. Nora joan da?

— Nik ez dakit, gizona! Enaiz ari begira egon! Naiko lanak banituan bidean.

— Gaixoa! Etzaitezela apuratu, amona! Arek alde egin du ortik beste baztarren batera!

— Jesus, Jesus! Zer goiza eman didan neri!

— Lasai egon zaitea. Joan zaitez, itaia artuta, belarra ebakitzera!

— Eta berriz etortzen bazait?

— Ez, emakumea, ez! Or etzaizu iñor azalduko.

— Ala iruditzen al zaizu?

— Orixe seguru esaten dizut! Joan da ekarri bear dezuna!

An dijoa amona gaixoa bere itaiarekin, bildurrak aidean. Bestea atzetik parrez, berari begira. Ekin dio murko batean ebaki eta ebaki. Naikoa egin duanean, kargatu saskia ta or dator etxera. Zai zeukan gizon deabru ori tentatzen asteko:

— Iñor azaldu al zaizu?

— Ez, gizona! Zuri eskerrak! Zer lasatua eman didazun!

— Esan dizut nik, zu ikaratzeagatik joan dan txororen bat izango zala.

— Eskerrik asko! Zure bearra banuan gaur!

Orra or kaltea egin da meritua irabazi. Ortarako sorgiña bear du izan. Bizkarreko ederrak merezi zituan arek eskerraren partez. Baiñan esaera

bat bada askotan entzun deguna: "Berez bear du Billabonakoa".

Beste au ere aitonak berak kontatua da. Gu sortu giñan ballaran oitura aundia zan, udazkenean egurrak botata, neguan txikitu eta udaberrian ikatza egin. Etxe geienetan txondar bat edo bi egiten genituan. Lendik zetorrena izango zan.

Gure auzoan garai artan bizi zan batek jarri omen zituan egurrak pillatuta. Gero belar edo ostoarekin tapatzen zan, lurra egur tartean sartu etzedin. Ondó estali duanean, eman dio su.

Gero ere kaso egin bear. Egurretan nola zuloak gelditzen ziran, tarte aietan sua azaltzen zan; eta garrak, egosi bearrean, erre egiten zuan. Berriz iriki ta bete egin bear izaten genduan. Neroni ere ederki progatua naiz.

Zortzi edo amabost egun pasatzen zituan, nolako egur pilla zegoan. Aundia bazan, denbora geiago irauten zuan.

Len esan dedan gizon ori, txondarra sutu zuanean, lasaitu da piska bat. Egun batean jetxi da errira bueltaren bat egitera. Askotan gertatzen dana, nekatutako gizona exertzen danean, akordatu gabe orduak pasa. Ardo trago batzuk egiñez berandutu zaio.

Emazte gaixoa etxean larri basoko lanak nola egongo ote diran. Azkenean, senarra ageri ez ta farola artuta joan da gauerdian bakarrik.

Senarra etxera etorri da ta andrea falta. Baso erdi batzuk ustu ta argi-argi egiña, berari zer bururatutako ta pentsatu du andrea sustatu egin bear duala.

Artu du armariotik *oe azala*. Or dijoa. Kilometro bat bide ingurua zeukan. Ia ingurura iritxi danean, sartu du zaku zuri ori burutik bera. Agertu zaio emazteari.

Ikusi duanean nola datorren, igo da txondarren gainera. Ekin dio otoitzean:

— San Martolome Bidanikoa! Ama Birjiña Liernikoa! San Migel aingerue, pistilintzi oni zapaldu iozu burue! *Kyrie eleison!*

Eta gizona txondarraren bueltan jiraka. Iru edo lau buelta emanda, alde egin omen zion bistatik. Emazte gaixoa apuratuta, zer egin etzekiala.

Senarrak, bide piska bat pasata, bere zakua gorde arbola baten ondoan, da an dator berriro berarengana, ezer ez baleki bezela.

— Gau on.

— Bai zuri ere! Naiago nuan lentxeago etorri baziña!

— Zer ba? Zer pasa zaizu?

— Emen agertu zait gauza raro bat, zuri-zuria. Itzik etzuan egiten. Bueltaka lurrean ibili da, eta ni txondarraren gaiñean larri.

— Ba sorgiñak ere badirala esaten dute ta olako txororen bat. Nora joan da?

— Alderdi ortara alde egin du.

— Nik ez det, ba, ikusi. Gauean lo ezin eginda dagoan elbarriren bat seguru.

— Nik ez dakit zer zan. Lotarako gogoak kendu dizkit neri.

— *Bueno, bueno!* Au piska bat zuzendu ta goazen emendik.

Bien artean ango lanak eginda etorri omen ziran.

Orduko gizonaren burutapenak! Ola ibiltzen ziran, etxe guzietatik basoan.

Beste batean ere esan oi zigun. Aiek ere alamoduzkoak. Gizona kalera joana, ta noiz etorriko zan jakiten zailla nunbait.

Asi da jokuan da suerte ona tokatu. Irabazi egiten da segi ta segi berandutu arte. Noizbait aspertu dira.

Atera da tabernatik. Iru kilometro bide etxera. Andik basora, beste bat gutxienez. Emaztea ikusi etzuanean oian, jo du beraren billa. Txondarra zeukaten lekura iritxi danean, suak artuta omen zegoan erretzen gorri-gorri.

Andrea an ari zan gogor egurrak mozten. Senarrak ikusi zuanean alako sua, onela omen zion bere gisaka:

— Baten mesedea ta bestearen kaltea! Sardin berriak erretzeko au dek brasea!

Bien artean egurrez beteta, ala etorri zirala lotara.

Garai artan, asarretzen etziran emakumeak ote ziran? Gaur ez dira asko izango, gizona ez dala ageri ta oietik atera ta basora joango lirakenak. Gure etxean ez beintzat. Zerori etorritakoan, errita saioaren bat seguru. “Zerori joan zaitez, nai badezu!” laster esango luteke, arritzekoa ez da ta. Orduan lan gogorretan ibiliko ziran emakumeak. Balorea bazuten beintzat.

Sorgiñak indarrean ziran garai artan. Beste au ere kontaktzen zigun aitonak, gure auzoan gertatua bi anairen artean.

Urkiko ballaran beti izaten zan erriko udaletxean kontzejal bat; eta orduan zegoana, len esan dedan oietakoa omen zan.

Billera zanean josten zan lagunetara. Beren itzaldiak egindakoan, salaren azpian taberna egoten zan, nik ere ala ezagutu nuan, eta bertan sartu ta arrantxo piska bat beti. Oitura ori zeukaten, ikusten danez.

Eserita jartzean, gustora nunbait. Akordatu gabe luzatu. Berandu etxera eta bere anaia supritzen, agiri etzalako. Joaten zan guzian berdin.

Aspertu zanean, pentsatu omen zuan susto bat eman bear ziola. Bai eman ere.

Beti bezela alde egin zuanean, bestea asi da bere trasteak preparatzen. Jarri ditu ango pote zar, balde, inguruan billatu zituan elemento guziak. Gero jetxi ditu alanbre pilla bat. Danak ate baztarran utzi ditu gordeta. Gero afaldu ta gauerdira arte etzuan espero bidean.

Artu ditu bizkarrean. Atera da. Goitik bera pentsatutako lekura iritxi danean, lotu dizkio bere buruari. Lenengo, zaku zuria sartu burutik bera. Amarratu ditu. Jarri da zai noiz etorriko. Itxogin da itxogin.

Alako batean an dator. Bera, zetorren baiño berrogei ta amar bat metro gorago zegoan basoan. Ia parera iritxi danean, ekin dio korrika *dinbirri-danbarra*, bere aurretik pasata.

Bestea gelditu da ari begira bildurtuta bertan, atzera jo edo zer egin ez dakiala. Sorgiña joan da beko errekaraiño. Orduan bota ditu pote danak.

Ixildu danean, abitu dira biak etxera: bat bere bidetik; bestea eguterako soroetan gora korrika. Anaia baiño len iritxi nai. Sartu da eta joan da bere koartora.

Laster an dator bestea ate joka: *dan, dan dan!* Barrengoak kasorik ez. Berriz: *dan, dan, dan, dan!* An dator, begiak eskuekin igurtziz, lotan balego bezela.

— Zer? Presaka al ator? Sorgiñak segitu al die ala?

— Sorgiñak esaten dek? Nere bizi guztian ez diat olako sustorik artu.

— Zer uan, ba, motell?

— Nik etzekiat zer zan. Onezkoa ez beintzat.

— Baeuken zerbaiten bearra. Ea sikira goizago etortzen asten aizen.

— Bai, motell, bai. Berandu ibiltzeko gogoak kendu zizkidak. Lorik ere ez diat egingo egun batzuetan.

— Joan adi, joan adi oera ta lo egin zak lasai. Ire antzeko parranderoren bat izango uan ura, bero-bero eginda.

— Arek ez dik, ez, ardorik edango.

— Ez! Eman baldin baion, artuko zian arek!

— Ura ez uan parte onekoa.

— Logurerik etzeukan txororen bat seguru bai.

— Ik errez itzegiten dek. An izan baintza, ez uan, ez, ola pasatuko gaua.

— Zer egin bear dek, ba: lorik egin gabe egon?

— Bai. Gaur nik ez diat egingo.

— *Bueno*, joan adi oera lasai.

— Laster eguna argituko dik eta obe. Atxurrera joango niñukek.

— Nai dekena egin zak —esanda, alde egin omen zion, poz ederrarekin.

Bere denboran ez omen zuan geiago parrandarik egin. Olako sorgiñak artu litezke gaur ere. Pentsatu eta egin. Orduan edozein sorgin.

Gure aitonak esaten zuan Eibar aldean rebolbera eta pistola txikiak azaldu ziranean izkutatu zirala gaueko piztiak; oiaren gaiñeko zaku txuri aiek orduan sobratu zirala.

Orain badauzkagu gau-txoria pranko, armatuta gaiñera. Garai artan jendea lasaiago bizi zan, naiz diru gutxi ikusi.

Beste istori bat bazuten Mateo Txistuarekin ere. Zer pentsatua pranko jartzen ziguten.

Oso eiztaria zala; apaiza, esaten zutenez. Egun batean, meza ematen ari zala, bere zakurrak erbia ekarri omen zioten eliza ingurura.

Sentitu zituanean, meza emateari utzi ta esku-peta artuta atera zalako erbiari segika, Jaungoikoaren kastigua duala. Aidean ibiltzen dala, sua dario-

la eta zakurrak berekin dituala. Zaunka otsak sentitzen zirala esaten ziguten, eta bera txistuka.

Neri etzait tokatu ikusterik. Nik Santo Tomasena egingo det: *ver y creer*. Or konpon!

Au ere entzuten genion, beste askoren artean. Ainbeste bazituan arek. Murumendiko arkaitzean, zulo batean, dama bat egoten zala. Zenbat kontu esaten zigun!

Neska gazte baten itxuran azaltzen zala. Eguraldi ona zanean, eguzkia artuz, ikullu atxurrarekin illea orrazten ikusi zutela askok.

Ez dezute jakingo orrazi ori nolakoa dan. Ikuilluan ibiltzen degun lau anka dituan erreminta bati deitzen diogu. Arekin orrazteko, gaurko askok dabilkiten baiño ille luzeagoa bearko zuan izan.

Neri erakutsi zidan aitagun zegoan zulo ura. Egon izan nintzan barrena begira, baiñan etzan ezer ikusten. Arri tartean oso leku estua zegoan. Andik ateratzen zana ezin aundia izan.

Argi ibiltzen nintzan inguru artan. Barrendik zerbaiten otsik entzun izan banu, laster beko errekaraiño korrika jetxiko nintzan. Gaur baiño oiñak ariñagoak nituan orduan.

Mendi orren beste aldetik artzaiak egoten ziran. Ezagunak genituan bi beintzat. Aietakoren artean izango zuten ikaratzen etzana. Egun batean etorri omen zan zulo orren ingurura, eta asi zala deika:

— Emen baldin baago, azaldu adi!

Ezeren arrastorik ez. Orduan jendeak, gezurra pranko esanda alde egin zuala; eta urrengo gauean, lotan zegoala bere txabolan, joan omen zitzaion, esanez:

— Emen nauk, ezer esan bear badek.

Ura entzun zuanean, txabolari buelta emanaz, kendu omen zizkion berriz bueltatzeko gogoak.

Arek etzuan esango damarik etzanik. Uste det sartu ziola bizi guziko bildurra.

Garai artan sinistu eziñezko gauzak kontatzen zituzten. Nik uste det bazirala sorgin egitazkoak. Batzuk modu batera eta besteak itxura diferentean azaltzen zirala esaten zuten. Ez dakigu nolaz aldatzen ziran.

Au ere entzun izan nuan. Baserri batean, gauez katu bat azaltzen zala miauka, ta etxeko nagusia aspertua omen zegoan bitxo orrekin, egunero eta illunpetan ordu berean an agertzen zalako bildurtu ta lo egiten etziolako uzten.

Alako batean pentsatu zuala zerbait egin bearrean zegoala. Baiña nola asi ezin asmatu egunez. Auzoko danekin ondo etortzen zalarik, beti pentsatzen: “Zer kontrario daukat nik, argitan ain ondo ibilita?”

Illuntzeko bildurrak, triste bizitzen segitzen zuan. Buruauste asko ematen zizkion.

Ola dabilela, egun batean erabaki zuan gorde ta zaindu bear zuala; eta makilla aundi bat artuta jarri da koartoko atearen baztarrean.

Betiko orduan an dator gure sorgin ori. Jo nai zuan da bildurrak nola bukatuko ote zuan. Katu aundia omen zan. Azkenean tira dio kolpea. Jo du aurre besoan. An dijoa iru ankan, bestea aidean duala. Bialdu zuan ondotik. Baiñan etzuan gau artan lorik egin.

Goizean, eguna argitu zanean, kanpora ateratzeko naiko lanekin, zer entzungo ote zuan. Buruan zeukan bere ustea danak bazekitela zer egin zuan.

Asi bearra zegoan lanean. Joan da lantokira eta ekin dio. Auzoko lagunak etzioten ezer esaten. Bere gisaka oso gustora zegoan, ixilik pasatuko ote zan dana.

Gero gaua zetorren. Arek ikaratzen zuan, nola igaroko ote zuan. Oeratu zanean, aurrekoan begirik bildu gabe nekatua zegoan eta bereala lo artu zuan, eta egunsentira arte esnatu gabe, ezeren arrastorik gabe.

Goizean gustora zegoan, baiñan azaldu zitzaion bere pekatua. Kanpora zijoala, beste bizitzako amona ikusi zuan besoa lotuta zebillela. Orduan, gauza txarrik pentsatu gabe, galdetu zion:

— Zer dezu, amona, besoan?

Eta erantzun au eman ziola, arpegi txarra jarrita:

— Ik badakik, bai, nik zer dedan.

Orduan pentsatu zuala gauezko sorgiña zein izango zan. Bazuten nunbait birtute aparta ortarako: egunez kristau bezela ziran; eta, berak nai zuteanean, beren gogoko figura artu ta etxez etxe ibiltzeko. Baiñan iñori etzioten azio txarrik egiten. Sustatu edo ikaratu bakarrik. Olako ateraldi bat egin da goizerako beren lekuan lotan, arrigarri dirudi.

Beste bat kontatzen zigun gure aitonak. Etxe batean bizi zirala senar-emazteak, oso ondo konpontzen ziranak.

Urte asko pasatu ondoren, gizona konturatu zala andreak gauean alde egiten ziola, eta goizean noiz oerutzen zan etzan akordatzen. Pentsamentu asko zebilzkian buruan. Kezkati zegoan. Eguna joan, bestea etorri, beti berdin.

Triste bizi zan gizona. Etxekian zer egin: berari zerbait galdetu edo zaindu atzetik.

Egun batean erabaki zuan. Lo artzen zuanean, alde egiten omen zion. Orduan lotan zegoan itxura egin bear zuala; eta gero, ateratzen zanean, atzetik segitu.

Sukaldera joan da lenengo arropa danak kendu zituala emazteak. Urrena, lenago baserri guzietan

beko sua izaten zalarik, paretaren kontra txapa zabal bat egon oi zan, atzetik pasadizo bat zuala. Oraindik gure etxean badago dotore askoa. Txapa orren atzetik atera zuala pomada bat. Bere burua igurtzi zuanean, beste itxura bat artu omen zuan. Orduan bere gisaka esaten jardun zala:

— Sasi guzien gaiñetik eta laiño guzien azpitik!

Ori esanda, tximinian gora atera ta alde egin zuala.

Orduan gizonari bururatu zitzaion ukendu orrekin bere buruari ematea. Zerbait busti danean, emazteak bezela esan nai zuan, baiñan aldrebes atera zitzaion.

— Sasien azpitik eta laiñoen gaiñetik! —esan zuan.

Atera zan tximinian gora. Ekin dio larren azpitik. Andik ezin pasa ta dana urratu egin omen zan, da berandu etorri.

Emaztea konturatu zan bere bidea artu zuala, eta utzi egin zion sorgintzari, pakean bizitzeko.

Gaitz txarra

GURE aurrekoak esan oi zuten gaitz txar bat ezagutu zutela. Bere izena kolera omen zan. Oso bukaera penagarria izaten zutela azken orduan, miñez abantatu ezinda. Anakak paretan gora jarri ta karrasika egoten zirala, erotuta bezela; deadarka iltzen zirala.

Entzuten genien orrela gaixotu zala, gu sortu giñan ballaran, gizon bat. Konturatu ziranean zer gaixotasun zetorkion, asi zirala esanez:

— Mugitu gaitezen al dan azkarrena.

Eta batek esan ziela:

— Legorretan badago enplastero ibiltzen dana. Goazen beragana.

Orduan bi gizon preparatu dira joateko. Iru bat kilometro daude ura bizi zan baserrira. Asko ibilia naiz alderdi aietan. Ondo ikasi nuan ango berri: lenengo Zubin erre kara jetxi, gero Kortatu baserrian gora malda aundian, zenbat pauso eman bearra zeukaten?

Gaixoa gaizki zegoala jakinda, noizbait iritxi dira Zumiztia baserria. Gaur gure lagun baten famelia bizi da. Jose Inazio il berria da. Dultzaiñeroa zan. Jaunak berekin dezala. Jo dituzte atea.

Atera zaie enplasteroaren emaztea. Esan diote zer nai duten. Bere erantzuna:

— Errira joana da.

Garai artan nola etzegoan gaurko aukerarik telefonoz itzegiteko, anak astindu bear. Badijoaz goitik bera, Ajoaiñen ondotik pasata, kalera. Andreak esan zien:

— Tabernaren batean billatuko dezute.

Arek bazekian elizan etzala egongo. Asi dira lenengo edaritegitik begiraka. Patxikone aurrena. Sartu ta an arrastorik ez. Gero Estanko. Taberna egoten zan. Gaur ere ala egongo dala uste det. Sartu dira barrena. An billatu dute, bete-bete eginda.

Borondate ona omen zeukan joateko. Preparatu zitzaien, baiñan zutik ezin egon. Eldu diote beso ondo banatatik biak. Atera dute. Or dijoaz, inguruko jendea begira dutela.

Kamiñoan nunbait or. Gero kontuak. Balantzaka eta estrapozoka dijoala, izerditu zala ta bai mozkorra pasatu ere.

Lenengo bere etxera joan, bear zuan enplastoa egiten bear zituen trasteak artzera. Ajoaingo base-rrian gora malda ederra zeukaten alkoolaren indarrak billatzeko. Noizbait igo dira. Orduan oso ondo omen zegoan. Andreak aurrean gizon agertu zala esaten zuten.

Preparatu ala, traste danak sartu zaku batean. Beste bi lagun aiek artu zizkiotela, ta bera utsik. Ekin diote. Lenengo, Zumiztia-azpi. Urrena, Jauregi. Gero, Olalde. Andik beko erre kara. Orduan, Lasartetik gora aldapa gogorra zan. Ura gaur kamiñoa egin dute. Gauzak aldatu dira ordutik.

Noizbait aillegatu ziran. Danak an zeuden gaixoren ondoan, noiz agertuko zai, luze iritzita. Zai dagoanari orduak nekez pasa.

Lenengo, ikusi zuala ondo ezik zegoana. Gero eskatu ziela zartagi bat eta olio. Danak ateratzeko

esan zien. Etzuala nai izaten iñork ikusterik zerekin da nola egiten zuan.

Sartu ziran danak koarto batean. Bat jarri zala atearen giltza zulentik begira, baiñan etzuala kasi ezer ikusi. Urritz makilla bat zuritu ta aren azala bota zuala zartagira. Etzala jabetu besterik.

Laster egin zuala enplasto ori. Etorri zan bere ura eskuetan artuta. Bi puskatan erdibana jarrita, anka bietan bana lotu ziola, eta arpegira begiratzen beti.

— Izerditan asita bagenduke! — esaten omen zuan.

Famelikoak nola egongo ote ziran? Ordu aiek etziran motzak izango.

Ordu bete inguru pasa zuanean, asi omen zan esanez:

— Salbo dek! Salbo dek! Ara kopetan bera izerdi tantoak!

Poztu zituan danak. Afaria gustora eman ziotela esaten zuten. Jateko denboran galdezka saiatu ziran. Etzuala esan nai erantzun zuala.

Pena ez al da abilidadea izanda? Besterik ez bazan, edo ez bazuan esaten, idatzita utzi beintzat, ondorengoak jakin zezaten. Gizon azkarrak asko omen dira. Falta gaberik, iñor ez.

Entzun izan det badirala pomada edo ukendu onak egiten dituztenak, infezioak, granoak eta eridak azkar sendatzen dutenak. Zeiñek egiten duan jakin da eskatuta, eman bai; baiñan nola egiten duan esan ez.



Goitik behera eta ezkerretik eskubira: Bizente, Felipa,
aita (Benito), ama (Maria Teresa), Jose eta Migel.

Medikuaren bixita

ORAIN dala egun gutxi jakin det gure aitonari bein batez zer gertatu zitzaion. Garai batean, seme-alaben ezkontzak gurasoak egiten omen zituzten. Aiek ere ala izango ziran. Amonak amazazpi urte omen zituan ezkondu zanean; senarrak, berriz, emezortzi. Anai-arrebak anai-arrebekin gurasoak jarri araziak izango ziran.

Egun batean entzun nion gure amonari, Lizardi ballarakoak gure etxe ondotik pasatzen ziran-da erria jesteko, Bixente izeneko bat, andik zijoala, gelditu egin zala kontutan. Berriketan gustatzen zitzaion. Ala esan zion:

— I ere gazterik ezkondu intzenan.

Amonak:

— Ni ezkondu? Ezkondu arazi egin giñuzean gu. Baiña gu ezkondu arazi giñuzenak, kontzientziko karga ederra egin zien.

Bixentek:

— Etzekiñat aiek kontzientzia kargatu zuten edo ez. I beintzat, ezkondu intzenezan, laster kargatu intzenan.

Eta amonak:

— I beti erokeriak esaten! —esanda partitu ziran.

Lenengo alaba emezortzi urterekin izan omen zuan. Nere ama zan ura. Bigarrena sortu zanean, aita, ogei ta bi urte zituala, gaixotu egin omen zan. Gaizki, beren ustetan.

Bialdu dute auzoko bat, azkar ekartzeko medikua esanda. Larri joango zan noski. Jo du atea. Etorri zaio sendagillea bera. Esan dio zer pasatzen dan, eta:

— Momentuan ez daukat joaterik. Emaztea daukat partuan. Piska bat itxoin bearko du.

Bestea estu:

— Azkar buelta egiteko esan didate eta...

Ikusi zuanean triste jarri zala billa joan zana, ain presaka etzan egongo artean eta andreari esan dio:

— Segituan etorriko naiz.

Artu du zaldia. An dijoa korrika eta presaka. Billa joan zana ere bai, ari segitu eziñik, larri baiñan gustora, ekarri arazi zuanean.

Sartu da koartean. Ikusi du. Gizon txikia zan gure aitona. *Ramon Txiki* deitzen zioten. Gaztea, ogei ta bi urte, mutil koskor bat iruditu. Medikua militarra omen zan eta asi zaie erritan:

— Ume mutur zikin onengatik ekarri arazi nazute, andrea partuan utzita?

Jenio txarrean artu du bere libreta, asi errezeta egiten da onela esaten omen zuan:

— Ni etorri naiz, ba!

Orduan, besteko Maria Joanak esan omen zion:

— Au ere bi aurren aita da beintzat.

Ura entzun zuanean, arpegira begira jarri ta galdetu ziola:

— Bi aurren aita au?

— Bai, jauna, bai. Bi alaben aita da.

Orduan, lenago egin zuan errezeta puskatuta, berria egin zuala eta esan ziela segituan joateko billa. Pastilla batzuk zirala. Sei ordutik sei ordura emateko. Ez bazan argitzen, urrengo egunean abisatzeko.

Nik mediku ura ondoan baneuka, galdetuko nioke:

— Lenengo papel artan zer jarri zenduan: txitxareak galtzeko bikarbonato ala?

Edo, bestela, ain txikia ikusi zuanean, umeentzako egingo zuan.

Artean bearreko lekuan zegoan gure aitona. Amairu seme-alaba izan zituzten. Eskerrak gaur aiña gastu etzegoala aurrak eskolatzen. Amaramabi urte egindakoan, al zan tokira.

Etxe batzuetan, famelirik etzutelako edo mutil koskorrik etzeukatelako, bei aurrean ibili ta iturriko ura ekarri izaten ziran lanak.

Oitura aundia zuten esateko, edade ortako mutikoogatik:

— Semea azi zaizu.

— Bai. Okerrena egin du. Emendik aurrera, txotxa baiño ohea da ori.

Alabak, berriz, alboko etxeren batera aurrak zaintzeko edo al zan tokira.

Bein indartu ezkerro, apaiz, fraile edo monja, danetarako lain izaten zan orduan.

Nere aitaren arrebak sei ezagutu nituan: bi esposatuak, beste bi monja, besteak solterak. Gazteenak, edade onean zegoala, eskea izan omen zuan. Gure aita joan omen zan ea ezkondu nai zuan, eta esan ziola:

— Bi ezkondu dira, beste bi monja, gu soltera geldituko gera.

Ala izan ziran.

Gaur, entzun izan det, aur gutxi jaiotzen dalako dagoala apaiz faltea, edo kategoria bajatu zaielako. Lenago, bat ikusitakoan, txapela kendu ta eskuan musu ematera joaten giñan. Gaur ezta ezagutu ere, errikoa ez bada.

Gure gurasoak amairuna senidetakoak omen ziran. Fameli oiek pozgarriak dira, azi eta boda edo festa batean maian ikusita. Bitartean lanak. Etzan urtero traje berria egiterik izango danei. Eskerrak egindakoa ondo aprobetxatzen zala. Zarrenari txiki egindakoa, urrengoak jazten genduan.

Gaztetan orrela azitzea edo ezitzea gerorako ez da gaizki etortzen. Gazterik lanean ikasitakoak bizi guzirako oitura artzen du.

Orain berrogei urte, sei bat urterekin eskolan asten ziran; eta, amalau urtera iritxitakoan, lantokira egunez. Illuntzean eskola ikastera joaten ziran. Gaur baiño errezagoa zan lantokia billatzen. Orduan ikusten zuan gazteak edo lanean segi edo-ta eskola artu beretzat.

Gaur bezela etziran kalean ikusten beintzat, alkarrengana bildu ta geldi. Aspertutakoan, danak aberiak egiten baztarretan. Ori dana sortu arazi du berentzat lantokirik ezak. Gaizki oitu betirako.

Dirua nai zerbait erosteko; eta, guraso askok ezin eman, eziñean dabilzalako. Orduan asten dira bide txarretan, nun zer billatuko. Orrek ekarri ditu emen oker aundiak. Noiz arte orrela? Zoritxarrean, luzarorako izan liteke.

Gaur ikusten dira gertakizun tristeak: semeak era ortan, gurasoak lantokirik gabe. Zeiñek zer emango goizean esnatuta. zer alaitasun eduki lezake batek? Era ortan gertatzen danak badauka naiko lan berekin.

Gure gazte denbora etzan olakoa izan. Bost edo sei urte ezkeru, lana seguru, batean ez bazan bestean.

Naiz maian zortzi-amar lagun bildu, goizean kafesnea; amarrak aldera urdai puska bana taloa-
rekin; gero katillu bana esne; naiko taloa barrena. Ondo betetakoan lanera danak, ordubata aldera
arte.

Orduan bazkaria. Otordu jakiña geienez: naiko
babarruna, txerriarekin egosia. Ogirik ez bazan,
taloa. Tripa bete beintzat.

Neri zer pentsa jarri arazten dit emengo gose
kontu onek. Orrenbeste baserri ustuta; ainbat soro
piñu sartuta; kale baztarretan boltsak betean, ogia
botata; eskean dabilzanak ez dirala Euskal Errian
sortuak izango. Emen ez det uste iñor goseak iltzen
danik. Saiatu ezkerro, billatu liteke ogia beintzat,
asko ordaindu gabe.

Baiñan esaera da besteren etxea zuzentzen erre-
zagoa dala.



Bizente Barandiaran, ogei ta bi urte zituala.

Piztiak

LENGUSU bat egoten zan gure etxean, Zaldibiko Aldaburu baserrikoa, gure aitaren arrebaren seme gazteena. Inazio bere izena. Ni baiño urtebete zarragoa zan. Gerran il zan gizarajoa, Teruelko frentean.

Gure etxean egoten zan don Salvador Irigoien apaiza. Berak eskola ematen zigun. Izebak bialdu zuan bere semea, Inazio, gurekin eskola ikastearren.

Bañan ez genduan ori bakarrik izaten. Etxean ere bazegoan beste zer egin geiago. Gure baserriak, soro sail aundiak ditu.

Neguan bezela, udaran berdin, denborale txarretan alde guzietatik ura sortzen zan, eta lur asko arrastratzen zuan maldan bera. Gure aita nola etzuan lanak apuratzen, kañuak ateratzen zituan lurpean, lan asko eginda. Saisetsetan pareta modukoa egin, gaiñean arlosak jarri eta lurrarekin estali.

Ortarako irakurri ondo zer lan jartzen zigun. Metro bat eskas izango zan atxurraren kirtena. Ba, eguneko tarea ematen zigun zuloa egitea kirtenaren luzerokoa, beste ainbeste zabalean, eta berdin goitik bera,

Atxurra eta pala astinduta bera sartzen giñanean, Goierrian *lur-saskia* esaten genion, baiñan emen, Altzan, *kopa* deitzen diote; eta alako bat artu

batek, atxurrarekin bete, besteak gora atera ta ustu albora. Bekoa nekatzen zanean, txanda egin. Au dana egin bear genduan goizeko bederatzietarako. Eskolara gero.

Erdia egindakoan, asten giñan esanez:

— Naikoa al da?

— Beste piska bat —esaten zigun aitak—. Bost minutu benik.

Erritarik etzigun egiten. Onean al zuan guztia.

— Zoazte —esandakoan, korrika biok. Uniforme dotorea izango zan, guk lur artetik eramaten genduana.

Berrogei bat metro luzean egiten genduan zuloa. Gero, soro bat baldin bazan aldapan ta arritsua, an atxurrarekin azalduaz arria ateratzeko, pikatxoia eta palanka izaten zituan.

Aiekin ezin bazan, barrenoa deitzen genion, arrian zuloa egiteko ibiltzen zana. Ez genduan metro erdikoa nai orduko egiten.

Orduan dinamita kartutxo bat sartuta, pistoia barrenean jarri metxa batekin. Puntatik sua eman da korrika igasi. Arri asko astintzen bazigun, gustorra izaten giñan.

Orrelaxe pasatzen genituan egunak eta asteak. Etziran nai orduko bukatzen soroko lanak.

Amalau urtera arte eskolan, egunean lau edo bost ordu. Besteak lanerako: ardi zai, bestela atxurrean, lurrean girorik ez bazan basora... Aste egunean etzegoan barkaziorik. Igandea etortzeko pozak.

Igande arratsaldean jai. Beti ez giñan zuzen ibiltzen. Lenengo, errosarioa iru t'erdietan. Gero, jokura dirua zeukana. Guk, bi lengusuak, ura palta. Asmatu genduan zer egin. Urtean bi egun izaten genituan, dirua sortzen genduanak.

Lenengo, azaroa aldera, txerria iltzen genduanean. Oitura zan txerri erregaloak partitzeko auzoan, lau edo bost etxetan. Gu pozez joaten giñan. Dozena bat amar zentimo biltzen bagenduan, ura guretzako aberastasuna zan.

Gero, Eguberri bezpera. Aurrerago esango dedanez, etxez etxe kantari ibiltzen giñan Gabon egunean. Amalau urtetik gora, berriz, erri osoan. Orrela egiten giñan diruaren jabe.

Baiñan bi egun oietan bildutakoak, eltze itxuan sartu bear izaten genituan. Lenago esan det diru paltan nola gertatu giñan. Guri auxe bururatu: etxera joan da eltze itxua puskatu bear genduala. Pentsatu ta egin.

Arratsalde ura txarrerakoa genduan. Etzait aztutzen. Illunabarrean, etxetik goragoan borda bat gendukan, bi edo iru bei egoten ziran, da guri esan ziguten jana emateko. Joan giñan. Eman genien, esan bezela.

An gabiltzala, ikusi degu oillo bat loka dagoala bere kabian. Esan genion alkarri:

— Au putzura sartu bear diagu.

Artu ta eraman degu. Beiak edateko aska zegoan. Uretan eutsi genion bastante denboran. Atera ta lasatu zan. Pentsatu genduan berriz sartzea. Astakeri bat azkenean: gu konturatu gabe, ito egin zan. Pena genduan, baiñan alperrik.

— Orain zer egin bear diagu?

Ixilik gordetzea pentsatu genduan. Sasi tarte batean sartuta utzi. Gorde genduan, baiñan barreanean traba bat gelditu zitzaidan.

Urrengo egunean, beti bezela, gure ama or dijoa oilloak gobernatzera, mantalean emezortzi arraultza artuta, oillo bat loka zegoala ta ari jarri bear zizkiola esanez.

Berritu arazi zidan nere naigabea, ikusi nuanean bere arraultzekin etxera zetorrela. Esan zidan:

— Zortzi egunean apian egon da, ta altxatu ta alde egin dik.

Ez nion esan zer egin genion, pena geiago artuko zuan da.

Beste bat daukat kontatzeko modukoa. Udara batean, alboko baserrian bizi zan nere osaba, amaren anaia, ta esan zidan:

— Goazemak basora. Ontzaren kabia zeukeat arbola zulo batean. Batek zuloa itxi eta besteak arrapatu zegok egin bearra.

Ni ere bai pozik olako lanetara. Joan giñan biok. Arek esan bezela, nik tapatu nion zuloa. Arek sartu zuan besoa. Ontzak besoa mokoarekin jotzen ziola ta ateratzen zuan. Orduan, bion pañueloekin bilduta sartu zion berriz. Eldu dio bi anketatik. An atera zan gure ontza.

Artu ta ekarri degu etxera. Arekin gozatu bat artu ondoren, auxe bururatu zitzaigun: dinamita kartutxo puska bat jartzea ontzari. Gazteak idea onik ez.

Jarri genion petxu azpian, trapu zirrindara batekin egoaren azpitik lotuta. Pistoari metxa sartu gero, kartutxoaren barrenean lotuta.

Joan giñan berreun bat metro bidean gora. Nai genduan egan zijoala lertzea. Ez genduan ori iritxi. Bota genduanean, asi zan goitik bera.

Gure aita orduantxe ganaduekin iturritik etxera. Gure ontza an dijoa berarengana. Asi zaigu oska:

— Baiño, baiño, baiño...

Apuratuta gizarajoa.

Baiñan be aldera jetxi zanean, gure atarian in-txaur arbola aundi bat zegoan. An gelditzea pentsatu zuan ontzak. Sartu zan barreneko adar tartean

gora. Baten gaiñean gelditzera zijoala, lertu zaio kartutxo ori. An jetxi ziran arbola ostoak, ontzaren lumak eta danak.

Penaz gelditu giñan. Guk nai genduan, aidean zijoala, bistan lertzea. Deskuidoa izan genduan. Metxa luzetxoa jarri genion.

Aitaren bildurra omen zan ganbarako leiotik barrena sartuko ote zan, bere metxa sutan zuala, Askotan, uste ez dala, okerrak gertatzen dira. Uda-berrian asita, olaxe ibiltzen giñan.

Au ere gogoan det. Ordizira urak eramateko, *iturri bidea* esaten genion, andik ibiltzen giñan. Astoa-ekin ere bai. Egun batean banator astoa egurrez kargatuta.

Egur adartsua zan. Goiko pendizeko larrak astinduz zetorren, eta antxe eduki txepetxak bere kabia. Or ikusi det astoko egur artetik igasi dijoala. Astoa pasatu zanean, billatu nion nun zeukan kabia. Pentsatu nuan: "Biar arrapatuko aut".

Pentsatu bezela, joan nintzan urrengo egunean. Poliki arrimatuta, itxi dizkiot bi txuloak. Txepetxak bi txulo egiten dizkio kabiari, bat ixtean bestetik alde egiteko. Nik biak itxi nizkionean, mokoarekin golpeka asi zan. Baiña nola etzuan miñik ematen, kabi ta guzi ekarri nuan.

Sukaldean, gaztak sekatzeko egurrezko parrilla bat zegoan, altu jarrita. Arixe lotu nion txepetxa, anketik ari batekin, ustez seguru. Baiñan denbora gutxirako.

Parrilla orren azpian edukitzen genduan, *orre maia* deitzen geniona. Garai batean, taloak egiteko orrea egiten zan arto iriñarekin. Orregatik deitzen zitzaion *orre maia*.

An zegoan nere txepetxa. Alako batean, pentsatu du alde egitea, libre dagoalakoan. Asi da egan. Baiñan aria bukatu danean, or dator goitik bera txintxilika.

Nik ez nuan ikusten katua silla azpian zegoanik. Saltatu da orre maiaren gaiñera, eldu dio txoriari, anka soka utzi ta ganbarara korrika. Akabo nere txepetxa. Zenbat olako kontu ibiltzen genduan?

Au ere neri gertatu zitzaidan. Bolara batean beti ardiekin ibiltzen nintzan. Pizti guziak ezagutzen nituan. Bizimodu aburritua zan benetan. Uste det bakarrik izketan antxe oitu nintzala. Orain ez det lagun bearrik izketarako. Bakarrik berdin egiten det.

Sartu nadin nere bidera. Orain idatziko det zer gertatu zitzaidan. Beti txoriei begira, nundik nora zebiltzan. Egun batean ikusi det txantxangorria gaztain zulo batetik ateratzen. Gustora jartzen nintzan, denbora pasatzeko zerbait zanean. Begiratu nuan ezer ba ote zeukan. Bost arraultza bereak izango ziran, txikiak oso. Beste bat aundiagoa.

Beste bizitzako osabarekin enteratzen nintzan. Eguerdian etorri ta esan nion nola billatu nuan. Esan zidan bere umeak, jaiotakoan, il egingo zituala; eta kukuarena bakarrik aziko zuala.

Arek esan bezela, andik egun batzuetara nun ikusten ditudan txori gaixoaren ume danak arbola ipurdian ilda. Ura pena eman zidan! Pizti guzietan bai ote da txantxangorriak aiña meritu duanik?

Nere buruari buelta pranko ematen diot, zein ote dan txoriaren umeak iltzen dituana. Bi gauza daude arrigarriak: txoriak ilko ote ditu edo kukua ote da orren trebea? An gelditu zan kukukumea bakarrik.

Esan nion nere osabari, arek esan bezela, il da bota zituztela txorikumeak. Erantzun zidan kaso egiteko noiz lumatzen zan. Amar zentimo emango zidala. Nere poza, ori esan zidanean! Gaur, milla pezeta eskeiñita, ez nuke olako pozik artuko.

Txantxangorria alako doble azi zan. Aren poza, ni arrimatzen nintzanean, ota entzuten zuanean!

Uste zuan txoria zetorrela beretzat janarekin. Mokoa zabalduta jartzen zan.

Ondo lumatu zanean, esan nion osabari laster alde egingo zuala.

— Biar ekarriko diagu.

Ni diruaren zai. Urrengo goizean joan naiz pozik. Or billatu det txori kabia utsik. Nere penak, kukua palta eta nik dirurik ez! Etzan eguerdi arte ura oso motza izan.

Etxean sartu gabe joan nintzan osabari esatera kukuak alde egin zuala. Bera parrez asi zitzaidan. Ikusi zidanean penaz nengoala, esan zidan:

— Kukua etxean zegok, motell.

Orduantxe lasatu nintzan. Agindu zidana emanda bialdu ninduan.

Garai artako gertaerak danak bururatuko balira, liburu bat baiño geiago osatu litezke. Naiago nuke nik emen idazten ditudanak zuen gogozko izango balira, irakurle maiteok.

Beste bat gogoratu zait, eta au ere idatzi nai det, egun batean gertatua. Nola ibiltzen nintzan, ardiekin ez bazan, bei zai berdin, goizean gosalduta talo jan bat egin ondoren, atera nituan. Ez dakit seguru sei edo zortzi bei ziran.

Irurogeiren bat metro bidera zegoan Albitxuri izeneko gaztaiñadi bat. Egun artan aruntzako bidea eman zidan aitak. Joan nintzan, danak aurrean artuta, amabiak aldera arte.

An nenbillen beren inguruan bueltaka. Alako batean nun ikusten dedan katagorri bat arbolaren gainean neri begira. Piska batean egon nintzan geldi. Etzan mugitzen.

Pentsatu nuan etxera joan da eskupeta ekartzea. Joan nintzan korrika. Bagendukan eskupeta zar bat. Gero esango det nolaz zegoan gure etxean.

Artu det. Amaseiko kartutxoan bear zuan. Asko etziran egongo. Bat edo bi artu ta joan, alde egingo zuan bildurrez.

Iritxi nintzanean, an zegoan. Arbola bakarra zan. Gertu egon ezkerro bestea, lau bat metro bidean errez saltatzen dira. Baiñan ezin pasa lurrera jetxi gabe. Beiak ondoan zebiltzan. Ikaratu egiten zan. An zegoan geldu, inguratu nintzanean.

Gorde nai izaten dute, arbolari buelta emanda. Baiñan ikusi ere egin nai zuan. Gorputza gorde ta burua agertu, justu apuntatzeko denbora banuan da tiratu nion. Zuzenean lurrera or dator. Artu ta gustora nintzan, uste gabeko eiza eginda.

Ordurik ere ez nuan ibiltzen. Tripak orruz asten ziranean, amabiak gertu. Beiak artu ta etxera apetitu ederrarekin.

Etxean sartu gabe, eun bat metrora gendukan iturria. Aurrena ara joaten ziran beiak, ura edatera. Utzi det, lenengo, katagorria sukaldeko maiaren gainean. Beiak bakoitza beren lekuan jartzen ziran askan, jana bazuten beintzat. Lotu nituan katearekin lepotik.

Joan nintzan sukaldera eta katagorria palta. Galdetu nion amari artu al zuan. Arek etzuala ikusi.

Segituan pentsatu nuan zeinnek eraman zuan. Igo naiz korrika ganbarara. Belar pillan zeuzkan etxeko katuak umeak. Orduan zijoan katagorria ortzetan artuta igesi. Zotz bat neukan eskuan. Jo nuan burutik bera. Laster utzi zuan.

Bazkal ondoan, larrua kendu ta patxara ederrean tripak aterata, jarri nuan garbi. Gauean, amak eltzekada bat patatarekin preparatu zuan. Jaten asi giñanean, ala zion aitak:

— Katagorri orrek patatak gozatzeko balio dik. Kutxarakada bat oliok baiño gusto ohea ematen zio.

Ondo etorri zan gure eskupeta zarra. Lenago idatzi det gero jarriko nuala nola gendukan. Ara nolatan zan.

Garai bateko oitura, pameli artean iñun jaiotzarik izaten bazan, bisita egiteko oillo bat artuta joatea izaten zan. Gure bigarren amaren aizpa-ta Orendaingo Intxualde baserrian ezagutu nituan. Gero Asteasuko Etxesagasti baserrira aldatu ziran.

Bere erraiñak pamelia izan zuanean, gure aitak bisitaz eraman nai, oitura zan bezela, oillo bat. Len-dik ikusita zeukan bat kanpoan ibiltzen zana. Uraxe bialdu nai bistatik. Etzion onik egiten kanpoan ikusteak.

Larunbat illuntzean joan da goiko bordara. An edukitzen genituan bei pare bat eta oilloak. Illargi ederra zegoan.

Ganbaratik zegoan sarrera giltzarekin. Beko atea barrendik itxita egoten zan. Ondora iritxi zanean, konturatu zan beko atea ondo itxi gabe zegoala. Bertatik sartzea pentsatu omen zuan.

Ateondora iritxi zanean, orbeletan otsa sentitu omen zuan. Atea zabalik zegoalako, zakurren bat izango ote zan pentsatu zuala. Parola piztu zuanean, ganaduak begiratu larriarekin omen zeuden.

Asi zala oilloei begira. Berak nai zuana etzegoala barrenean. Nola zekian kanpoan gelditzen zala askotan, atera zala ea an ote zegoan, eta arkitu zituan oilloa ta eskupeta.

Orduantxe konturatu zan aita norbait zegoala barrena sartuta. Baiñan arek, atearen pareko leiottik atera ta alde egin zion. Alaxe egin giñan sekulan etxean ikusi ez genduanaren jabe.

Alde egin zuana, bera etzan etorri eske; guk ez genion eman. Seguru ez genekigun zein zan, naiz idea bat eduki. Baiñan au utzi dezadan bere lekuan.

Beste katagorri batena kontatu nai nuke. Ainside ikusi nituan nere gazte denboran, ogei ta lau urtera arte geienean basoan ibili nintzan da.

Udara azkena zan. Urria seguru uste det. Belarlanak bukatu eziñik ibiltzen giñan. Urte artan ere bai. Ariztitxo du izena belardi arek. Belarra ebaki ta uste det urte artan azkenekoa zala.

Anaia aurretik joana zan. Ni ere banijoan Elorria izeneko basoan barrena. Beste arbolen tartean mizpera aundi bat zegoan. Parera iritxi nintzanean, begiratu nion arbola orri, ta nun ikusten dedan katagorri bat. Seguru mizperak jaten ariko zan.

Neri begira gelditu zan. Nik pakean ezin utzi. Asi nintzan lurrera begira. Arririk etzegoan. Artu nuan sokor bat, oso legorra, arria bezin gogorra. Katagorria adarraren kontra jarrita zegoan. Tira diot eta suertea: jo det buruan adarraren kontra ta seko lurrera.

Joan nintzan korrika, baiñan etzeukan alde egin bildurrik. Artu nuan. Jertse bat neukan eskuan. Soka mutur bat ere bai patrikan. Lotu nion jertseari beso muturra. An sartu nuan. Ala joan nintzan belarretara.

Gero aita joan zan idiak eta gurdiarekin. Kargatu genituan belarrak. Bukatu ere bai. Gustora etorri giñan. Bazan ordua. Aspertuta genbiltzan lan orrekin.

Nik, berriz, banuan beste zer egiña: katagorria larrutu, tripak atera ta garbitu. Preparatu nuanean, esan nion amari segituan jartzeko. Ezetz esan zidan. Urrengo egunean ohea azala.

Ala utzi genduan. Sukaldeko leioan bagenduan, sarearekin jarrita, *freskera* deitzen geniona. Gauean an edukitzen genituan, olako gauzak ziranean. Urrengo illunabarrean preparatu zigun, aurrekoan bezela, gure katagorria patatarekin. Egunero artu zitekean olako aparria.

Nola asi naizen mokadu gozoak aitatzen, au ere idatzi nai dizutet. Poztuko nintzake, irakurleen gogokoak dirala zuetakoren batek esango balit. Beste au ere neroni gertatua da.

Askotan bezela, goizean gosaldu ta atera nituan ardiak basora. Eguerdira arte aiekin ibili bear. Eguraldi ona bazan, gaitz erdi. An nengoan nere aiei begira.

Alako batean nun ikusten dedan ardi tartean saltoka erbia igesi. Laster joan nintzan ura altxatu zan tokira. Billatu nion kabia nun zeukan. Erbiak ez du ezer jartzen bigungarririk. Dana garbitu ta lur gorrian egoten da. Begiratu nion ondo zer lekutan zegoan. Pentsatu nuan urrengo egunean an egongo zala. Etxera etorri nintzanean, joan nintzan osabarengana. Esan nion erbiak nola alde egin zuan, da urrengo egunean joan bear genduala. Parre egiten zidan. Arek etzuan uste berriz ara etorriko zanik gauean. Esan nion:

— Biar goizean joan bear degu.

Preparatu zan joateko. Urrerengo goizean argi nengoan ni egunsentirako. Laster etorri zan bere eskupeta artuta. Atera giñan. Etzegoan bide asko: berreun bat metro gutxi gora-bera. Lenengo, beste aldetik begira egon giñan. Esaten nion:

— Ortxe egongo da. Goazen ondoraño.

Berak etzuan espero an egoterik. Ni, berriz, uste osoan esaten nion dana, maisu bat banintz bezela. Baiñan nere burua geiegi jasotzea ere ez da egokia izango. Dana dala, nik merienda preparatzea nai nuan.

Iru-lau bat metrora iritxi giñanean, esan nion:

— Altxatzen bada, segituan ez tira, gertuegi dago ta.

Arri batzuk neuzkan eskuan. Tira diot ustez bera zegoan lekura. Sekulako saltoa egin zuan.

Salto pare bat egindakoa tira zion, da or dioa bueltaka maldan bera.

Ni ere bai bere atzetik. Artu nuan atzeko bi anketatik. Nere poza! Iru bat kilo bazan. Erbi asko ikusi ditut, batek eta besteak botatakoak. Baiña oso gutxi ura aiña pisukoak.

Osabak neroni eman nai zidan. Ezetz esan nion; berak il zuala eta kartutxoa ere arek erre zuala. Berak eraman zuan. Gustora joan zan bere arekin.

Baiñan bigarren gauean deitu zidan izeba Pilarrek. Erbia nerea zala ta jatera beintzat joateko. Orduantxe bai gustora joan nintzala. Erbia aundia zan eta ura kazuelkada! Eta nola jarrita zeukan! Garai artan, olako janaldi batek zortzi egunerako poztutzen giñuzen.

Zenbat olako gertaera izaten genituan! Danak ezin bururatu, alegiña egin arren. Au ere neroni gertatua da.

Beste egun askotan bezela, joan nintzan sorta bat belar ekartzera. Segá, soka, eskoarea eta sega potoa esaten genion, sega zorrozteko ibiltzen genduan. Segá arria sartzeko izaten genduan zinkarekin egindako ontzi bat. Egurrezkoak ere izaten ziran, arotzak eginda. Lan asko zuan orrek. Gutxi ikusten zan.

Esan bezela, joan nintzan belar billa. Ekin nion segan. Laster ebaki nuan nik eramateko diña. Gero, besadak egin, sokaren gaiñean jarri, ondarrak bildu. Danak jarritakoan, sokarekin bildu.

Aldapan errezago artzen da, eserita jarrita, bizkarrean. Ordeka edo zelaian zaillagoa da. Bizkarretzen al dan bezela saiatu bear. Nola edo ala jaso nuan beintzat.

Joan naiz etxera. Ganaduen aurrean bota nuan sorta ori. Sokea kendutakoan, oitura degu belarra dana zabaldu. Esango det zergatik. Belar berdea

pillan uzten bada, bildurgarria da. Berotu egiten da, eta askotan gertatu izan da ganadua aizeatu. Aizez betetzen da. Lertu ere bai. Ezten batekin zulatu izan ditugu, aizeak atera ta salbatu ditezen. Orregatik degu, belar berdea ekarritakoan, zabalteko oitura.

Asi nintzan sardea artu ta buelta emanaz. An agertu zait. belar tartean, suge baten erdiz aurrekoa, miztoa atereaz, ez jenio ederrean. Segarekin erditik ebaki egingo nuan.

Ura kanpora eraman da asi nintzan berriz, beste erdia ea an zegoan, belarrak bueltaka astintzen. An agertu zan beste erdia ere. Arek etzidan bildurrik ematen. Bestea zan bildurgarria.

Nik sugeari beti izan diot izua. Eskerrak txamarrara zar bat burutik bera artu nuala. Pentsatu utsak dardara ematen dit. Gertatuak badira sugeak eldu eta gaizki ibilitakoak.

Baita ere, nik kanpoan billatu nuan bezela, ganaduari askara bota ta mingaiñetik zulatuta, albaiteroarengana joan da sendagaiak ekarri bearrean. Uste ez dan lekuan sortzen dira ezbearrak.

Beste bat badet onen antzekoa. Nere gazte denbora zelebrea izan zan. Orain idazten asi naizenean, aztuta neuzkanen azterketa egiten ari naiz.

Ardi zai nenbillen Murumendi aldean. Udara zan. Bero aundia egiten zuan. An nenbillen beko erreka ondoan itzalean. Ardiak ere, bero zegoalako, bera jetxi ta itzalean.

Orduak ain luzeak izaten ziran. Itzegiteko iñor ez. Bakarrik ere saio ederrak egiten nituan. Artan ere aspertzen nintzan, iñork etzidan erantzuten da.

Ola nenbillela, erreka ondoan sasia besterik etzegoan alde danetan. Antxe bide zar batean nijoa-la, arbol baten ondotik altxatu zait belea zalapartaka. Uste gabe sartu nintzaion beragana.

Begiratu nion zer ote zeukan. An lurrean nun ikusten dedan: gutxienez metro bat luze zan sugea jaten ari zan. Pizti guziak badutela beren sena edo jakinduria: burua zeukan jana. Bada ezpada ere, etzan asi isatsetik. Bazekian azkarrena nundik menderatuko zuan.

Arritu nintzan belea nola zebillen erreka zulo artan bakarrik sartuta. Oiek geienetan dozen erdi bat gutxienez alkarrekin ibili oi dira. Bat beti besteak zaintzen, arbolaren puntan jarrita. Besteak lurrean lasai. Zaindaria, inun ezer ikusten badu, laster deituko die. *Koak, koak, koak* an altxatuko dira danak beste leku batera.

Nik uxatu nuana urrengo egunean azalduko zan an utzi zuan sugearengana. Alde egiteko bildurrik gabe geratu zan ura, burua kenduta.

Orain beste bat gogoratu zait. Au ere jarri nai dizutet. Aspaldiko oitura ederra da ba auxe, nere-tzako beintzat. Pentsatzen det zuek ere ala izango dezutela.

Baserrian eta kalean oso gogozko zaiguna da San Joan bezperan illunabarrean suak egitea. Txikiak giñala, an ibiltzen giñan soro baztarretako sasiak garbitzen. Aitak esan baligu, ez giñan joango seguru. Geren gogokoa zalako, gustora. Antxe danak, zeinek garrrik aundiena ateratzen genduan.

Beste oitura ere bazan. Abarka zarrrik billatzen bagenduan, makilla bati puntan lotu soka batekin. Su ematen genion, da arekin korrika ta bueltaka.

Baiñan oso peligrsoa zan. Nola urtu egiten zan sutan, tantoak botatzen zituan. Aietakoren bat erortzen bazan eskuaren gaiñera, jolaserako gogoak kenduko zizkigun. Probatu zuanak badaki.

Gure aurrekoak esaten zuten oitura ori zala etxe inguruko bitxo txarrak bialdu arazteko, naiz sugeak, arratoiak, erbiñudeak...

Au askok ez dute jakingo zer dan. Au da arratien antzekoa aunditasunean. Kolorea gorria. Tximista baiño azkarragoa eta bildurgarria. Eldu ezkerro, benenoso. Olakoak alde egitea obe.

Gure etxean konturatu giñan oillo lokari txitak gutxitzen ari zitzaizkiola. Jarri genduan ikullu baztarrean zepoa, arratoiak ziralakoan. Urrengo egunean an agertu zan pekataria, txita ortzetan zuala: erbiñudea. Sua baiño ohea zan zepoa, ura garbitu arazteko.

Gurean etzan orrenbeste. Baiñan gogoratzen naiz: gure baillaran Lizardi izenekoak ziran lau baserri. Gaur bi daude. Erori ziranak erreka ondoan ziran. Beti zerbaiten enkargua izaten genduan ara joateko.

Batean, baserriko nagusia, Bixente ni bezelaxe, ta biok asi giñan kontutan. Nik ez dakit zapoak ziran edo erreka zegoan bertan da igelak zeuden. Illunabarrean ura ixtillua: *kik* eta *kuk*! Ezin genduan itzegin. Bixente orrek alako batean oiu egin zuan:

— Ixooo!!!

Danak ixildu arazi zituan.

— Guk ere itzegin bear diagu! —esan zien.

An etzegoan San Joan bezperako suarekin danak bialtzerik. Bixente orrek gertuko parienteak zirala esaten zigun; oiaren azpian igual kantatzen zutela.

Bueno, galduta nabil nere zapo eta igelekin. Oraindik ez det San Joan sua bukatu.

Urte batean egin genduan besteetan bezela, gozatu bat artuta. Erri guzian ikusten ziran argitasunak. Neri beintzat asko gustatzen zait sua. Bajatuz zanean, aizerik etzebillen da an utzi genduan. Laster apaldu ta lotara.

Etxe ondoan oillaskoak neuzkan. Beti ekartzen nituan amabost bat egunekoak. Lenengo, pentsu nastua; gero, artoa bakarrik. Ola neuzkan.

Atarian sua egin genduanean, len esan bezela, joan giñan lotara danok. Lo geundela, asi zaizkigu oillasko danak karrasika. Ama ere etorri zan neregana, onela esanez:

— Zer dute oiek?

Leioa iriki ta jarri giñan begira. Etzan ezeren arrastorik. Sartu berriz. Laster asi ziran zalapartakak. Jeiki ta joan nintzan ea zer ote zan, makilla bat artuta.

An zebillen illargitan, oillasko danak aurrean artuta. Asko korritzen zuan, baiñan ezin arrapatu. Sarearen ondora iritxi ziranean kontuak. Al zuten bezela, batzuk korrika, besteak aidean, alde egin zioten gora. Oillaskoak etziran nerekin ikaratzen. Pasa ziran danak.

Nik uste nuan arratoiren bat izango zala. Nere ingurura iritxi zanean, *tapa* gelditu zan. Ez neukan makillarekin jo bearrik, geldi zegoan da. Joan nintzan ondora. Segituan konturatu nintzan trikua zala.

Gauza zelebrea da bitxo ori. Irakurle askok eza gutuko dezute nolakoa dan. Beste batzuek ez noski. Lau anak atera ta bere mutur luzearekin, oso polita da ibiltzen ikusteko. Baiñan iñor ondora inguratutakoan, sartuko ditu lau anak barrenean; muturra ere bai, bilduko du. Bizkarreko arantzazko larrua buelta guzian. Ari ez dago anak eta burua nun dauzkan billatzerik. Tontoarena egiten du, baiñan ez dira tontoak.

Orain berrituko det lenago aitatu dedan San Joan sua. Trikuari begira gustora egon giñan. Bitxo orrek atera arazi niñuan. Kastigua merezi baizuan, inpernua zegoan berarentzat. Nola arantzaz betea zegoan, eraman nuan San Joan suaren ondora.

Sekulako brasa zegoan. Makillarekin piska bat zabaldua, bota nuan erdira. Arek etzuan ezer supritu. Altako alanbreari ikututa bezela gelditu zan seko.

Urrengo goizean an zegoan brasetan ederki prejituta. San Joan eguna oillaskoa janez pasa nai zuan, baiñan gaizki atera zitzaion. Probatu gabe gelditu zan.

Lenago jarri det irakurleen artean izan litekela norbait trikua nolakoa dan ez dakiana. Askotan bezela deskuidatu banaiz, barkatuko al nazute.

Nik nere denboran triku asko larrutu ditut Goierrian. Izan genduan zakur bat. Zenbat triku billatu ote zuan? Beti libre egoten zan gurekin egunero. Neguan etzuan asko billatzen. Nunbait gordean egoten ziran. Udaran, berriz, astero bi edo iru.

Belarretan mendian egun guzia pasatzen genduan bi anaiok. Goizean, segan. Eguzkiak berotzean, belarrak zabaldu. Arratsaldean, biltzen. Illundu baiño len, aitari gurdia kargatu. Illargia zanean, ondo ibiltzen giñan. Ura etxera bialduta ere, al zan arte segan. Udara guzia orrela.

Zakurra, berriz, gu etxera abiatzeko zai. Bereala asiko zan inguruko baso guziak miatzen. Guk nai baiño geiagotan billatzen zuan. Asiko zan kozka egin nai eta ezin eldu. Aiek karrasiak! Bizkarreko arantzekin mutur guzia odolduta igual. Bidetik berrogei metrora billatuko zuan.

Guk, berriz, egun guzian ler egiñak lanean, aren zaunka otsera billatzen genduan. Erroparik bagenduan, an bilduta ekarri. Aren poza, gu billa joaten giñalako! Etxera ekarri ta sukaldean uzten genduan. An begiratzen zion zakurrak, baiñan etzion kasorik egiten. Arek bazekian seguru zegoala.

Oso sena aundikoa zan. Guk erroparik uzten bagenduan bazkaltzeko lekuan, arratsaldea gaiñe-

an etzanda pasako zuan. Guk aruntza joan gabe alde egiten bagenduan, ura an geldituko zan erro-
paren gaiñean.

Batean beintzat gogoratzen naiz nola etxera etorri giñan arroparekin akordatu gabe. Zakurrarekin ere ez. Urrengo goizean, bi anaiok leku berera lanera, zakurraz oroitu gabe. Baiñan ingurura azaldu giñanean, etorri ta aren ongi etorria! Gau guzian gure arropari kaso egiten egon zan. Olako zakurra eduki leike etxean.

Zenbat triku jan ote genituan geren gazte denboran? Ez da ain gozoa izaten. Gizen gusto piska bat bai.

Beste bat azkonarra. Ura ere probatu genduan, gure izeba Pilarrek jarrita. Jana jartzen ona zan, baiña oillaskoa gozoagoa preparatzen zuan.

Animali orrekin ere badet zer kontatua. Gure aitona, amaren aita, ez dakit zertara joana zan Aizpildiko arkaitzera. Bere basoa bazuan an. Bearbada, ura ikustera joan zitekean.

An beintzat bildu da Lizardi baserrian bizi zan lengusu Jose Domingorekin. Biak jakiñaren gaiñean igoal izango ziran. Kontu kontari saio bat egin ondoren, alde egin zion Jose Domingok.

Gure aitona bakarrik gelditu danean, konturatu da sasi tartean gora zerbait datorrela. An omen zegoan zer azalduko ote zan. Gertura iritxi zanean, ezagutu zuala azkonarra zetorrela bidean.

Geldi-geldi gure aitona. Piztia gora atera zanean, brusa omen zeukan eskuan, bota dio burura, saltatu gaiñera ta eldu dio bi belarrietatik. Baiñan ezin eutsi. Altxatu egiten omen zuan. Indar asko omen zeukan. Artean gertuan zala lengusuna, deitu dio:

— Jose Mingo, etorri adi!

Azkar etorri zaio korrika. esan dio:

— Jo zak buruan aizkora orrekin!

Berak belarrietatik eutsi eta besteak buruan jo, an garbitu dute gure azkonarra. Balorea bear du gizonak alako bitxo bati gañera bere burua botatzeko.

Gero etxera eraman nai. Zaku bat zuan Jose Mingok. Sartu dute bertan, artu bizkarrean da bi kilometro bide gutxienez, eta bide txarra. Alkarri lagunduaz, etxe ingurura ekarri omen zuten. Eskerrik asko emanda bialdu zuala lengusua. Andik etxera pozak etorri zala esaten zuan.

Ori, seguru, ni munduratu baiño lenagoko kontua izango zan. Sasoi ona bear zuan izan, olako bitxo bat dominatzeko. Etzan aundia, baiñan bai bizkorra.

Gero larrua kendu bear ko zion. Ez nion entzun izan nola bukatu zuan bere azkonarraren pesta. Seguru asko, etxera ekarri zuanean, jan egingo zuten, asko kostea zan-da, orrenbeste bidean bizkarrean ekarrita.

Beste animali bat aitatu nai dizutet, gaur gu sortu giñan parajea indar aundia daukana. Lenago ere naikoa izaten zuan. Gaur, berriz, askoz geiago. Etxeak ustu egin dira, baztarrak zikindu, larra ta sasia indartu. Orrek, azariak, ori nai.

Jendea keja dago berarekin. Ori mendian ibiltzen da, jana duan arte. Baiñan gosetzen danean, dagoan tokira. Lotsa gutsi du orrek.

Lenago ogei baserri giñan. Gaur, bi edo iru. Esan bezela, baztarrak zikindu egin dira. Sasia dagoan tokian ori da nagusi. Botatzen omen dituzte, baiñan geiago sortu.

Nik gu or giñan garaiko kontuak nai ditut jarri. Orduan ere oiek etsaiak ziran, eta gaur ere bai. Beti entzuten zan oilloak palta zirala, danak azariak eramanak noski. Batzuk anka bikoak eta besteak lau-koak, danak txarrak.

Len esan degunez, Lizardi baillaran lau baserri ziran. Baso eta mendi asko. Murumendi etxe ondolan. Azariak arkaitzetan zuloak, gordetzeko. Gauez paseatu, egunez lo, suerterik badute ondo asetzeko.

Gau batean sartu ziran Lizardi-goiko Bixente eta Ramon bi anaien bordan. Au etxetik bastante gorago zeukaten. Toki askotan, oilloak sartzeko zuloa lurrean edukitzen dute. Besteak, berriz, ol bat jarri betik gora igotzeko, goian seguruago izateagatik. Baiñan alperrik. Oilloa dijoan tokira, errez igoko da azaria.

Beintzat, sartu da. Ez dakit goitik edo betik sartu zan. Bai azio ederra egin ere. Bi oillo bertan ito eta beste bi palta. Baiñan gaizki dabillena erori egiten. Seguru asko, banaka eramango zituan.

Bidean odola botatzen omen zuten. Segitu ziotela odol arrastoari. An billatu dute bat gordeta zeukala. Bestea, seguru, jana izango zuan.

Gordeta zeukana, bi estaka lurrean sartu ta aiei lotu zioten. Bigarren egunean etorri zan azaria. Oilloa jarrita zegoan bi aldeetan zepo bana zituala. Aurrena, goiko aldetik saiatu zan. Baiñan bildurtu nunbait. Zerbaiten usaia nabaituko zuan. Irugarren egunean deskuidatu zan. An zegoan besotik arrapatuta, begiak argi zituala. Baiñan alperrik orduan.

Bizirik ekarri nai zuten. Saiatu ziran. Ez dakit nola moldatu ziran. Makilla bat eman zioten ortzetan artzeko. Ari ortzekin elduta zegoala, muturra lotu zioten soka batekin. Egurra ortzetan zeukalako, arnasa ondo artzen zuan. Zakuan sartu ta ekarri zuten etxera.

Uste det auzoko danak bildu zirala, aren konturra parra egin naiean. Ez det uste supritzen ikusi ta iñor errukitzen zanik.

Azkenean jarri zuten: bi edo iru metroko maki-lla, lodi samarra, artu; lotu bi anak egurraren erdiz alde batetik; gero besoak, bere luzeroan. Lau

ankak lotuta, bi lagunek artu bizkarrean; da urrengo egunean, udaletxetik permisoa aterata —udalak premia ematen zuan azariak arrapatzeagatik—, egun asko pasatu zituzten etxez etxe eskean.

Entzun nuan diru asko bildu zutela. Gero ez dakit zer egin zioten. Nik uste det isekatu egingo zutela. Ori toki askotan ikusten da. Oso polita da azaria isekatuta. Azkenean, zerbait irabazi kendu zioten.

Inguru artan, gaur orduan baiño geiago ibiliko dira. Lastima! Oillorik ez dute billatuko; sasiak bai gordetzeko. Azari kontua or utziko det.

Orain basurdearekin asiko naiz. Au ere Lizardiko Bixenteri gertatua da. Lasai bizitzen ziran. Txerriak, atea iriki ta bialdu ditu. Ganaduak nola libre ibiltzen ziran, soroak itxita eukitzen zituzten. Ala, txerriak mendira alde egin bear. Gauean galdetu ziola anai batek besteari:

— Txerriak ez al dira azaldu?

Eta besteak:

— Txerriak or ibiliko dituk lasai.

Udara azkena zan da bazuten gaztaiña, aritz ezkurra, pagoarena ere bai... Aiek bazekiten goseak etzirala galduko. Igandea arte ezta kasorik ere.

Igande arratsaldean joan da Bixente ori. Denbora pasa an dabil. Ezkurra dagoan lekuan billatu ditu, etzanda lasa. Begira egon da. Altxatu arazi omen zituan. Muturra ostu tartean sartuaz, ezkur billa asi omen ziran.

— Ni baiño obeto zaudete —esanda etorri zala, bertan utzita.

Ori da lasai bizitzea!

Andik bi illabetera joan omen zan berriz. Lengo toki beretsuan omen zeuden. Onuntza etorri da etxera. Anaiak galdetu ziola:

— Ez al dituk txerriak ekarri?

Eta besteak:

— An ondo zeudek aiek. Batek lagunena bat izan dik. Tripa azitzen azita zegok.

Beste anaiak, parre egin da ikullura alde egin ziola.

Ori da bizitza lasaia benetan. Orrela bizi bagina mundu triste ontan, alde ederra genduke.

Andik egun batzuetara joan, umeak egin baiña len ekarri egin bearko zituala esanez. Arratsaldera an agertu omen zan bat tripa aundiarekin. Bestea ere ernari.

Umeak jaio ziranean, izan gina ikusten. Ikullu aundi bat zeukaten alboko etxearen azpian. Ixilik joan bear genduan, aiek ikustezkero. Baztarretan gordelekuak jarrita zeuzkaten. Laster sartzen ziran ango zuloan.

Azi zituztenean, suertea izan zuten. Batek bat, besteak bi, etxetik saldu zituzten.

Orain beste batena esango det. Au orain dala eun bat urte gertatua omen da. An ere gauza berdina, Legorretako Zumiztia baserrian.

Arek ere bialdu txerriak basora. Ez dakit zenbat denboran ibiliko zituan. Beintzat, gertatu zaio txerria umeak egiteko. Aumentatu sailla; azi ere bai.

Pentsatu du gurdian artu ta Ordizira eramatea, ondo itxita. Artu ditu danak. Joan da perira. Jende guzia jarri zaio gurdiaren giran. Basurdeen umeak alako politik izaten dira. Belarri txikiak izaten dituzte. Muturra, etxeko txerriak baiña luzeagoa. Eta biziak oso. Siñale izaten dute zer kasta diran. Egun artako zer ikusia ura omen zan.

Azaldu zaio erostuna: ea zenbat diru bear zuan. Esan dio bere iritzia. Asko iruditu erostunari. Asten omen zan basurdekumeak zabaltzen, eta len baiña pillago jartzen omen ziran. Esan dio tratanteak ate-

ratzeko gurditik, eta ezetz. Etzituala iñork arrapatuko besteak:

— Bai, gizona. Orrenbeste jenderen artetik nola alde egingo dute?

Gogo txarretik baiñan iriki die atea. Saltatu dira danak. Ango komeriak! Ekin diote batzuek eltzen eta besteak igesi. Ura omen zan pesta. Bost minutu barru ez omen zan arrastorik.

Iru, zabalik zegoan portale batean sartu zirala ikusi. Joan dira billa. Eskillaretan gora igo zirala. Txerrien jabea iru zaku artuta igo zan. An arrapatu zituztela. Gurdira sartu zituanean, lenago eskatu baiño geiago ordaindu omen zion erostunak, bere kulpia izan zala esanez. Orduan asko poztu zala txerri jabea, ondo portatu zalako.

Besteak tiroka il da arakin bati eman omen zizkioten. Ordaindu ziola ondo esan omen zuan. Naiz susto ederra pasa, etzuan asko galdu.

Baiñan ikusteko gauza polita izango zan, gurditik atera ziranean. Jende artean aien zalapartak! Gurdiaren inguruan zeuden emakumeak, batez ere. Gustora egongo nintzan begira. Beren anka tartetik pasatzean, zer sustoak izango zituzten! Laster alde egingo zuten txerri plazatik. Nik ere emen bukatzen det kontu au.

Beste bat daukat buruan, da au ere esan nai dizutet. Gu gazte samarrak giñala, otsa atera zuten Aizpildiko arkaitzean basurdeak zeudela. Tolosa aldeko eiztariak etortzen asi ziran.

Enteratu ziranean, gure errian bazan saltsa guzietan sartzea gustatzen zitzaion bat. Tolosarrak trenean etortzen ziranean, zai. Gero, aiekin mendira. Batzuk zakurrekin betik gora; besteak goian zai jarrita.

Gure erritar ori arbola gaiñean. Seguru nago, basurdea ondora etorrita, arbolatik ere etzuala tiratzeko balorerik izango. Alare, antxe ibili bear. Eguna pasatu beintzat.

Eiztariak beren señaak bazeuzkaten. Zakurrak arrastoa artzen zutenean, korneta jotzen zuan zakurrekin zebillenak. Altxatzen bazuten, bi aldiz. Gu ere zai egoten giñan ea tirorik botatzen zuten. Bekoak bazekian eiztariak nun zeuden. Beste aldera joaten baziran zakurrak, siñalea basurdeak alde egin zuala. Ari atzetik segika joatea alperrik zan. Baiñan gauean berriz lotara lengo lekura etortzen omen zan.

Seigarren egunean deskuidatu zan. Berrogei bat kilo ingurukoa ekarri zuten. Gustora ziran, zerbait ekarri zutenean. Gure etxe ondoan eduki zuten jendeari erakusten.

Orrekin bukatu ziran ango basurdeak. Ez dakit bakarra zan edo besteak alde egin zuten. Geiago etzan eiztaririk azaldu.

Gaur ez nintzake arrituko asko daudela esanda. Lenago garbi egoten ziran basoak, danak sasiak artuta daude. Iñor ez da joango aiek garbitzera. Sua noizean bein. Pena ematen du, baiñan alperrik.

Lenago aitatu izan det gure etxean nola egon zan don Salbador Irigoien apaiza. Oso eiztaria zan. Bi zakur zituan Oiartzundik ekarrita, bera angoa zanez. Bi anai zituan: Zeferino eta Manuel, eiztariak aiek ere. Gure etxera etorri izan ziran, eizean ibiltzeko. Aste bat pasa ta alde egin zuten.

Egun batean atera zan don Salbador ori bere bi zakurrekin Murumendi aldera. Baztarren batean billatu dute erbia. Or datoz *ji* eta *jau*, erbia aurretik eta bi zakurrak atzetik.

Bat mutua zan. Etzuan zaunkarik egiten erbia altxatu arte. Orduan karrasi zelebren bat egiten zuan, indarraren indarrez.

Dana dala, an datoz, gure etxetik bistan. Goiko mendian erbia ikusten zan tarteka, bi zakurrak oso ondoan zituala. Ez genduan lan asko egin, aiek bistan ziran arte.

Pasatu ziran gure paretik. Baiñan sentitzen genituan zakurren zaunka otsak. Goitik bera zijoa-zen. Gero ixildu ziran eta an gelditu giñan apaiza noiz etorriko, kontuak jakin naiean. Guk geren lanean segitu genduan eguerdira arte.

Etxera etorri giñanean, an zegoan apaiza, ederki nekatuta. Asi nintzaion galdezka. Serio-serio jarrita, onela esan zidan:

— Au da suertea izan deguna! Beko kamiñoraiño jetxi dira. Zakur mutuak ia ankapean zuan. Gañera saltatzera dijoala, etorri zaie kotxe bat, leioa irikita. Erbiak ikusi duanean, saltatu ta kotxean sartu. Zakurra, arrapatu ez duanean kontentu.

Nik, gizarajoa, egia zalakoan, esaten nion benetan:

— Kotxean zijoanek laster itxiko zion leioa?

Berak:

— Bai. Ura asientuaren azpian gordeko zan.

Nik, penarekin, ez dakit malkoak ez ote nituan bota. Bueltatu ta begiratu nion aitari. Ura parrez zegoan. Orduan konturatu nintzan gezurrak esaten ari zala.

Gero don Salbadorrek esan zidan, erbiak, kamiñoan sartu gabe, errekarri salto eginda betik gora Santa Maiñara alde egin zuala.

Eiztariak badute
gezurtiren pama,
dezentea izan zan
nei sartu zidana;
nik e sinistu nion
esandako dana,
aitortzera joan zan
bikariongana.



Goien, ezkerretik: Maria Mendizabal, Zaldibiko lengusua;
Felipa Barandiaran, arreba; Antonio Mendizabal, Zaldibiko
lengusua; Jose Barandiaran, anai zarrena; Bizente Barandiaran,
liburu onen egillea; Jose Egiguren, Maria Mendizabalen senarra;
Migel Barandiaran, anaia.

Bean, ezkerretik: Benito Barandiaran, aita; Benito Barandiaran,
beraren biloba eta besoetakoia; Maria Amiano, uzagama.

Gabon eguna

NIK amalau urte nituan arte, Eguberri bezperan egunez ibiltzen giñan etxez etxe kantari, baiñan baillaran bakarrik. Pezeta pare bana biltzen bagenituan, ura poza igandean jokurako! Onela kantatzen genduan:



Ogei ta laugarrena
degu abenduan,
deseo genduen
iritxi genduan.

Gaueko amabiak
jo duten orduan,
gure Salbatzallea
jaio da munduan.

Txit egun ditxosua
degu Egoarri,
eskerrak emateko
jaio zan Aur orri.

Gu salbatzeagatik
zu jaio ziñaden,
bestela zeruetan
sartzen ez giñaden.

Astua ta idia
bere aldamenean,
arnasaz berotzeko
oztutzen danean,

Gu salbatzeagatik
eta nola bizi
guri erakusteko
da zerutik jetxi.

Alaitasunez danok
bear degu jarri,
eskerrak emateko
jaio dan Aur orri.

Estalpe zar batian
sorturik pobrezan,
guri erakusteko
zertara etorri zan.

Jesus Aurtxoa emen
gukin gizon duta,
len gendun pekatua
nai zuen kenduta.

Zorionean gera
eskerrak Jesusi,
bestela zerurikan
ezin zan ikusi.

Limosnatxoarekin
etorri zerate,
agur guztiori ta
urrengora arte.

Azkeneko urtean egun guzian ibili giñan Juan Miren Garmendia ta biok. Bostak aldean etxeratu giñan. Gauerako itzeginda nengoan beste lau lagunekin. Zer ote da gaztea izatea?

Orain idazten ari naizen kopla auek ondo ikasita neuzkan. Neroni bainintzan aurrenlari. Egunez, *Ogei ta laugarrena degu abenduan* kantatu genduan. Gauean, berriz, *Joles ta joles, etxekotxuak*. Gaur baño buru argiagoa neukan orduan. Bigarrenago auek erdi aztuta neuzkan, baiña nere erriko Jesus Lete adiskideak eman dizkit emen jartzeko. Onela dira:

1 Jo - les ta

2 jo - les, e - txe - ko - txu - ak nik jo - tzen

4 di - tut a - ti - ak, nik jo - tzen

6 di - tut a - ti - ak e - ta e - ran - tzun

8 on - gi jen - di - ak

Joles ta joles, etxekotxuak,
nik jotzen ditut atepak;
nik jotzen ditut atepak eta
erantzun ongi jendeak.

Atzo goizean Bitorin giñan,
andikan gera etorri;
obispuaren libertadia
gerekin degu ekarri.

Elizatikan atera eta
urrengo ate batean,
alkate jaunaz egondu giñan
atzoko arratsaldean.

Alkate jaunak agindu zigun
ibilitzeko pakean;
bestela sartuko omen gaitu
kartzela illun batean.

Alkate jaunak emanik degu
gerekin degun papera;
nagusi jauna, etorri bedi,
nai badu, irakurtzera.

Etxe ondoa lizarrez,
atalburua zillarrez;
nagusi jauna, esan bezaigu
asiko geran edo ez.

Agur da agur, jende nobleak,
berri onen bat dakargu;
atentzio on bat eduki beza
iñork aditu nai badu.

Adan da Ebak egin zutean
Paradisuan pekatu;
gure neke ta bai trabajuak
andikan ziran gertatu.

Jaun Zerukuak berealaxe
ordutik zuen pentsatu:
denborarekin bearko zala
Eba berri bat kriatu.

Joseperekin Eba berria
Belenen degu topatu;
ango estalpe pobre batean
eman zioten ostatu.

Estalpe pobre orretan zeuden
Jesus, Maria ta Jose;
gure munduaren ejenplorako
berak nai zuten alaxe.

Nere lagunak lagun dira ta
asitzen zaizkit tentatzen:
asiko banaiz asi nadilla
nagusi jauna koplatzen.

Eder zeruan izarra,
errekondoan lizarra;
etxe ontako nagusi jaunak
urre gorritzko bizarra.

Urre gorritzko bizarra eta
diamantezko ezpata,
erreal txikiz egiña dauka
elizaraño galtzada.

Erreal txikiz egiña dauka
elizaraño galtzada;
galtzada orretan arrazoiakin
errespetua badauka.

Arantza beltzak ostoa txiki,
puntara zaio loratu;
orain urrena bear genduke
etxeakoandrea koplatu.

Etxe ontako etxeoandreak
amabi gona sedazko;
amabi gona sedazko eta
zillar mantoia gañeko.

Txuri nabarra azpiko,
gorri ederra gañeko;
andrea, zure parerik ez da
plaza bat ondratutzeko.

Etxe ontako etxeoandrea
zaldiz da eleizaratzen;
zaldiz da eleizaratzen eta
urrez da ofrendatutzen.

Eleizatikan etxeratzean
urrezko sillan da esertzen;
txokolatea artu artean
ez da andikan altxatzen.

Etxekoandre zabala,
leku oneko alaba,
bidean gatoz informaturik
limosnaria zerala.

Txilibiduri Granada,
urdaiazpiko ona da:
txilibiduri Mariatxo,
iru lukainka ondotxo.

Solomo gorri luzia,
aretxen koipe dultzia;
puskea kentzen nekea da ta
eman zaiguzu guzia.

Arantza beltzak ostoa txiki,
puntara zaio loratu;
orain urrena bear genduke
maiorazkoa koplatu.

Etxe ontako zaldun gazteak
amalau urre txintzarri;
amalau urre txintxarrirekin
zazpi damaren eguzki.

Eskill azpian astua,
eskill buruan lastua;
dama batzuek trastornatzeko
ez da burutik nastua.

Etxe ontako maiorazkuak
noiz ote dakar andrea?
Guri ez digu ajolik bañan
beretzat dauka kaltea.

Arantza beltzak ostoa txiki,
puntara zaio loratu;
orain urrena bear genduke
dama gaztea koplatu.

Damatxo gazte konponitue,
ori kolore gorrie!
Zure masalla iruditzen zait
krabeliñaren orrie.

Krabeliñaren orria eta
arrosa maiatzekoa;
zuri begira jarrita nago,
damatxo biotzekoa.

Udaberrian ibili oi da
sasirik sasi zozoa;
ez dadukazu edozeñentzat
zure musutxo gozoa.

Napar egoak jo gaitu eta
ez dadukagu intzikan;
beste zenbait dotekin baño zu
naiago zaitut utsikan.

Basoan dago ezpala,
nik ezin esan bestela;
zure besoan lo egin leike
Paradisoan bezela.

Eskumuturra zuri ta mardul,
ukalondoa liraiña;
gure Jainkoak egin zaitzala
ama on baten erraiña.

Eskumuturra zuri ta mardul,
ukaldondoa liraiña;
nundikan nora sortu ote da
olako prenda bikaiña?

Or goian dago errota,
aren ondoan osiña;
zezen aundi bat nik ilko nuke
zu neretzako baziña.

Paseatzera ateratzen da
urrezko eraztunekin;
urrezko eraztunez gañera
zapata takoi altukin.

Illea berriz adornatzen du
japonesaren moduan;
a zer nolako amabirjiña
sortu zitzaigun munduan!

Basoan dago aritza,
aren ondoan almitza;
erri ontako mutil gaztea
zure ondoren dabilta.

Etxean alargunen bat baldin bazan, au kanta-
tzen zitzaion:

Arantza beltza ostoa txiki,
puntara zaio loratu;
orain urrena bear genduke
alargun ori koplatu.

Armarioan xagua,
kontrarioa katua;
bizi-bizirik zeruan dago
alargun bedeinkatua.

Elizan dago liburu,
usoak aren inguru;
etxe ontako zar da gazteak
Paradisoan aingeru.

Eder ezpata majiarekin,
majia prontalarekin;
etxeakoandrea etorri zaigu
eskuan limosnarekin.

Errekan dago igela,
preskoa dauka gibela;
gu emendikan bagoaz eta
gabon Jainkoak diela.

Asi giñan bada kantari gure baillaran, barreneko etxeetatik goitik bera. Beroztegi Legorretako baillara da. Ango baserriak pasatu ta geren erri aldera. Kale ingurukoak artuaz, Ibasko errotaraiño.

Andik Aramaraiño. Iñor ez nuan ezagutzen. Asi giñan kantari lenengo baserrian, Jauregin. Atera zan nagusia, limosna eta botilla bat ardorekin. Oso ondo artu giñuzten. Ez nuan asko pentsatzen nere aitagarreba bera izan bear zuanik. Baiñan alaxe gertatua zan. Geroztik baditut buelta batzuk egiñak etxe ortara gustora.

Oraindik segi nai nuke. *Bueno*, sartu nadin nere arrastoan. Andik San Joan baillara dago Ordiziko mugan. An daude lau edo bost bat baserri. Aietan kantatu ta Goierri baillarara. An dozena bat zeuden. Gero Idoia. Bi etxe bertan. Bertakoa genduan bat, Jose Migel Otegi. Gerran bukatu zuan bere bizia, beste askok bezela.

Andik Urkira ordubata inguruan. Lotarako garai ederra. Baiñan segi egin bear. Baillara osoa pasatuta, azkenean Lizardira. An lau etxe. Bi lagun bertakoak genituan. Beren amak baratxuri zopa zeukan eginda, eder askoa. Andik jan bat egin da gero kati-llu bana esne. Bapo jarri ta gero diruak partitu genituan. Ondoren, gu iru alde batera, eta beste biak bertan gelditu ziran.

Aurreneko urtea zan gauez ori egin genduana. Gero gerrak bukatu zituan Olentzeroren kantak.

Udaran mendira

UDARAKO arratsaldea pozgarria izaten zan, eguraldi ona bazan beintzat. Errosariotik atera ta asten giñan alkarri esanez:

— Goazen Murumendira!

Geienak gustora artzen genduan ori. Batzuk izango ziran nekatuta zeudela eta etzutela nai esaten zutenak. Baiñan bilduko zan amar edo amabi laguneko sailla.

Danak ekingo genion aldapa gora, alkarri zelebrekeriak esanez. Aurretik zijoanari ankatik eldu ta lurrera botatzen saiatzen egiñalak egiten genituan. Iñor erortzen bazan, azkar altxatzen lagundu. Baiñan bildur izan zeikean azioa egin zuana. Besteak gogoan eramaten zuan, ordaiña egin arte.

Ala ere ez giñan asarretzen. Danak umore ederrean. Ankak eta petxoak, gaur baiño indartsuagoak. Tarteka, bide bazterreko belardietan alkarri segika, bultzatu ta botatzeko.

Bildurrik geiena izaten genduan galtza eta gona argiak mantxatzeko belarrarekin. Bestela, arratsean errita seguru. Ala ere, ajola guri orduan. Belarri batetik sartu ta bestetik atera ta libre. Amarentzat lana.

Gorago eta pozago, Murumendi aldera begiratzuz. Ordu erdi bat pasatzen genduan bertara iristen.

Bidean bazegoan iturri bat. Ez dakit gure terrenoan ez ote dan. Mugan beintzat. An trago bana egiten genduan, eztarria bustitzeko. Segi berriz gora, goiko puntara.

An eseri ta jarriko giñan alde guzietara begira. Eguraldi garbia bazan, bazegoan zer ikusia. Asi Aizgorritik, Txindoki... Ainbeste erri dauzka bistan. Zegamatik Iruna bitarte ez dira asko izango ikusten ez diranak. Ezkerretik, Azpeiti, Izarraitz... Frantziko Larrun ere bai. Akordatu gabe pasatzen genduan denbora.

Baziran batzuk, besteak baiño geiago zekitenak. Aiek esaten ziguten zein erri nun zegoan. Gustora egoten zan jendea.

Gero, goitik bera, Mugazelaia esaten genion, antxe biltzen giñan danak. Santamaiñatik, Beizama, Azpeititik ere etorri izan ziran, Beasain, Ordizi... Eguraldi ona bazan, erri batean festan aiña jende agertzen zala esanda ez da utsegiten.

Igande batzuetan agertu oi zan eskuetako soiñua. Ura izan ezkerro, gustora danak dantzan aste-ko. Etzan izaten anketako miñik. Danak saltoka sasoi ederrean. Ura zan pozez bizitzea!

Ordu pare bat pasatzen genituan bertan. Orduan asten zan jendea alde egiten, bakoitza bere aldera. Gu ere bai geren bidean, bakartutzen giñanean.

Bagenduan gure belardi bat, Leizea izena zuana. Oso zelaia zan. Baziran tartean ezpaiñetako soiñua jotzen zekitenak. Neska gazteak asi araziko zuten ondo esanean, eta berriz beste saio bat dantzan.

Illuna arrimatzen zanean, danak etxera. Al genduanak, norbaiti elduta. Danentzako diña neska ez bazan, bakarrik txintxo. Ermita ondora iritxitakoa, batzuk erretira. Besteak kontrako bideak askotan artu oi genituan. Gustoko bideak ez duala aldarparik esan oi da.

Udara partean askotan joaten giñan mendira. Ondo pasatzen genduan. Danentzat etzan gaizki etortzen. Baillarakoari esaten atrebitu ezinda, edo danentzat etzalako, kanpo errietan billatzen ziran emaztegaiak. Beti etziran alper biajeak izaten.

Esan izan dute garai batean gurasoak egiten zituztela seme-alaben ezkontzak. Aurretik pentsatuta egongo ziran. Bietako aita-amak esango zioten alkarri:

— Gure Joxe ta zuen Mikela alkarrekin jarriko bagenitu...

— Guk esango diogu.

— Gurea ere uste det jarriko dala.

Orduan biak, urrengo egunean, alkarrengana erdi parrezka:

— Biok ezkonduko al gera, ba, Mikela?

— Zuk nai badezu, bai —besteak.

Orra orduko ezkontzak. Gaur nik ez nuke asi nai gazteari ortan laguntzen, illabete barru berriz partitzeko. Zerorrentzat penarik aundiena.

Mendirako ibiliak ezkontzarekin bukatu ditut.

Astigarretako San Gregorio

INGURUKO errietako festak etortzeko pozak egoten giñan. Etzigun ajolarik ordu beteko bidea izan edo bikoia. Pozak irten da iritxi arte segi. Umore ederra beti.

Lenengo au datorkit burura. Beasaingo baillara da Astigarreta. An badago ermita bat: San Gregorio bera. Maiatzeko Pazkoa bigarrenean festak izaten dira. Guri etzitzaigun azten.

An biltzen giñan erri askotako lagunak. Bertakok zer esanik ez. Asi Garin, Arriaran, Ezkio, Itxaso, Matximenta, Nuarbe, Urrustil, Beizama, Bidani, Santa Mariña, gu Urki aldetik... Beste erriren bat utziko det aitatu gabe.

Ara joaten giñan alde guzietakoak, mendian azitakoak danak. Guk basapiztiak esaten genien bestei. Aiek berdin esango ziguten guri.

Bazkalondoan ordubietan jartzen genduan ordua biltzeko. Norbait palta bazan, zetorrela atzetik presaka. Ez genion itxogiten. Kontu kontari lasai danok. Ura umorea, neska eta mutil!

Eguraldi ona bazan beintzat, ordu ta erdi bidean. Iru t'erdiak alderako iritxiko giñan.

Lenengo, oitura genduan elizan sartu ta aitagure bat bederenik errezatu aldare aurrean. Alako ontziren bat baldin bazan, amar zentimoko bana bota. Oiek ziran aurreko gurasoak erakutsi zizkigutenak. Apaiz jaunak errosarioa errezatzen zigun. Maiatzean geundenez, Ama Birjiñaren Loreak ere bai.

Ordu ortan jende asko sartzen zan. Gaur ez litzake orrenbeste sartuko. Gauzak aldatu dira lendik.

Apaizaren errezoak bukatzean, irteten giñan dantza lekura. Guk ez genduan, gaurko askok bezela, txarkerirako idearik eramaten. Gustora asten giñan dantzan neska-mutillak.

Soiñua jotzen izaten zan Ordiziko gaur nere famelikoak daukaten tabernan bizi zana. Ez dakit nola zuan izena. *Aldaba* deitzen genion. Uste det an sortua zalako izango zuala deitura ori. Izenaz ez nai gogoratzen.

Langille ikaragarria zan. Gizarajoak etzuan arratsalde ederra pasatzen. Ermita orren kontra estalpe eder bat zeukaten. Uste det ala egongo dala orain ere. Baiñan berrogei ta amabost bat urte badira azkeneko izan nintzala, eta gauza asko aldatu dira geroztik. Borda edo legorpe ori izango zan ardiak gauean egoteko. Goiko eskiñan metro ta erdi bat altura zuan.

Ardi txabol orren gaiñean jartzen zuten gure soiñujole ori. Batzuek gerritik, besteak anketatik elduta, artu aidean eta teillatura jaso. Soiñua emango zioten eskura.

An jarriko zan. Bi edo lau tella zearka jarri ta eseri gaiñean, ta bi edo iru ordu jardungo zan soiñua jo ta jo, andik jetxi gabe, jendea aspertu arte.

Gu dantzan asteko pozak, sasoi ederrarekin. Saio ederrak egiten genituan.

Beste batzuk, bola-leku bat bazegoan da aruntza joaten ziran.

Ermita buelta guzian jendea. Taberna ere jar-
tzen zuten. Eguraldi beroa bazan, arbola adarrak
eraman da beren ostoarekin itzala egin, ardoa epel-
du etzedin. Orduan ez baizan izotzik, gaur bezela,
edaria presko edukitzeko.

Jateko ere ematen zuten. Borda orren baztarre-
an sua eginda, paretan sartzen zuten burni luze
bat. Ari, kate bat zintzilika. Laratza deitzen zitzaion.
Garai batean baserri guzietan ziran laratzak. Gaur
geienak gordeak izango dira. Katearen maillan
gantxo bat sartuta, nai zan alturan, suaren gaiñe-
an. Errementariak egindako burnizko bat. *Neska-
mea* deitzen zitzaion. Zartagia jartzen zan aren gai-
ñean, eskuak berotu gabe. Orrela preparatzen
zuten jendeak eskatzen zuana.

Jornalean zebillenak dirua berekin izaten zuan.
Aiek meriendatu egiten zuten. Besteak dantzan arin
asko. Gu ere bai.

Urte batean, aurretik esanda alkarri, bildu
giñan Urkiko ermita aurrean. Uste det eguraldia
naikoa tristea zala. Nik, beintzat, guardasola edo
aterkia artu nuan. Ortik pentsatzen det etzala oso
argia egongo beintzat.

Ez giñan ikaratu. Ekin genion aldapa gora,
danok alpargatekin. Neska bat etorri zitzaigun,
lepoan iru koloretako pañuelo bat jarrita. Etzioten
asko luzitu. Oiñetakoak ere bere kolorekoak.

Bagoaz erdi bidean aurrera. Larrarteko borda
zegoan bide ondoan. Bertara iritxi giñanean, eraso
zigun alako zaparrada bat. Eskerrak leku onean ger-
tatu giñala. Atertu arte an egon giñan. Gero kontuak.

Atera giñan txabola artatik eta segi aurrera.
Bide guzia loiez beteta. Gure alpargatak etzuten oso
dotore ematen. Ala ere gustora, danak alkarri esku
emanda. Zer ibili pozgarriak ziran ordukoak! Pen-
tsatu utsez erdi parrezka jarri arazten nau.

Noizbait iritxi giñan, kostata, ermitara. Baiñan len pagadi bat zegoan. Onuzkero botako zuten bearbada.

Arbol tartean iturri bat zeukaten, aska aundi batekin, mendiko ganaduak ura edateko. Berrogei bat zentimetro altura.

Alpargata txuriak iru koloretako lokarriekin eraman zituana sartu zan putzu ortan, gonak gora altxatuta, astindu ederrak emanaz. Bai garbitu ere ederki. Otzik etzegoan. Sasoia alakoa. Emezortzi bat urte, nik bezelaxe, orduan.

Etixerako ordua gerturatzen zanean, laguna zein izango ote zan. Egun artan ondo irten zitzaidan. Nere gogoko batekin nenbillela, soiñua ixildu zitzai-gun. Eñan nion:

— Abituko al gera?

— Igual —esan zidan.

Baziran geiago ere arekin etorri nai zutenak. Egun artan neretzat gertatu zan.

Festako egun aietan, geienez mutil geiago izaten giñan, eta danak neskakin etorri nai. Gure erromeriko gozotasuna uraxe baizan.

Orrela, batzuk aurretik, besteak atzeragotik, danok etxera alaitasun ederrean, berriz festa eguna noiz etorriko.

Beste egun batean, arratsaldea aurrera zijoala, etorri zait lagun bat, neska laguntzera joango al nintzan esanez. Ni nenbillen nere auzokoekin etxeratzeke idean. Baiñan beti izan naiz eskatutakoari ezetz esateko balorerik gabekoa.

Joan nintzan berarekin gogorik gabe. Neskak beste bi mutillekin zebiltzan dantzan. Txanda eskatu zien da utzi ziguten. Egin genduan saio bat. Baiñan bereala etxera abitzeko preparatu ziran. Nik ere segi egin bear.

Nere lagunarekin zijoana neska polita zan. Zerbaitegatik zijoan. Nerea ere etzan aldrebesa. Baiñan nik baiño dozena bat urte geiago gutxienez, eta neretzako alperrik zan ura. Geroztik ere badet lana ta ibilia pranko alperrik egiña. Ordukoa ere ala izan zan beintzat. Ez nuan bidean utzi.

Abitu giñan gaztaiñadi batean bera, bidetxior batean. Beste bikote ura bidean gelditu zan. Onela esan zidaten neri:

— Zuk lagundu iozu oni bere etxera arte, mese-dez. Gu emen egongo gera, zu etorri arte.

Jetxi giñan biok, kontuak esanez. Oso neska jatorra zan. Noiznai itzaldi bat egin zeikean berarekin. Atsegiña benetan. Milla esker eta ondo bizitzeko suertea opa zidala esan zidan. Ez nuan berari laguntzera joandako penarik ekarri.

Igo nintzan beste lagunengana. Inguratu nintzanean, parrez asi ziran biak, esanez:

— Zer moduz pasa dezute?

Erantzun nien:

— Oso ondo. Nik biar ere pozik itzegingo nuke orrekin. Izketarako asko balio duan neska da.

Kontu oiek esanda, abitu giñan beste neskaren etxe aldera. Eldu zigun biori beso banatatik. Naiko kontua ere bazeukan. Ura berritxua!

Akordatu gabe iritxi giñan bere etxe ondora. Asi ziran bi edo iru zakur zaunkaz. Beren izenez deitu zien da ixildu ziran danak. Erretiratzeko presarik etzeukan. Ordu erdi bat an pasa genduan.

Azkenean lagundu zigun pixka bat, etxera bidean jarri arte. Lengo marineroa bezela, “kartaz enteratzeko alkarren berriak”, zuzenbideak eman zizkio ten alkarri. Nik ez nuan ortan lanik izan. Partira goxoa egin zuten beintzat.

Ekin genion geren bideari. Lagunak eskerrak ematen zizkidan laguntza ori egin niolako. Baiñan eskerrak illargi ederra zegoan.

Sartu giñan pagadi batean. Neguan eguraldi txarrean ganaduekin ibilita, anka zulo guziak urez beteta zeuden. Esan genion alkarri:

— Emendik ez dago joaterik. Goazen betik gora.

Alako gau giroa zegoan. Goiko gaiñera iritxi giñanean, jarri giñan alde guzietara begira. Antze-man genion nun genbiltzan. Esan genion batak besteari:

— Goazen emendik bera. Or bear du gure bidea.

Laster topo egin genduan borda batekin. Atzeko aldetik ez genduan ezagutu. Beste aldera pasatu giñanean konturatu giñan etxerako bidean geundela. Ez giñan asarre. Etzigun ajolarik ordu bete geiagopasatuta ere.

Gustora zetorren nere laguna, uste osoan betirako bere emaztea ura izango ote zan. Nik ere ala espero nion. Makiña bat esker gozo artu nuan bera-gandik. Kontua pranko esan genduan etxera iritxi arte. Pozaren pozez eskua emanda partitu giñan.

Nere lagun ori bereala jarri zan eskutitza noiz ikusiko. Igandean alkartu giñan. Bera ere deseatzon zegoan zer iritzi emango ote nion.

— Zer? Kartarik ez al dek azaldu?

Eta erantzun zidan:

— Ez diat ezeren arrastorik.

— Lasai, motell! Bialduko dik.

Baiñan zer pentsa zegoan. Nik beti esperantza ematen nion, ala uste nuan da.

Urrengo jaiera arte ez giñan bildu. Oso triste zegoan. Berak etzion eskribitu nai, neskatxa zertarako zegoan ikusi arte. Aren burua etzegoan lasa.

Illabete pasa zan da etzion kasorik egin. Bere buruz etsi zuan etzuala gauza onik. Pentsatu bearrean zegoan kontu ori erabakitzea, etzan ondo bizi ta.

Egun batean nagusiari esan omen zion egin bear batzuk zeuzkala eta urrengo egunean etzala lanera etorriko.

Biaramona asteazkena zan. Joan omen zan perira. An zebillela, topo egin du bere aitaren lengusu baten semea. Lengusu txikia ain zuzen, eta ezagunak beintzat. Asi dira izketan. Nere lagun orrek berea gogoan, ea ezeren arrastorik ateratzen ote zuan. Galdetu dio:

— Olako baserritako neska, Joxepa izena duana, ezagutzen al dek?

Besteak parrez esan zion:

— Zer dek neska orrekin?

Orduan erantzun zion:

— Lengo Pazko bigarreanean alkartu giñuzean San Gregorion. Dantzan asi ta lagun egin giñuzean. Orduan, askotan gertatzen dana, bi neska zebiltzean, da nere lagun bat artu ta etxera laguntzera joan giñuzean, pozez txoratzen, bakoitzari beren etxeraiño; eta, partitu giñuzean, alkarri eskribitzekotan. Baiñan ez diat arrastorik. Zer neska dek ori?

Besteak ikusi zuanean gauza serioa zala, parre egiteari utzi ta esan zion:

— Ikusten diat triste agola. Gertaera oiek ez dituk pozgarriak. Baiña, gertatzen danean, al dan azkarren aztea dek onena. Neska orrekin etzak ezperantzarik izan. Lau bat urte badizkik lagunarekin dabilela. Laster ezkontzeko zebiltzak.

Ormaiztegiko taberna batean lana egiten zuala. Jendea bildu arazteko ona izango zala ura. Kontu paltarik etzuala izango. Olakoa ohea zala nagusiarentzat, ixilik egoten dana baiño.

Baiñan nere aitonari entzuna daukat gogoan. Sarri zekian esaten martxoko eguzkiarekin eta tabernan serbitzen zegoan neskarekin ez piatzeko. Martxoko eguzkiak berotasun goxoa. Baiñan, luza-ro bazaude, buruko miña seguru.

Tabernako neskak, berriz, kontu asko ta kalabaza ugari. Nere lagunari beintzat ala eman zion: egun bateko poza eta aztu arteko pena.

Kizkitzako Ama

BESTE bat izaten genduan Kizkitzako Ama. Ermita ori uste det Itxasolegorreko partean dagoala. Iraillaren 8-an izaten ziran ango festak.

Ura urrutiago dago. Oraindik beste kilometro batzuk geiago. Nola etzigun ajolarik dantzan ibili edo bidean denbora pasa, berdin gozatzen giñan. Gure gogoan zan arratsaldea alkarrekin pasatzea.

Beasaindik Azpeitira bidean dago Mandubi ize-neko baserri eta jatetxea, danak dituana. Andik pasatzen giñan.

Ermita aurreko kasko batean dago. Leku ederra bertan. Eleiza aurre ura ederki beteta egoten zan. An biltzen giñan erri askotakoak: Beasain, Itxaso, Ezkio, Ormaiztegi, Matximenta. Nuarbe, Beizama... Gu Urkitik, eta Santa Maiñatik ere bai.

Gustagarria benetan dantza librea. Neroni askotan gertatua idazten ari naiz. Mendi aldeko jendea ortan oitua zan. Alde guzietakoak festa batean bildu ta soiñuaren otsa entzun zai, alkarri begira jarrita, poza barrenean sentitzen genduala.

Ni nere denboran asko dantzatu naiz. Baiñan izaten ziran grazi apartekoak asten ziranean, anka puntan jarri ta lurrik ikutu gabe esateko, beren eskuetako beatzekin *kliskitin* otsarekin, soiñuaren

doiñua ederki artzen zutela. Buelta guzian korroa eginda, orduan azaltzen zituzten beren kemenak.

Naiz ezezagunak izan, alkarri lagunduz saioa egin; da, izardia sekatzuz, aien barrenge poza berriz soiñua asteko zai!

Lenago esan det neroni askotan gertatu zitzaidala: plazan ikusi lau neska dantzan. Asko izango ziran bakarrik nai zutenak, baiñan beste aldekoak geiago. Lau lagun bildu eta joaten giñan mesedez eske. Laster ezagutzen ziran mutillekin naiago zutela.

Zer da gauza ederragorik, lenago iñoiz alkar ikusi gabea zuri begira parrez, dantzan lagundu diozulako? Alkarri lagun egitea da. Dantzan aurreneko aldiz ikusi ta lagun eginda gelditzen giñan.

Zeiñen baliosoa dan dantzan egitea jakiteko, asko pentsatu bear ez da. Nik ezagutu ditut aurretik idearik gabeak dantzan asi, alkar maitemindu ta senar-emazteak egiñak.

Nik maitasun aundia diot lan orri. Amaika ordu gozo eman dizkit. Ibillaldi ederrak egin ere bai.

Baiñan Kizkitzako Ama ori urruti egiten zitzai-gun. Bi ordu ta erdi bear genituan; bueltan beste ainbeste. Garaiz alde egiten genduan.

Etixerakoan, Mandubin meriendatu piska bat. Neskari gonbidatzeko dirua zuanak, egun artan laguna seguru. Biderako poltsiko ariña genduanak bakarrik etorri bear. Garai artan etzan erreza diru askoren jabe izaten. Arek ematen zizkigun lanak: lagunartean ibili nai eta poltsiko ariñak.

Geienezan apetitu ederra beintzat. Tabernako merienda etzitzai-gun gaizki etortzen. Andik atera ta etxe aldera, batzuk alkarri elduta aurretik, besteak irrintzika atzetik. Oiu ederrak bai. Ura zan gaztetasuna sano, txarkeri gabea!

Ordu ta erdi bidean. Lenago bi ordu dantzan pasatu arren, ajola gutxi. Etzan anketako miñik izaten. Etxeratzean, alkarri kontuak esanez, apaldu ta oera danak. Gu pozik eta gurasoak pozago, bildu giñanean.

Beizama

BESTE festa leku bat ere bagenduan mendiz ibili bearrekoa: San Pedro eguna ain zuzen, Beizamako jaialdia. Aruntza ere iritxi izan giñan.

Garai artan, nere etxeko koñata Santa Maiñako Aldaola baserrikoa danez, bere fameliarekin lagun giñan. Ni gure baillaratik bakarrik nintzan. Andik beste bi edo iru. Aruntza arte lagunik gabe. An lenengo kafea artu; eta lenago ordu t'erdi egiña bidean, berriz segi betik gora.

Lenengo baserria, Txapartegi. Ezagutu nituan ango bi bizitzakoak. Batean, Jose Joakin. Aita-ama-kin enaiz gogoratzen. Bi alaba ta semea. Danak alde egin zuten, batzuk kalera eta besteak Jaunak deituak. Uste det terrenoak piñuak edo sasiak artuak daudela. Andik pasatzen giñan.

Gero, Arrata. Ganaduleku ederrak, terreno aundiak eta belar piña, altu dago ta.

Urrena, Santa Ageda. Taberna egoten zan. Gaur ere ala egongo dala uste det.

Andik goitik bera, an baserri batzuk badira bidean. Ez ditut ezagutzen.

Jetxi giñan errira, An etzegoan beste festarik. Bi taberna zeuden. Bat Kontzeju eta bestea Dendabe-

rri. Trago bana egin da plazara. Angoa jakiña zegoan: nai zuanak dantza egin eta besteak begira egon.

Ni, soiñua entzun ezkerro, geldi ezin egon. Amabi urtetarako asi izango nintzan. Makiña bat egin det nere denboran. Irurogei ta amar urte arte ez diot utzi. Orain anak moteldu zaizkit.

An lagun egin genituan Bidaniko neska batzuk. Ekin genion dantzatzen. Atera genituan anketako otzak.

Arratsaldea aurrera zijoan. Aiek ere urruti. Asi giñan plazatik kanpora laguntzen. Aurrera segitzea nai zuten. Guk, berriz, beste aldera etorri bear. Partiran kontu saio bat eginda, ala partitu giñan.

Gero, ostatuko tabernan meriendatu genduan. Illunduta abitu giñan. Bi ordu ta erdiko bidea. Aldaolan beste ordubete pasata, ni etxera irixterako astelena asia.

Ala ere, ajola gutxi. Esaera dan bezela, gustoko aldapan nekerik ez. Gaur ere alako anak baleude, segi liteke.

Orain arte Beizamako pestetako berriak idatzi ditut. Baiñan bestela ere buelta asko egiña naiz alde ortara. Oietako bat emen jarri nai nuke. Poztuko nintzake irakurleen gustokoa balitz.

1942 urtean Beasaingo fabrikan nenbillen lanean. Garai artan etzan beste itzik entzuten: gosea eta jana falta.

Egun batean etorri zitzaidan lagun bat esanez ea gari tarteko baba nun zegoan ba al nekian. Beti izan naiz al dana iñori egiteko gogoa izan dedana. Ez daukat ori egindako penarik. Esan nion:

— Saiatuko naiz billatzen.

— Al badezu, amabost kilo artuko nituzke.

Gure aita eta ama alkarren ondokoak ziran. Ama, Urkigoena baserrikoa; aita, Urkigoena-azpi-

koa. Amaren anai gazteena ni baiño zortzi urte zarragoa. Nik ogei ta bost. Urrengo larunbatean esan nion osabari:

— Biar Beizamara joan bear det garitako babaren billa.

Berak esan zidan:

— Ni ere joango nauk.

Ni gustora, ori esan zidanean.

Urrengo igandean, igandea zanez, lenengo meza entzun bearra zegoan zazpi t'erdietan. Gosaldu ta irten giñan. Nik zaldia neukan; arek mandoa.

Bagoaz biok Murumendin barrena. Iritxi giñan Santa Agedako taberna ondora. Andik Beizamara.

Espero genduan, Sarasola baserrian errota dago ta an izango ote zan. Askotan izana nintzan bertan arto iriñaren eske. Jetxi giñan, baiña alperrik: etzeukatela babarik. Seguruena Urdanpilleta baserrian Santa Ageda aizkolariak izango zuala.

Bueltan Beizamako ostatura iritxi giñanean, pentsatu genduan bertan bazkaltzea. Kaballeriak baztarrean lotu ta sartu giñan barrena. Berealaxe jarri ziguten zerbait. Langostarik etzegoan eskatzerik; baiñan tripa bete ezkeru gustora giñan. Kafea eta kopa bana artu ta atera giñan. Artean kaballeriak utsik.

Berriz betik gora. Santa Agedako tabernan kopa bana artu ta ez giñan estutzen, alperrik zan da. Esperantza gendukan egongo zala. Seguru bezela esan baiziguten.

Iritxi giñan Urdanpilleta baserrira. Atea jo genduan da Santa Ageda aizkolariaren semea, Timoteo, atera zitzaigun. Galdetu genion babarik ba al zeukaten.

— Bai —esan zigun—, milla kilo besterik bear ez badezute beintzat.

Pozik giñan orduan. Iruditzen zitzaigun etxean geundela ia.

Sartu giñan sukaldera. An zegoan gure Santa Ageda aizkolaria izana. Gizon aundia zan gorputzez, eta abilidadez aundiagoa. Bere sasoiari apustu asko egiña, geienak irabazita. Ordu erdi bat pasatu genduan berarekin, semeak babak jarri arte.

Pisurik etzegoan; neurriko ontziak bai. Anega erdikoak ogei kilotik etzuten alde aundirik izaten. Gure etxean ere baziran lau, neurriko ontziak.

Segi deiodan nere bideari. Kargatu genituan aziendak, jetxi giñan tabernara, pentsatu genduan bertan apartamentu merienda eskatzea.

Oraindik gogoan det zer eskatu genduan: bi arraultza txorizo mutur batekin, eta gainean gazta. Gaur platilloan puska txiki bat ekartzen dizute. Guri gazta erdi bat ekarri ziguten, nai genduana artu.

Apaldu ta jarri giñan lasai. Ikusi giñun etxeko nagusiak presarik ez genduala. Esan zigun:

— Oraintxe botilla bat ardo musean jokatu bear genduke, gu bi bagaude ta.

Gu ere laster preparatu giñan. Ekin diogu lau-
rok, ez dakit zenbat partidara, botilla bat ardo. Aiek lasai zeuden etxean. Gu ere alatsu, naiz urruti egon. Akordatu gabe, amarrak etorri ziran.

Esan genien alde egin bear genduala. Artu aziendak eta abiatu gera, bi ordu t'erdiko bidean. Amabi t'erdia gu iritxi giñanean.

Zaldiari zakua kendu, trasteak ere bai, lotu ta jana eman nion. An utzi nuan. Gero, amabost kilo aiek jarri nituan fabrikara eramateko.

Goizean, zazpietarako alde egin nuan etxetik, iñorekin itzik egin gabe, amabost kilo bizkarrean artuta, iru kilometro bidean. Errira jetxi ta gero, bizikletan Beasaiña, ondo kostata.

Entregatu nion beste lagun orri nere zaku baba.
Esan nionean zenbat ordaindu nuan, eman zidan
dirua, propinatxo batekin.

Nik poz aundiagoa nuan, ari mesede ura egin
niolako.

Ernio

LENAGO esan izan det mendiko billera oiek etzirala danak gaizki ateratzen. Beste gertakizun bat badaukat gogoan. Au ere kontatzea merezi duala uste det.

Uda partean ainbeste jende joan oi da Ernioko gurutzera. Nik ere bueltak egin nituan. Azkenean izana kontatuko det.

Gazte denboran oso alaia eta berritsua nintzan. Orregatik, lagun askok deitzen zidaten, egun pasa egin bear zanean. Ni, berriz, edozeiñekin beti pronto.

Egun batean itzegin genduan Erniorako buelta. Arama aldetik zan orduan abisoa, igande goiz baterako.

Len ere esan bezela, nere osaba bat bizi zan gure etxearen ondoan. Biok giñan joateko aginduak. Goizeko lau t'erdiak aldera etorri zitzaidan koartoa barrena, ganbarako atetik sartuta. An etzan lapur bildurrik izaten. Ni lo nengoan lasai.

— Tira, motell! —esan zidan, besotik elduta—. Besteak bazijoaztek Zumiztiako aldapan gora!

Ez neukan bi aldiz deitu bearrik. Atera nintzan leiora. Danak irrintzika zijoazten. Ura entzun nuan, poztu zan nere barrena.

Jetxi nintzan sukaldera. Artu nuan gosari txikia. Bokadillo bat bezperan jarrita zeukan amak. Bizarra kendu ta jantzi. Laster atera nintzan.

Osaba pronto zegoan. Abitu giñan. Gaur, pentsatu utsarekin, ikara sartzen dit, zenbat bide zegoan. Orduan ajola gutxi.

Jetxi giñan Zubingo errekarara. Andik gora, Bizkaurretako baserri ondotik, Santutxorako bidea artu genduan. An sartu giñan Azpeitira zijoan kamiñoan.

Lenen Bidanian asi nintzan galdezka, ea ikusi al zuten iñor mendira zijoanik. Baietz. Zortzietako meza entzunda alde egin zutela.

Guk meza gabe gelditu nai ez ta amarretakoaren zai egon giñan. Orduan, Zapateron tabernan ogitar-tekoa baso erdi banarekin artuta, irten giñan andik mendi aldera.

Gogoan daukat: laiñoa zegoan, ezer ikusten etzala. Kontutan sentitzen genituan. Nik osabari esan nion:

— Ea arriren bat botatzen diguten!

Oska asi giñan. Ezagutu giñuzten bozean. Aiek ere pozik, “Emen dituk!” esanez. Laster alkartu giñan goiko gurutzean. An danok egin genduan otoitz bana.

Gero, bazeuden burnizko aro batzuk gorputzean sartuta ibiltzeko. Garai artan erreuma aideak asko ondatzen niñun; eta, esaera den bezela, miña daukanak “ai!” esaten du. An zeuden aro aiek fede aundiz ibili nituan gorputz osoan: anketan, besoetan, danean. Ez dakit zeñek eraman zituan, baiñan gaur askoz obeto ibiltzen naiz. Orrela despeditu genduan Ernioko gurutzea.

Berriz buelta goitik bera. Zatoak bagenituan. Soiñujolea ere bai: Gaintzako Eusebio Garmendia. Lendik laguna genduan.

Beko zelaira iritxi giñanean, arek soiñua jo ta guk dantza egin. Ura zan bizitzea! Gure artean etzan drogarik ibiltzen, janari sana baizik.

Ordubiak aldera etorri giñan Bidanira, gosaldu genduan tabernara. Amar bat lagun giñan. Bazkaria eskatu genduanean, zerbait izango zala esan ziguten. Ez genduan angularik eta legatzaren kokotxak eskatuko. Orduan, zerbaitekin sabela bete ezkeru, erregea ere etzan gu baiño obeto bizi.

Orduan genituan iru lagunek osaba zeukaten an, baserri batean. Gero nerea ere ala izango zan. Nolaz esango det.

Ura bisitatzea nai zuten illoba oiek. An agertu giñan, batek soiñua jo eta gu irrintzika. Asko pentsatzen etzuan bisita izan zuan. Ekin genion bere aurrean dantzan. Uste det gozatu zala. Ordubeteren bat pasatu genduan, ta alde egin genion, gustora utzita.

Andik bera berriz. Laster asi giñan begiz jotako lagunetara arrimatzen. Egun pasa egin ezkeru, oitura ori zan gurea. Norbaiti besotik eldu gabe etxera joatea pena zan, naiz beste kilometro pare bat geiago egin.

Egun artan ere ala gertatu zan. Urkira joan bearean, Aramara eraman arazi niñun maitasunak. Etxe ondora joan da eserita, kontu batzuk esan genituan. Partiran esan nion:

— Igandean etortzea nai al dezu?

Etortzeko erantzun zidan: esango ziela gurasoei.

Etorri nintzan. Ikusi orduko antzeman nion etzuala ezetz esateko idearik. Oso arpegi alaiez azaldu zan. Orrela izan zan gure asera. Mendiko ibilietan agertzen dira askotan maitasunak.

Bera izan zan nere emaztea. Berrogei ta bi urte alkarrekin pasatu genituan. Orduan gaitz txar bat sortu zitzaion, eta arek eraman zuan. Jaunak berekin dezala. Amaika laguntza eginda joana da mundutik.

San Migel

BESTE leku bat ere bagenduan gustora joaten giñana: Aralarko San Migel. Ara egiten genduan egun batean joan da bestean etorri. Bide luzea da egun batean buelta egiteko. Gaur errez egiten da kotxearekin. Kamiño zabala dago bertaraiño. Orduan oiñez ibili bear zan.

Goizeko laurak aldera ateratzen giñan gu Urkitik. Bostak baiño len biltzen giñan Zaldibiko bidean Aramakoak eta Ordizikoak.

Nik etxeko zaldia eramaten nuan, traste danak ari botata. Ala ere, gu aiñean errez joaten zan ura. Gu ere gaur baiño aixago orduan.

Eguna argitzerako Zaldibian gora. Gosetzen giñanean, eseri ta gosaldtu. Ez genduan botazio bearrrik izaten. Batek esaten zuana, konforme besteak. Zerbait berdindutakoan, altxa ta segi berriz.

Aralarko mendia pasatzen genduan, beor gazteari astindu batzuk emanaz. Gero, Naparroako basoetan sartzen giñan. Bidean badago Goarda-etxea esaten zaiona. Aren inguruan bazkaltzen genduan.

Gero, bagenduan neska bat ezpaiñetako soiñua jotzen zekiana. Ura jartzen genduan lanean; eta, guk dantzari ordubete edo bi pasatakoan, zaldia kargatu ta San Migela arte urrengo saioa. Illundu baiño len an izaten giñan.

Lenengo, elizara bisita. Iraunsugea ateratzen zan zuloan burua sartu ta kredoa errezatu. Oitura ori izaten genduan.

Lenengo aldiz, amabi bat urte nituala, aitarekin izan nintzan. Esan zidan an kredoa esateko. Sartu nuan burua; baiña, barrengo aize otza entzun nuan, anakak jaso zituan nere kredoa. Laster nintzan kanpoan. Orain, iñoiz joaten naizenean, lasaiago esaten det.

Elizatik ateratakoan, billatzen genduan afaltzeko tokia. Zaldia arbola bati lotuta uzten genduan larrean.

Gero, kartarik billatzen bagenduan, jokuan asten giñan. Etzan erreza izaten ezer eskuratzen. Aitona bat bazan iñorekin plutzen etzana. Urte batean joan nintzan karten eske, eta onela erantzun zidan:

— *Aquí no tenemos cartas.*

Ikusita neuzkan sukaldeko tximinian zeudela. Berak alde egin zuanean, artu ta eraman nituan. Esan nien lagunei zer egin nion. Aiek egin zituzten algarak! Urrengo egunean, alde egiterakoan, joan da lengo lekuan utzi nizkion. Ez dakit konturatu zan.

Gaua tristea izaten genduan guk beintzat. Emakumeak oia bazuten. Baiña guretzat koltxoi bat lurrean bota ta aren gaiñean lo. Ala zion batek, etzanda jarri zanean:

— Onera etorri adi, etxean oi ederra utzita!

Gu lasai egoten giñan, egun batekoa zala pentsatuta.

An etzuten uzten gizon bat bere emaztearekin koarto batean lo egiten, fameliko liburuarekin joanda ere. *Viaje de novios* egitera ez al zan iñor ara joango. Bestela, arrimatu gabe gaua pasatu bearko zuten.

Urrengo goizean igandea izaten zan, beti larunbatez joaten giñan da. Meza entzun, Jauna artu ta

beste meza batzuk ateratzeko dirua utzita alde egiten genduan.

Eguraldi ona bazan, pozik. Bi edo iru zato ardoz betetzen genituan. Umore ederrarekin bidean ibiltzen giñan.

Naparroako arboladiak oso luzeak dira. Bi ordu ta geiago bear dira Gipuzkoako partera iristeko. Andik bera mendi atsegiña da. Oso bista aundiak.

Igaratzen dago etxe bat. Eiztariak dirala uste det beraren kargu diranak. Askotan egoten da norbait. Gu poztutzen gera, atea zabalik badago. Orduan dana libre uzten digute: maia jateko; sua, jana nai bada berotu; eserleku ederrak... Zer geiago eskatu liteke, ori baiño?

Beti izaten genduan botilla patarren bat geurekin. Gustora ematen genien trago pare bana an zeudenei. Ederki bazkaldu ta dantza saio bat egin da, eskertu danak eta ateratzen giñan andik bera.

Ango ardi, beor, abelgorri, txekor gazterik ikusten bagenduan, aiei segitzen genien gustora.

Piska bat arrimatzen bagiñan, marroka asten ziran. Orduan beren amak laster ziran korrika. Berriketa gutxi aiekin. Umeak maite zituzten. Gizona garbituko luteke azkar. Utzi ta alde egiten genduan.

Urrengo orde kara iritxitakoan, neska asiko zan soiñua jotzen. Guk dantza aldi bat egin. Beste trago pare bat ardo. Lekurik bazan, alkarri lepotik eldu ta salto goitik bera. Ura zan gaztetasuna! Beti gaizki bizitu giñala ezin esan. Inbiria ematen du pentsatu utsarekin. Baiñan agur egin zigun.

Orrela jesten giñan. Deposituta izenarekin dago taberna bat. Beasaingo fabrikak dauzka depositu aundi batzuk. Orregatik dauka izen ori. An sartzen giñan. Artean izango genduan jateko zerbait zaldia- ren gaiñean.

Beti bat izaten zan etxeoandre. Arek partitzen zigun. Ez giñan asarretzen, gaurko gazte asko bezela, “orri geiago eman diozu” esanez. Ixilik artu emandakoa eta kontentu.

Beste botella bat ardo gutxienean, bigarrena ez bazan, ustutzen genduan. Zatoan sartu gerorako eta alde Zaldibira arte. An ez giñan gelditzen. Nekatuta ere bai.

Al genduanak lagunengana arrimatzen giñan. Kontuak alkarri esanez, erretira zintzo egiten genduan. Aramako bide muturrean izaten zan azkeneko itzaldia. Bakoitzak bere trasteak artu eta “urrengo arte” esan alkarri.

Etzegoan gaur bezin errez musu ematerik. Orduan pekatu zan da oiturarik ere ez genduan izaten. Pakean partitu.

Batzuk bagiñan emaztegiarakin asiak. Orduan, etxeraiño lagundu gabe ezin utzi. Ingurura joandakoan, aitagiarebak ikusten baniñun, afaltzera sartu arazi egiten zidan.

An urrengo kontu saioa. Iñoiz gustora egoten nintzan, baiñan egun artan nekatua nengoan. Kafea artu nuanean, bereala alde egin nien, laguna eta famelia agurtuta.

Zaldia an zegoan larrean ederki. Aitagiarebak lagundu zidan gaiñean jarri arte. Laster nintzan etxean. Eskerrak ari. Trasteak kendu ta lotu nuan. Aska janarekin bete nion da ni oera. Gaua pasatu nuan arkakosoak asko penatu gabe. Ura zan deskantsatzea!

Urrengo egunean, ezer gertatu ez balitz bezela, lanerako pronto. Olako ibillaldiak sarri izaten genituan garai artan.

Anai arteko gerra

L 936-ko uztaillaren 18-garrena, egun señalea eta gogoangarria Españirako. Andre Santa Marina, ain zuzen.

Iru anaiak pentsatu genduan Santa Maiñara buelta bat egitea, ango pestak ziran da. Nola etzizgun ardurarik ordubete edo bi bidean pasa, abitu eta segi iritxi arte. Orrela egin genduan buelta.

Ni, iruretan gazteena, emeretzi urteetara iritxia. Bigarrena, Migel, apaizetarako ikasten zebillena, zortzi urte egiña. 35-ko kintoa zan. Soldaduska bukatu ta etorrita zegoan etxean. Orregatik joan zan gurekin.

Lenengo elizan agurmari bana errezatuta, gero tabernan basoerdi pare bat bakoitzak.

Orduan jakiña izaten zan gurea: lenengo zein neskak dantzan ondoena egiten zuan ikusi, ta berrari mesede eske. Askotan kalabaza ematen ziguten. Baiñan an ez genduan olakorik izan.

Ez dakit nere anai zarrena, Joxe, begia botata ez ote zan egongo. An etziran nabarmendu ezer. Gero, beintzat, orduan dantzatu zuanarekin esposatu zan. Buelta alperra etzan izan.

Egun luzea zegoan garai artan. Illundu baiño lenago alde egin genduan. Berandu gabe etxeratu giñan irurok. Joan da etorri, ez genduan asko uste azkeneko ibillaldia zanik.

Festatik etorri zanean, arrebak errita egin zion anaiari, apaizgaia zalako nolaz festara joan zan. Gero ere obe zuan ala ibili balitz, gerran baiño. Azkeneko pesta ura izan zuan.

Gaur ez dira gauzak era ortan artzen. Orduan estuegi ta gaurko onek ere baditu bere lanak. Errespetoa beti ona da.

Andik laster zabaldu zan gerra asi zala otsa. Guk pentsatzen genduan zer ote zan ori. Ikasi genduan ondo gero.

Laster azaldu ziran Naparro aldetik. Lenengoak *naparrak* zuten izena, naiz bertakoak izan asko. Ordizi aldera iritxi ziranean, *reketeak* esaten zioten. Besteei, *gorriak*.

Bereala asi ziran jende batzuk igesi eta besteak segika. Batzuk gordetzera, besteak gaua pasatzera, urrengo egunean alde egiteko. Guk danei lagundu genien. Ez daukat penarik.

Lenengo, gure errian txapelgorri sonatuak gorde egin ziran, eta beste aldekoak asko igesi joan ziran. Baiñan baziran erriari kaso egiten gelditu ziranak. Bai lanak egin ere.

Besteak sartu ziranean, esplikatatu zioten bazirala orduko *Zirkuloa* erre nai izan zutenak, Ordizitik etorrita, baiñan etziotela utzi. Aiek uste zuten orrek salbatuko zituala. Bertan egon ziran biak kartzelan sartu zituzten.

Gure etxea izan zan bi klasetakoekin refujioa. Nola zekiten baillarako apaiza bertan bizi zala, lenengo erriko erretorea bere neskamearekin etorri zan. Bere aldekoak errian sartu arte, an egon ziran. Ondo artuak izan ziran. Gero, Jose Rezola bere emaztearekin. Sukaldean jan da oiean lo egiten zuten. Guk, belar pillan.

Naparren igesi zijoazenak ere, gure etxera etortzen ziran. Gu an egon giñan danekin, alderdi bate-

koak sukaldean eta beste ogei bat mikelete ganbaran, aurreko gauean tiroka jardunda gure erriaren eta Ordiziren mugan.

Bi baserri daude altura batean. Andik etzuten alde egin nai. Baiñan Beasain menditik gora igo zitzaizkien, da bildur ziran erdian artuko ote zituzten. Orduan alde egin bearrean gertatu ziran.

Bazekiten gu zer oponiotakoak giñan. Orregatik sartu ziran. Esan ziguten:

— Jateko ezer ba al dago?

Esan zien aitak:

— Etxean ez dago besterik: babarruna, patata, ogia eta ardoa.

Erantzun zioten:

— Babarruna jartzeko berandua da. Eltzekada bat patata jarriko al diguzu?

Laster jetxi zan esatera ama eta alabari. Jarri zuten sei bat kiloko eltzea egosten.

Uztaillaren 30-a zan, San Inazio bezpera. Goiko ganbaratik sartu ta gurdia itzulita, belarra botatzen oituak giñan. Orduan bi alderdiak goraiño berdinduak zeuden.

— Iñor galdezka etortzen bada, emen kanpokerik ez dala esan —agindu ziguten.

Berak ere sartu ziran belar tartean, dana tapatuta. Etzuan ematen an iñor zegoanik.

Gu danekin antxe: ganbaran mikeleteak, eta sukaldean aien igesi zebiltzan erretorea eta bere neskamea. Danei ondo egiten saiatu giñan.

Gure aitak jende asko zetorrela ikusita, urrutizkiña bertan zegoan orduan, an bizi zan Don Jose apaizak jarri arazita; eta andik deitu zion Ordiziko arkupetako ogiegille edo panaderoari, ogei ta amar ogei bina kilokoak ekartzeko; Itxasondo eta Legorreta

tartean dagoan Beroztegi ballaran zai egongo zala astoarekin.

Agindu bezela etorri omen zitzaion ogiegillea, eta gure aita andik etxera, astoa ogiz kargatuta. Toki bearrezkora ekarri zituan.

Ordu pare bat pasatu ziranean, asi ziran mikeleteak azaltzen. Goseak zeuden nunbait. Ea patatak pronto al ziran.

Guk eraman genduan berak zeuden lekura mai aundi bat, bi fuente, kutxarak, ogia, ardoa eta eltzekada aundi bat patata. Pitserdiko botilla deitzen genion litro ta erdikoari. Gaur ez dira ikusten. Oietako bat eta nai zuten aiña ogi. Bildu ziran danak. Gu antxe, zerbait falta ote zuten begira. Ez genduan beste lanik egiten. Aiek artu zuten gozatua, jan zutenean!

Mikeleteak, piska bat berdindu ziranean, berriz etzan ziran. Illundu arte etzan arrastorik izan. Gauean eguerdian bezela eskatu zuten. Jarri genien zegonetik. Orduan etzegoan eskusarik. Zana zala, tripa bete ta segi. Kontutan egin zuten saio bat eta lotara berriro.

Bi egun baziran jendea igesi zijoala. Danak an sartzen ziran. Bazekiten gurekin zegoan Don Jose apaiza zer klasetakoa zan. Arekin tertuli aldi bat eginda, alde egiten zuten. Bera ere bildurrez zegoan.

Bean, sukaldea bete lagun zegoan. Al zan bezela afaldu genduan. Kanpokoak oera; gu belar pillara. Ola pasatu genduan gaua.

Urrengo egunean joan bear zutela esan ziguten mikeleteak. Goizean baso bana esne eskatu ziguten. Txekorrei eman bearrekoa kenduta, eman genien danei.

Orduan, zer bear genduan galdetu ziguten. Aitak esan zien, borondatea ematen bazuten konforme zala. Artutako danak ondo ordaindu zituzten. Gus-

tora gelditu giñan. Ala partitu ziran, Azpeitira zijoztela eta “berriz ikusi arte” esanda.

Jose Rezolak ere aien atzetik laster alde egin zuan.

Gero, erriko erretorea zegoan. Arek danak alde egitea nai zuan klase ortakoak. Joan aurretik, mikeleteak deitu zioten: errian sartu zirala reketeak eta nai zuanean jexteko. San Inazio goizean alde egin zuan.

Esan bezela, gurean izaten zan orduan don Jose Etxezarreta, baillarako apaiza, Azkoitiko semea. Arek ere bazituan naiko lanak berekin orduan, gauza onik etzuan ikusten da. Etsita zegoan, ez bazuan alde egiten, etziotela pakean utziko.

San Inazio goizean bi meza eman da etxera etorri zan. Sotana utzi ta traje dotore askoa jantzi zuan. Etzigun agurrik egin. Bezperan zerbait esan zigun. Ala alde egin zuan.

Aitak lagundu zion Murumendi aldetik bera, Iutsagan Azpeitiko kamiñoan jarri arte. Etzuan kontutarako gogorik ekarri. Izan genduan egun artan malkoak sekutzen lana. Ez genion alkarri kontu asko esan.

Partiran gure aitari esan omen zion, larunbatean jexteko erretorearengana, ta galdetzeko ea urrengo igandean meza ematera etorri zitekean. Baietz esaten bazion, billa joateko.

Ala, gure aita jetxi zan galdetzera, Esan zionean zertara joan zan, erantzuna au izan omen zan:

— Neretzat konpromiso aundia da ura defenditzen astea.

Bera lagun bearrean zanean, an ibili giñan ura oiean utzi ta gu belar pillan lo egiñez. Berari egingdako laguntzaren ordaiña ori izan zan. Gure aita an etorri zan jenio txartuta, esanez:

— Amabost egunean emen eduki ditugu alde batekoak ganbaran eta aien kontrarioa sukaldean.

Ori esanda utzi zuan da geiago etzuan etortzerik izan gure don Jose apaizak. Ballara osoa pena ederrarekin gelditu giñan.

Baziran geiago ere alde egitea nai etzutenak, ez ondoan ikusteagatik, baizik garbitu egin nai zutelako. Eskerrak joan zala. Laster ziran beraren atzetik. Don Josek ematen zuan eskolan ibilitakoa bat, beste iru edo lau lagun artuta, nun zan galdezka. Gure arrebak esan zion Azkoitira joana zala. Erderaz erantzun omen zion:

— *Ya iremos allá también. Ya caerá.*

Ori esanda alde egin zuten.

Nagusi berriak sartu ta gero ziran gurean kome-riak. Guretzako gerra orduan sortu zan. Lenago etortzen ziranak lagunak ziran. Gerokoak kontra-riok danak, eta errikoak txarrenak.

Lenengo, arrebari illea moztu zioten. Auzoan genituan alakoak. Gero, beste bi izebari. Errian bost edo sei izan ziran moztutakoak.

Azaldu zitzaizkigun etxe ingurura ere reketeak. Tiroa tiratakoan usoak ibiltzen diran bezela, nun zebiltzan etzekitela sartzen ziran al zuten tokiraiño. Baiñan arrantxoa palta. Orduan asi ziran, azariak bezela, oillategiko oillo billa erlijioa defenditzera atera ziranak.

Igande goiz batean etorri ziran gure auzora. Sartu zan sail bat Idoia baserrian eta asi dira oillo billa jateko. Lenengo, errian jaun da jabe egin ziran-ean, bat kontzejal egin zuten. Guretik gertu, aren bordan asi dira oilloei segika. Konturatu da bera nola dabilzan. Joan zaie txapela gorria jantzita. Aukera ederra jarri zien: oilloak bear bazituzten, apaizak alde egin zuala ta ango oilloak erdiak are-nak zirala esan zien. Besterik etzuten bear. An eto-ri omen ziran, onela esanez:

— *¿Dónde están las gallinas del cura?*

Gure aitak erantzun zien oillo aiek etzirala apai-zarenak, bere semearenak baizik. Sarjento bibotedun batek, urreratu ta esan omen zion:

— *Empiece usted primero recogiendo.*

Aita asi zanean, besteak atzetik korrika. Ogei ta amar oillo artu ta bi zakutan sartuta, an joan ziran.

Ni errira jetxia nintzan. Eguerdian etxeratu nintzanean, an zeuden danak alkarri begira, erdi negarrez, zer gertatu zan neri esateko bildurrez. Aitak esan zidan:

— Laguntzailleak izan dizkiagu.

— Zein etorri dira, ba?

— Nik etzekiat naparrak edo reketekak edo zer izango ziran. Ire oilloak eraman dizkie geienak.

— Ori besterik ez bada... —esan nion, piska bat lasatu zedin.

Ni oso gazterik asi nintzan lagunarterako dirua bear nuala. Igandeetan, izan ere, errosarioa esan ondoren, kartetan asten giñan, diru asko jokatu ez arren. Baiñan askotan begira egon bear, patrika utsik zegoalako. Etzegoan gure aitari eskatu besterik, jokurako nai genduala esanda. Ortarako eskatzea lotsatu egiten nintzan.

Baiñan ni beti pentsatzen nundik atera zitekean dirua, iñori eskatu gabe. Egun batean bururatu zitzaidan konejuak jartzea. Ala esan nion aitari. Erantzuna auxe izan zan:

— Konejuak jarri? Lana egiten da dirua irabazten ez diat galeraziko. Nai dekanean, motell. Berdura naikoa bazegok, artoa ere bai ganbaran. Ondo lagundu eta irabazia erorrentzat.

Gustora entzun nion ori. Errian bertako Patxi Rezolari umeak egiteko zegoana erosi nion sei pezetan. Sarri bisitatzen nuan. Amar ume egin zituan. Sortu ziran emeak aurrerako. Arrak saldu. Denbora pixka bat pasa zan azitzen.

Ez nintzan asarre, dirua artzen asi nintzanean. Inbidia beti izan det geroz ta diru geiagoren jabe izateko. Esku artean pezetak ikusi ta geiago nai.

Asteazkenetan bialtzen nituan pare bat edo bi nere bigarren amarekin Ordizira. Prezioa beti berdintsu. Etzuten ibiltzen gaurko boltsak aiñako igojetxirik. Pareko iru pezeta geienetan.

Astero sei pezeta artzen asi nintzanean, giro zan nerekin. Rotxil baiño aberatsago nere ustetan. Baiñan lenago aitatu dedana diot berriro: geiagoren inbidia.

Gero, baillarako apaizak esan zidan oilloak jarriko genituala biok erdibana. Aitari esan nion, eta ura ere saiatu aldekoa zan. Nolabait dirua atera beintzat. Nola ikusten zuan lagun ona neukala, jartzeko eran-tzun zidan; amar oillo ekartzeko bere goiko bordatik, nai nituanak, asteko. Ontzat artu nion eskeiña.

Ori ikusi zuanean, apaizak esan zidan ni aitarekin asko aprobeixatuko nintzala, ta etzuala gure artean sartu nai; arek berdin lagunduko zidala; jartzeko danak nere izenean.

Orrela, etxe aurrean lenago ogia egiteko labea zana ondatuta zegoan. Ura preparatu nuan oilloentzat, ondo berrituta.

Gure lengusu bat zegoan etxean. Joan giñan biok sestera bat artuta. Artu genituan, esan bezela, amar, urrengo egunean arrautzak egiteko zeude-nak. Ipiñi ditugu kotako egurretan.

Urrengo goizean ez neukan deitu bearrik. Jeiki ta gosari txikia egin baiño len, oilloak ikustera. An zebiltzan danak bueltaka, arrautzak egiteko toki billa. Jana bazeukaten, baiñan leku berrian ezin asentatu eta nunbait bota egin bear. Asi ziran banaka jartzen.

Ni aitarekin basora lanera. Eguerdian etortzeko ura poza, berriz ikusteko! Beintzat, illuntzerako jarri zituzten.

Amabietarako egiten zuanak, urrengo egunean seguru jartzen zuan. Egun artan egiten etzutenak eta amabiak baiño len egindakoak, urrengoan seguru kontatzen nituan. Gauean aitak galdetzen zidan:

— Zenbat jaio dituk?

— Amar —erantzuten nion—. Biar orrenbeste jaioko dira.

Parre egiñez erantzuten zidan:

— Ik jakingo dek biar zenbat jarriko dituzten!

Ura gustora zegoan, dirua irabazteko olako gogoa ikusten zidanean. Arek nundik edo andik dirua sortzea nai zuan.

Etxean gendukan don Jose apaiza ere oillo zalea zan. Arek asko laguntzen zidan.

Pentsua Donostitik gastatzen genduan, beraren bitartez. Urbieta kalean, 64'garren zenbakian, gaur ere ala dagoala uste det. Garai artan Leon Luzeret zan bertako nagusia. Trenez bialtzen zigun Ordizira, eta eskutitzez jasotzeko txartela. Berrogei ta bederatzi xentimo ordaintzen genduan kiloa.

Arrautzak, errial batean bakoitza. Iru pezeta dozena. Millonarioa egiten etzan errez orduan. Piskana-piskana indartzen asi giñan, oillo klase ona jarriaz. Erriko sendagilleak zeuzkan danak zuriak. Ari eskatzen genion oilloa loka jartzen zanean. Dozena t'erdi guk, dozenaren truke. Plazan merkeagoa saltzen zan gurea baiño. *"Para los tontos no hay gloria"*. Arrautza geiago jartzen omen zuten aren oilloak.

Orrela saiatu giñan berrogei ta amarretik gora jarri arte, apaizari eskerrak.

Lanak berak egiten zituan. Orregatik auzoko reketek orrek pentsatzen zuan erdibana genduzkala. Ala, or esan zien apaizaren oilloak an zeudela; berak alde egin zuala ta andik artzeko. Baiñan

etzan ala. Arek nai zuan bereak gorde beintzat, naiz auzoa galdu.

Arratsaldean or datoz beste sail bat oillo billa. Orduan abertzale purrukatuak, gu bezela, eta eza-gunak, bildurragatik boluntario presentatu ziranak. Agertu ziranean, esan genien:

— Zuek ere gure kontra al zerate orain? Gu zer gaituk: zuek baiño gutxiago, orain arte lagunak izanda?

Batzuk beintzat lotsatu egin ziran, esanez:

— Etzidak ezerk pena geiago ematen, ezagun tartean ola ibiltzeak baiño. Goazemazute emendik.

Alde egin zuten danak. Orduan aitak esan zidan:

— Emen dauden oilloak gure bordara eraman bear dizkiagu.

Baietz erantzun nion. Sestera batean artu ta bi bueltan goiko bordan sartu genituan.

Nere oilloen ganantziak ala bukatu ziran, Akabo nere negozioak eta pozak.

Ondo nenbillela, asteazkenean amarekin bialtzen nituan koneju eta arraultzak, eta iganderako naiko dirua. Aitak ori nai zuan: berari eskatu gabe pasatzea.

Eskerrak apaizaren laguntzari. Bazuan gogoa arek, irabazia nundik edo andik ateratzeko. Oilloak jarri zizkidan gauean ordulari batekin. *Despertadorea* esaten genion. Ura jarri zuan argia piztu eta itzali egiten zala, berak nai zuan orduan. Gaueko amabietan pizten zan, ordu erdi bat argi biziarekin. Ura itzali, bestea gorri piztu bost minutuan, oillorik lurrean bazegoan gora igo zedin. Berriz lotan danak. Bereala jarri ziran, pizten zanean bajatu ta ogei minutu baiño lenago danak igotzen zirala.

Sistema ori jarri zuanean, nik ikusi egin nai. Esan diot neri deitzeko. Ura amabiak arte igual ego-

ten zan irratia entzuten. Joan zait esnatzera. Nik ez omen nion kasorik egiten. Asarretu egin zitzaidan. Urrengo goizean asi naiz esaten zergatik etzidan deitu.

— Bai, bai. Ondo ziok —esaten zidan.

Ezin nion buruan sartu erazi ez nintzala konturatu. Berriz esan nion deitzeko ondo esnatu arte.

Baita egin ere. Txarro batean ura artuta joan zan. Deitu orduko esan nion:

— Esnatu naiz gaur.

Baiñan alperrik. Burutik bera ura botatzen asi zitzaidan. Laster atera nintzan oietik.

Jetxi giñan biok, argia piztu baiño len. Arek bazekian noiz piztuko zan.

Piztu zanean, jetxi ziran danak eta asi jaten. Amar bat minutuan jardun ziran. Bazekiten gaua zala eta berriz kotara igo ziran. Ni pozik gelditu nintzan. Poza ematen zuan gauerdian nola jetxi ta jaten asten ziran ikusteak. Bai oiera gustora sartu ere.

Ez dakit ni baiño gustorago bizi zanik izango ote zan. Asteazkenero sestokada bat arrautza Ordizira bialtzen nuan, beste koneju batzuk tarteka. Esku artean naiko dirua.

Oso gaztetatik nintzan irabaztea gustatzen zitzaidana. Gero, alako laguna neukan apaiz ura, beti oilloei begira. Egunero goizean kilo bat arto emateko esaten zidan. Oso mesede zutela. Egur ikatza ere bai. Nik uste det liburutik ikasten zuala nola zaindu.

Gustora bizi giñan geren negozioarekin. Baiñan jakin nai izaten zuan zer irabazi egiten nuan. Nik ez nion kasorik egiten. Amak ekarri ala, armarioan gorde pentsuak, ordainduta gelditzen ziranak. Aitak galdetzen bazidan nola nijoan, pozez esaten nion:

— Lengo illean sartu det milla pezeta Aurrezki Kutxan.

Arentzako gozotasunik aundiena ura zan: dirua aurreratzea.

Orduan milla pezetak asko balio zuan. Seireun bazkari baiño geiago egin zeizkean diru arekin. Sei erreal ordaindu nuan Ordiziko Baldunbero jatetxean lenengo bazkaria. Nik aldaketa ederra egin det geroztik, baiñan diruak ere bai. Pentsatzen jarrita sinistu eziñik gelditzen naiz.

Gaur ere oillaskoak azitzen lana egiten det, eta orduan eun kilo pentsu berrogei ta bederatzi pezetan. Gaur, berriz, kilo bat bakarrik. Alde ederra dago.

Garai bateko amerikanoak ogei milla duro aurreratuta ezagutu genituan tabernan apopilo jarrita. “*¡Y a vivir de rentas!*”, lasai asko. Orduko aukerak bukatu ziran. Gaur miseria, bai Amerikan eta bai emen, gure modukoarentzat. Daukagunarekin konformatzea izango degu onena.

Diru kontuak nere arrastotik atera arazi egin nau. Amazazpi urte. Osasun ederra, Jaunak emanda. Dirua ere bai gastatzeko, baiñan ez botatzeko. Kostata irabazia gordetzen ikasten da. Nik ere ala egin nuan. Bearrean gertatu nintzan.

Apaiz ura nere ondoan izan banu, uste det beste laguntza bat izango nuala. Etzan komeni nunbait.

Gero, Urkiko abertzale danei iruna gurdi egur erriko plazara jexteko agindu ziguten. Norbait beti egoten zan zeñek eramaten zuan ikusteko.

Gure aita jetxi zanean, apaizaren billa etorri zana omen zegoan. Gurdia ustu zuanean, agiri bat ematen zuten señale bezela. Eman zionean, onela esan zion:

— Tori Bankuan kobratzeko txekoa.

Burla egiñez oraindik! Dana dala, arrantxoak preparatzeko egurra bildu zuten.

Baiñan gero aztu ziran erriko arrokeriak. Besteak bezela, mendira joan bear. Orduan larri. Gureak bezela, il egiten ziran besteak ere. “¡Viva España!” dei egiten zuten, entierroa zutenean. Baiñan ildakokak falta.

Uste zuten beren bizi guzirako ogibidea seguratu zutela. Guk bezelaxe, bizirik gelditu ziranak lana egin bear, jango bazuten. Gure paretik gora etziran asko igo. Nik, beintzat, neri egindako utsegite danak barkatzen dizkiet, ildakoei bezela bizi diranei.

Oietako bat Tolosan egokitu zitzaidan. Astelen batean bildu giñan. Asi zitzaidan izketan. Ni ere bai pozik. Denbora piska bat pasatu genduanean, esan zidan:

— Kafe bana artuko al diagu?

— Bai. Goazen —erantzun nion.

Joan giñan. Artu ere bai. Izketa saio bat egin ondoren, sartu giñan lengo kontu zarretan. Lagun oso maiteak izanak, kontatu genizkion alkarri geren pasadizoak. Ala esan zidan:

— Ibili gaituk politikarekin igoko geran ustean. Baiñan orrek guretzako etzeukak ezer. Guk obe diagu alkarri lagunduz bizitzea.

Gustora entzun nizkion danak. Esku emanda partitu giñan. Gaur erriko lagunik aundiena det bera. Beste asko baditut aren antzekoak. Urtero joaten naiz jubilatuen jaialdian. Danei ondo itzegin eta lagun bizi, al bada.

Don Jose apaizari zioten gorrotoa jakintsua zalako zan. Gure baillaran lan asko egin zuan, eta bekoak ezin eramán.

Lenengo, bigarren meza ematea iritxi zuan. Len egon zanak, don Salbadorrek, bazuan baimena Gasteizko gotzaiarengandik. Baiñan erriko erretoreak galerazi egin zion, eta besteak etzuan balorerik izan kontra egiteko. Au enteratu zanean, etzuan

besteren bearrik izan. Karta baten bitartez iritxi zuan. Erriko jende asko penaz gelditu zan, Urkikoak bi meza bertan genitualako.

Ondoren argia jarri zigun. Telefonoa ere bai. Urrena asi zan kamiñoa egiteko. Agindu zioten. Jarri giñan pozak. Zoritxarreko gerra etorri zan. Akabo gure usteak. Orduan bukatu ziran on danak.

Lan oiek izan ziran berari inbiria artzeko. Ala esan omen zuan erriko jauntxo batek, enteratu ziranean beste aldera, Frantzira, pasatu zala:

— *¡Que se esté allí! Aquél es muy listo. Si viene aquí, yo con esta pistola cuatro tiros le voy a dar.*

Orra gizonak egin zuan kaltea. Bera zegoan lekuari asko lagundu ziolako dana. Gorrotoa dagoan lekuan ez da pakerik. Ez len, ez orain, ez gero ez da izango. Ori da munduko gaitzik txarrena.

Bereala asi ziran kinta berrien eske. Gu, esan bezela, iru anai giñan: lenengoa, 1910'an sortua; bigarrena, 1914'ean; eta ni 1917'an.

Bigarren anaia, Migel, len esan bezela, apaizgaia zan. Saturraranen bi edo iru urte egin zituan. Gero, Gasteiza pasatu zan. Zortzigarren urtea bertan, soldaduska serbitu eta estudiatu, danak egin zituan.

Bukatu zuanean, etxera etorri zan, ekainaren azken aldera, berriz lengo bidean segitzeko asmotan. Baiñan oker atera ziran gauzak. Bera 1935'eko kintoa zan. Gerra zoritxarreko ura sortu zanean, bereala deitu zioten berriz soldadu joateko. Egun gutxi pasatu zituan etxean.

Apaiz egiteko asmotan zebiltzan askok suertea izan zuten. Lenengo, danak joan ziran soldadu. Baiñan baziran aien alde saiatu ziranak.

Zaldibiko errian amaika lagun omen ziran apai-zetarako asmoan ziranak. Bertako bikarioak danak libratu ta estudiatzen jarri zituan.

Gure aita, enteratu zanean, joan zan beragana. Esan zionean zer nai zuan, onela erantzun omen zion:

— Ori errikoak egin bear du. Nik nerekoa egin det.

Ori entzun zuanean, zuzenean joan omen zan errikoarengana. Ari ere esan omen zion, baiñan erantzun txarra jaso zuan:

— *Todos no se van a quedar para cura. También hay que trabajar por Dios y por España.*

Askotan entzun izan dedana: apaizak eta odolkiak egindako modukoak izaten dirala. Alde ederrekoak billatu zituan gure aitak.

Gure anai ori kamioi batekin munizioak eta gauzak partitzen jarri omen zuten. Frentetik aparte samar zebillela idazten zigun. Gau batez, ordea, Zaragoza'ko polboriñean sartu gaua pasatzera. Etsaien aideplanoak bonbardeatzera etorri eta bonba bat polboriñean sartu. An ziran munizio eta polbora guziak lertu arazi omen zituan, eta lotan zeuden lagun guziak il. Kanpoan goardian ziranak, aiek bakarrik bizirik atera.

Gure anaiari soldadu bukatu bearra gertatu zitzaion bere bizia. Atsedean dezala beste munduan.

Bigarren anaia etxetik eraman ondoren, alako batean 1931'ko kintaren txanda izan zan. Orrek gure anai zarrena arrapatzen zuan. Baiña arek, ogei urtera iritxitakoan, kuota pagatu milla ta bosteun pezeta, estruzioak ikasi eta libre aterea zan. Orregatik, bera etzuten deitu.

Baiñan 1930-ekoa eskatu zutenean, soldadu joan bear zutenak reklamatu egin zuten: aurreko kintatik etzituztela danak artu. Orduan gure anaiak ere joan egin bear.

Baiñan biok genbiltzan larri. Lege bat bazegoan: bi anai gerran bazebiltzan, eta irugarrena deitzen bazuten, iru anai oietatik bat libre gelditzen zala.

Guraso danak etzuten berdin pentsatzen, ordea. Batzuk baziran, seme zarrena aurrena joan da gazteena eskatu zutenean, gaztea bialdu ta bestea etxera ekarri zutenak. Baiñan gure aitak aurretik esan zigun berak etzuala iñor bereziko; azkena deitzen zutena geldituko zala etxean. Ala, anai zarrenaren kinta nerea baiño illabete lenago eskatu zuten, eta ni izan nintzan etxean gelditua.

Negozio ederra

LEN esan dedan bezela, gerra asi ta bereala eramán zituzten nere bi anaiak. Gurekin bizi zan lengusu baten kinta ere laster deitu zuten. An gelditu nintzan aitarekin bakarrik.

Aiek irurak gerran, baiñan etxean ere etzan pake aundirik gelditu. Egun guzian lanean jardunda, illunabarrean etxean zer notizi izango ote zan.

Lenago anaiaren atzetik ibiltzen nintzan. Gero nere kontu artu bear ikulluko lanak.

Berak alde egin zuan egunean, asi giñan esnea saltzen, lenago ori pentsatuta geunden da. Alegiko Iriarte esnezaleari iru kilometro bidean astoarekin jetxita, udaran ogei ta iru zentimo, eta neguan ogei ta bost. Duro bat jasotzeko esne asko bildu bear zan.

Asi nintzan ondo gobernatzen. Ganbaran genduzkan arto pillak eta beste iru edo lau kutxa gariz beteta.

Askok ez dezute jakingo kutxa ori zer dan. Batzuek aska deitzen diote. Egurrezko kaja aundi bat, eskuz lan asko egindakoa, izaten da. Gaur etxe dotoretan egoten dira, sarreran dotorezirako. Andik izaten nuan ganaduen pentsua.

Nik zerbait geiago eman nai oraindik. An dago Ibasko errota Aramako partean. Andik ekartzen genduan koka. Ori da erremolatxari azukarra

kendu ta gelditzen dana. Oso ona da esnea emateko. Prensan estututa egoten da. Ur berotan beratuta jartzen genduan. Egunean iru aldiz, negu partean, arbia egosita baldekada aundi bat.

Eguerdian ura edatera ateratzen genituan. Etxetik eun bat metrora zegoan lau bat putzurekin iturri eder bat. Gaur ere ala dago. Ara eramaten genituan amar bat ganadu.

Neguan beintzat egarri aundia izaten zuten, belar ondua asko jaten zutelako. Batek iturrira eramane; besteak pentsua jarri. Ura edaten ari ziralda, etxeko pentsua gogoratu ta bear aiña edan gabe korrika etortzen ziran. Aien poza azpilkada pentsua askan ikusita: artoa eta garia, koka, arbi egosia, zaia ta arinilla.

Pentsatu genduan beste bei bat erostea. Joan giñan aita ta biok Tolosara astelen batean. An genbiltzan bati begiratu eta besteari.

Tratanteak, berriz, argi egoten dira. Iñor ikusten badute ganaduari begira, laster etorriko zaizkizu:

— Zer? Beiren bat nai? —esanez.

Gero, plazan bei danak errape aundiarekin, bezpera gauean jetzi gabe, geroztik ala gaixoak supritzen.

Gustatu zitzaigun bat. Inguratu giñan beragana. Bei jabea ezaguna genduan: Koateko Patxiko, Legorretakoa. Galdetu genion zer balio zeukan.

Ez dakit lenengo eskaera zenbat zan. Azkenean, beintzat, milla pezeta. Gure aitak amabi ontzako eskeiñi. Zortzi duroren alde atera zuten. Jabeak etzuan jetxi nai. Gureak ere igo nai ez. Alde egiten genion; baiñan berak etzigun segitzen.

Nik ez nuan etorri nai beirik gabe. Aitari esaten nion:

— Agindu iozu.

Eta:

— Milla pezeta, motell? —esaten zidan.

Azkenean, jarri arazi nuan. Egin genduan tra-toa, berak Itxasondora eramatekotan.

Beia gaizki zegoala ta esnearen erdiak kentzea ohea zala ibiltzeko. Baldekada bat kendu zion da ura tabernaren batera eraman zuan.

Laster, beia eta gu biok artuta, eraman giñuzen errira. Nere poza bei bat geiago banuala jztekoko. An nenbillen etxea goratzen ari nintzan ustean, illabete osoan.

Igande batean, gure aita ori joan zan esneak kobratzera. Ni beraren zai, zer notizi ekarriko ote zuan. Eguerdian etorri zan. Galdetu nion:

— Zer? Kobratu al dituzu esneak?

— Bai, motell.

Serio xamar zegoan esateko.

— Esneak kobratu dizkiat. Ibasko Saturdinori pentsuak pagatu ere bai. Iriartek eman din baiño amar duro geiago kendu zidak. Bide ortatik segi bear badek, leku ederrean gabiltzak.

An utzi niñun len baiño okerrago. Baiñan lengo esaera zarrak dio eroriaz ikasten dala ibiltzen, eta galduaz irabazten.

Bereala konturatu nintzan pekatua nun zegoan. Nik neuzkan beiak ogei litroz bekoak ziran; eta, pentsu ori ematekotan, ogei ta amar litrotik gora ematen dutenak bear dira. Baiñan kalidade ortako beiak erosteko diru asko bear zan.

Nik ez nuan bide ortan sartu nai. Orduan asi nintzan kanpoko pentsua gutxitu eta etxekoarekin pasatzen. Biltzen genduan esnearekin, almazenean nola zor gutxi zegoan, zorrak ordaindu; eta urtean zortzi edo amar bat txekor azi ta aien diruarekin ea zerbait aurreratzen genduan.

Orrela segitu genduan gerra bukatu ta anai
zarrena etorri arte. Ura bueltatu zanean, nik alde
egin bear, ganaduak utzita.

Soldaduska (Iruñe)

LASTER deitu zidaten errira jexteko, zein egu-netan eta zer ordutarako Ordiziko estaziora joan bear nuan esateko.

Urrengo astean alde egin nuan etxetik, geiago ez ote nintzan etorriko pentsatuz, danak erdi negarrez utzita. Gaur Amerikara lasaiago joango nintzake, orduan Panplonara baiño.

Ordiziko estazioan an zeuden bertako bi lagun, nere kintakoak biak. Etorri zan tren ori, dana soldaduz beteta. Ura ikusi genduanean, poztu giñan piska bat, ez giñala bakarrik pentsatuta.

Altsasura arte danak. Gero, batzuk Bitorira, besteak Burgosera, gu Iruñera bost lagun. Bat Beizamakoa, Pedro Otaegi. Beste bat Zestoakoa, jate-txe bateko semea. Ura jendearekin ibiltzen oitua zegoan. Beste bi kosta aldekoak ziran.

Danok lagun egin giñan kuartelera iritxi baiño lenago. Trenetik atera giñanean, bizi guzian alkarrekin ibili bagiña bezela alkar zaintzen genduan.

Errira igo giñan da, lenengo, etxean jarri zizkiguten ogitarteko edo bokadillo batzuk eta aiekin apari-merienda egin nai.

Lenago entzunda geunden taberna batean Beizamako semea zegoala. Izena ere ala zeukan: *Bar Beizama*. An sartu giñan. Gurekin zan lagun bat ere angoa, ta tabernan zegoan mutillaren laguna.

Botilla bat ardo eskatu genion. Oso ondo artu giñuzten. Etxetik ekarriak jan da preparatu giñan koartelerako.

Ura bildurra gurea! Dirua ostu edo lapurtu egi-ten zutela esaten ziguten. Esan genion nagusiari ea maletak an utziko al genituan.

— Bai, bai! Lasai gaiñera!

Arek uraxe nai zuan: berriz bertara joatea.

An utzi genituan. Diruak ere bai geienak, berari esanda.

Andik atera ta gertu zegoan koartela. Ate printzi-pala deitzen ziotenetik sartu giñan barrena. Gizon bat ilda joan bagiña ere, bildur geiago ez genduan eramango.

Bertan goardian zegoanak esan zigun gora igotzeko. Gure modukoak zeuden an ere, pozik alde egingo zutekenak. Artu zizkiguten gure izenak, eta zer opizio genduan. Nerea izango zan pobreena.

Bigarren konpañira joateko. Ekaiñean giñan da egun argia zegoan. Baiñan danak oiean sartuta. Inguratu zitzaigun, sarjentoa zala esan zuten. Neretzako berdin zan koronela bazan ere, saludo berdiña egingo nion da.

Bitxo ori asi zitzaigun bakarka lotan zeudenen billa. Esaten zigun:

— *Uno puede dormir con éste.*

Beste danok aurrera berarekin, bakarkakoak billatuz.

— *Ahí lo tenéis* —esanda alde egin zuan, da an gelditu giñan buruan jotako sugea bezela, nora jo ez genekiala.

Baztarrean zeuden koltxoi batzuk pillan utzita. Esan genion alkarri:

— Ementxe egingo diagu.

Gure etxean ikusia gogoratu zitzaidan. Gure aitak ekarri zituan lau ardi, Ordizin erosita. Urren-go goizean esan zidan:

— Eraman itzak basora.

Utzi nituan esan bezela, etxetik bistan. Bereala lau aiek partitu besteetatik. Zortzi bat egunean aparte ibili ziran. Gu ere alaxe gertatu giñan.

Zabaldu koltxoi batzuk. Jarri giñan etzanda. Baiñan leku guzietan izaten dira onak eta txarrak. Ikusi giñuztenean nola jarri giñan, mantak sobrean zeuzkatenak ekarri zizkiguten. Ni poztu nintzan, ikusi genduanean onak ere bazeudela.

Etzan orduko asi ziran galtza barrenetan gora maiztarrak. Ez det uste lo asko egin genduanik. Etzan nai orduko “*¡Quinto, levanta!*” korneta jotzen asi. Laster altxatu giñan.

Ekarri ziguten gosaria, kafesnea zala esanez. Orduan esan genion alkarri:

— Joango al gera kalera?

Danok baietz. Esan da egin. Kanpoko atean etzizuten kasorik egin, eta guk alde.

Asi giñan taberna billa. Laster billatu genduan. Gosaldu egin bear genduala. Besteak kafesnea bollo banarekin. Nik xerra bat gutxienez; gero kafesnea.

Gosaldu ta atera giñan. Ekin diogu paseatzen, amabiak arte. Gero kontuak. Iritxi giñan koarteleko atera. Atean zegoanak galdetu zigun:

— *¿Ustedes son los que vinieron ayer?*

— Sí—esan zion batek.

— *Que se presenten en seguida a donde el sargento.*

Joan giñan. Guk ez gendukan begi gaiñera eskua altxa bearrik. "Kaixo!" esan da libre. Esan zigun:

— *¿A qué han venido ustedes? ¿A hacer la mili o a tomar vacaciones?*

Zestoakoak esan zion:

— *Como no sabíamos lo que teníamos que hacer aquí...*

— *¡Hay que aprender la instrucción! ¡A las tres a formar en el patio!*

Pigura ederra eramango genduan. An jarri giñan danen atzetik. Bosteun bat metro egongo ziran estruzioak egiten ziran lekura. Aruntz iritxi giñanean, bereala deitu ziguten:

— *¡A ver, los reclutas! ¡Que salgan afuera!*

Nik ez nekian zer esan nai zuan. Baiñan besteak atera ziranean, ni ere atera egin nintzan.

Sarjentoa zala esan zuten. Asi zitzaigun galdezka ea nungoak giñan eta zer kinta, eta bera ere gure edadekoa zala. Esan zigun:

— *¿Cuándo nos mandarán a casa para dejar esta ropa?*

Ondo artu giñun. Gero piska bat asarretu arazi genduan, bere aginduak ez genizkiolako ondo egiten.

Lenengo, *firmes* eta *en su lugar descanso* jartzan giñan. *Firmes*, bi anak alkarren ondoan, pusilla eskubiko ankaren kontra txutikan zala. Bereala, *en su lugar descanso*. Eskubiko anka atzera botatzen genduan. Ordu erdi bat pasa genduan ori ikasi eziñik.

Gero asi giñan pusilla iru golpetan bizkarrera jasotzen. An ere ez giñan ederki ibili. Desapioak egin zizkigun, koartelera joatean illea moztuko zigula esanez.

Gero, martxa ikasten. An ibili nintzan larri. Esan zigun abiatzeko: lenengo, ezkerreko anka bota bear zala; eta, buelta emateko, ezkerreko anka altxatu ta buelta eman bear zala. Jarri gaitu laurok illaran *firmes* eta otsegin digu:

— *¡De frente, ar! ¡Un dos, un dos!*

Bastante ondo artu genduan. Joan giñan ogei bat metro bidean. Gero deitu zigun:

— *¡Media vuelta, ar!*

Arek zer esan zuan entzun nuan, baiñan ulertu ez. Nola ez nuan besteak zer egin zuten ikusi, nik, buelta eman bearrean, ezkerrera artu nuan. Konturatu zanean, adarra jotzen asi zitzaidan:

— *¡Muy bien, Barandiarán!* —esanez.

Ni oso orgulloso nijoan, ondo nijoalakoan. Ogei bat metro egin nituanean, aurrean jarri ta esan zidan:

— *¿Está usted loco?*

Begiratu nien besteei. Etzeuden aldean. Ez nuala entenditzen esan nion nola edo ala. Orduan:

— *¡Vaya usted a donde ellos!*

Berriz martxan jarri ta lagunetara joan giñan. Besteen atzean arrimatuta, koartelera. A zer deskantsua artu genduan! Pusilla utzi ta danok jatera irten giñan pozik. Bi ordu libre.

Lenengo, meriendatu. Taberna bat bazegoan *Bar la Cepa* izena zuana. Entzunda neukan soldadu asko or ibiltzen zala. Gu ere antxe sartu giñan.

Besteak bokadillo bana eskatu zuten. An zegoan, pizarra batean idatzita, zer zeukaten. Nik arku-ma buruaren erdia, botilla txiki bat ardorekin. Sei erreal. Merienda aundia ez, baiñan gozoa. Egunero orixe artzen nuan.

Gero, kalean buelta batzuk emanda, apaltzera. Gauerako jarri zizkiguten oiak, bakoitzari berea.

Urrengo goizean, lengo martxa. Nik billatu tranpa: kolan jartzerakoan, eskubi aldetik jarri. Arbole-
ra iritxitakoan, “*¡Izquierda!*” esaten zuten, eta ni
azkeneko illaran gelditzen nintzan. Askoz disimu-
luagoan atzean.

Besteak aurrean ziran da laister konturatu zan
agintzen ari zana:

— *¡A ver, los reclutas! ¡Que salgan afuera!*

Neri etzidan deitu. Bertan gelditu nintzan. Bai-
ñan ez niñun loak artu. Larri ibili nintzan. Kontura-
tu etzanean, pozik. Eguerdian etxera. Arratsaldean
berdin egin nuan. Andik aurrera seguru nintzan.

Asi giñan lagunak egiten, kantinan illuntzean
basoerdi batzuk edanez.

Azpeitiko bat bazegoan taillara iritxi gabea, po-
txolo bat. Bera aldamenean zegoan. Almazenean
egoten zan. Neri zinturoiaren txapa erdoituta eman
zidaten; garbitzen lan asko. Galdetu nion ea latoiz-
ko txapak zeuzkaten. Esan zidan urrengo egunean
joateko.

Esan bezela, joan nintzaion. Ikusi niñunean,
etorri ta esan zidan:

— Maiaren gaiñean zegok. Artu zak eta bestea
an utzi.

Arek esan bezela egin nuan. Gustora etorri nin-
tzan txapa brilludunarekin. Ura gerrian jarri ta
dotore, nere ustetan.

Laister asi giñan, kartzela bat bazegoan koarte-
letik bosteun bat metro bidera ta an goardia egiten,
egunero aldatuz. Gu ere joan giñan. Egun batean
goizean joan, eguna eta gaua pasa ta berriz ama-
rrak aldera irixten giñan.

Utzi genituan pusilla ta kartutxerak. Neri aztu
gerrikoa kentzea kartutxerari. Siesta egitera joan
nintzanean, konturatu nintzan gerrikoa palta zala.
An gelditu nintzan len baño okerrago.

Andik egun gutxira esan ziguten soldaduen erre-bista zala patioan, paseora irten aurretik. Ni zintu-roirik gabe. Pena nuan, baiñan alperrik. Danok jarri giñan illaran.

Kapitan bat asi zan danei begiratzen: batzuek, gerrera joskura askatuta; besteak, botoia palta... Geienak bagenduan zerbait. Iritxi zan nere parera. Laster konturatu zan:

— *¿El cinturón?*

— *Me lo han robado.*

— *¿Cuánto tiempo llevas en la mili?*

— *Dos meses.*

— *Y ¿todavía no has espabilado?*

Zatoa neukan eta andik edaten genduan. Askotan egiten genion alkarri, edaten ari giñala, ukalondoa ikutu ta gerrera mantxatu arazi. Nik ere ala nerabilkian. Begiratu ta ala esan zidan:

— *Se nota que eres vasco. Te gusta mucho el vino.*

Ori esan da alde egin zidan. Aren esanak ez niñun asko apuratu. Gerrikoak pena geiago ematen zidan, eta alako txapa ederra...

Jarri nintzan danei begira ea azaltzen ote zan. Urrengo egunean an nenbillen konpañi guziari buelta eman. Alako batean or ikusi det nere ondoan lo egiten zuan katalan bat nere gerrikoarekin. Pentsatu nuan: "Ez dek biar jarriko!"

Gaua lotan pasa genduan, biok oi banatan. Ni esnai nengoan, ura noiz esnatuko zai. Alako batean altxatu zan. Nik lotan nengoan papera egiten nion. Alde egin zuan garbitzera.

Ni ere laster atera nintzan. Ekin nion almoada azpian, manta tartean... Azkenean, koltxoia altxatu nuan. An azaldu zan nik palta nuana. Sartu nintzan berriz oiean, baztarrera begira.

Bera atzera etorri eta asi zan jazten. Gerrera jarri zuanean. altxatu zuan koltxoia, baiñan gerrikoa palta. Baztarretara begira egon da alde egin zuan.

Ni orduan jeiki. Jantzi, gerrikoa jarri ta gosaltzera joan nintzan. Ikusiko zuan arek nun zegoan. Baiñan etzidan neri ezer esan. Askotan esaten det mundu ontan onak eta txarrak danak dirala.

Gau artan etorri zan Plazentzitik 36-ko kinto bat. Ikusi zuten seguru euskalduna zala eta neregana ekarri zuten, onela esanez:

— *Éste que duerma contigo.*

Nik, nere pozez, irriparrez artu nuan. Asi giñan kontutan. Baiñan *silencio* jota zegoan da ez dute nai izaten ezeren otsik. Etorri zitzaigun zentinelak, ixiltzen ez bagiñan guardian jarriko giñula esanez. “Ondo lo egin” alkarri esan da ixildu giñan.

Urrengo goizean asi nintzan erakusten ango lanak nola ziran. Gure plazentzitarra gustora zebillen nere ondoan. Nik ere al zan guzia laguntzen nion, estruzioak bereala ikasiko zituala esanez. Bi egunean ibili zan beste lagun batekin.

Eguerdiaren gurekin jartzeko esaten ziotenean, laster zan nere ondoan. Alkarrekin koartelera. Bazkaldu alkarrekin.

Ordubete siestarako. Ni oitua nengoan piska bat egiten. Berak etzuan lorik egingo, baiñan ixilik egoten zan, ni esnatu arte. Oso gozoa zan.

Orduan berriz estruzioak egitera ordu pare bat. Andik etortzean, pusilla utzi ta kalera. Patioan formatuta danok geldituta, onela esaten ziguten:

— *¡Rompan filas!*

Guk erantzuten genion:

— *¡Franco!*

Orduan danak azkar zabaltzeko esaten ziguten, nai genduan lekura.

Nik lenago esan det *Bar la Ceba*-ra joaten nintzala. Esan nion nere lagun berriari zer oitura neukan: arkuma buru baten erdia ta botil txiki bat ardo, sei erreal.

Lagunak, ori gutxi zala. Beste zerbait jan bear genduala. Ura ere baserritarra izan, eta apetitu onekoa.

Esan nion an zegoala pizarran jarrita zer zuten. Beste bat zegoala *cordero con caracoles*. Ura iru pezetan.

— Orixe jango degu —esan zuan berak.

Nik ere pentsatu nuan txarragoa etzala izango. Diruak gastatzen ziranean, berriz eskatu bear. Orrela meriendatu genduan, botilla txiki bana ardorekin. Pagatzen asi giñan da esan zidan:

— Zuk utzi. Nik ordainduko det.

— Biok egingo degu —esan nion.

— Ez, ez. Nik egingo det, gustora gaiñera. Oso pozez nago zuk egin didazun laguntzarekin. Lasaitasun ederra izan det. Etzaizkit sekulan aztuko emengo zure laguntzak. Ni etxetik irten gabe nengon, eta emen olako lagunarekin gertatzea suerte izugarria izan det.

Lenago lagundu banion, gero geiago saiatu nintzan.

Iñoiz joaten giñan kartzelara goardia egitera. Egun batean joan eta bestean etorri. Goardia egiten genduan goizetik bi ordu; arratsaldean beste bi; gauean ere bai. Arratsalde batean, gu meriendatzen oituak, esan genion alkarri:

— Merienda balego...

Baiñan an palta. Orduan bururatu zitzaidan naiko gertu bazegoala taberna bat. Ea joango al giñan. Nik ori esatean, ura nere morroi zegoan.

— Goazen! —esan zidan.

Iñori esan bagenio, etziguten utziko. Orduan, kasorik egin gabe alde egin genduan, eta taberna nik uste baiño urrutiago. Artu genituan bokadillo bana, arek ordaindu zituan eta presaka lengo lekura, bildurrez konturatuko ote ziran.

Guk bildurra genduana gertatu zitzaigun. Iritxi giñanean, kaboa zai zegoan: ea nun izan giñan. Esan nion goseak geundela eta tabernan izan giñala. Segituan joateko sarjentoarengana. Bildurra izaten genduan illea mozteko, gaur baiño geiago neukan da.

Orrela joan giñan da asarre zegoan: ea nolaz alde egin genduan; ez al genekigun goardiko denboran, kapitana etortzen bazan, goardiko danak formatu bear genduala; etorri bazan, arek zeukala kastigua, gu palta giñalako; kaboari esateko, bi ordu partez, lau ordu segiran emateko kastigua.

Ori besterik etzanean, gustora gelditu giñan. Suertez, ondo tokatu zitzaigun: gaueko amabietatik lauetara. Ordurik txarrenak.

Deitu zigun altxatzeko. Ala, joan giñan. Len zegoanak oitura zuan zer egin bear genduan alkarri esateko. Egunez iñork paperik botatzen bazuan, ura entregatu. Gauean, berriz, ordu laurdenero deitu, *uno*-tik asita. Porteriaren ondoan zegoan *el uno*. Arek deitzen zuan:

— ¡*El uno alerta!*

Urrengoak erantzuten zion:

— ¡*El dos alerta está!*

Irugarrena berdin. Lautik bat lotan bazegoan, aurrekoak oska jardun bear esnatu arte. Bestela, kaboari deitu.

Gu gelditu giñan laurak arte etsita bertan egoteko. Baiñan ordubietan joan zitzaigun erreleboa artuta eta esan zigun: sarjentoak galdetzen bazi-

gun, lau ordu pasatu genituala esateko. Mesede ederra egin zigun. Gustora joan giñan lotara goizera arte. Gero, koartelera. Goiza libre deskantsatzeko.

Aste batean iru aldiz eraman giñuzten goardia egitera. Ango berri ondo ikasi genduan.

Egun batean gurekin joan zitzaigun kabo bati *Maño* deitzen zioten. Zaragozako izango zan. Arratsalde batean deitu zidan:

— *Barandiarán, vamos a relevar.*

Ordena zegoan zer egin bear zan alkarri esateko, pusillak aurrez aurre jarrita. Berri samarra izango zan aurretik zegoana. Asi zitzaidan esaten, eta kabo orrek ezin zion itxogin da esan zidan:

— *¡Nada, hombre! ¡Si aparece alguien en la ventana, tírale un tiro a la cabeza! ¡No saldrá más!*

Benetako brutoa zan, izketan beintzat. Bestela, oso ona, 36-ko kintoa.

Urrengo astean etorri zan, gu bertan geundela, nere lagunaren billa, bere kintoa zan da. Ala deitu zion:

— *¡José, hala, tira ese fusil a tomar por c... y vamos!*

Uste det pena eman ziola neregandik partitzea, baiñan ura etxera zijoan. Neri aundiago eman zidan, arek alde egin da ni an gelditu bear. Itxogin egin bear, txanda etorri arte.

Andik egun batzuetara, konpañitik pasatu giñan *ametralladoras* leku berrira.

Aruntza etorri ziran gerran ibilitakoak. Gu gradudun bat ikusteko bildurrak egoten giñan. Aietan, berriz, etzan ezagutzen zein zan soldadua edo zein zan kapitana. Guk artu genduan lasatua, aiek ala ikusita.

Andik aurrera, leku berrira joaten giñan batere formatu gabe, mendira ginjoazen bezela, zelai aundi

batera. Iritxi giñanean, partitu giñan ogei ta bost bat lagun sail bakoitzean. Estruzioak erakusteko, sarjentoak eta kaboak jartzen zituzten.

Berak utzi zituzten soldadu txistoso batzuk. Aien kontura parrez danak. Ordu erdi bat pasatu genduan eta laster jo zuten korneta lanari uzteko.

Ango umorea! Bildu giñan danak. Batzuek ekin zioten ezpaiñetako soiñua jotzen. Sebillano eta andaluzak asi ziran dantzan beren erara, jende guzia parrez zutela.

Alde ederra zegoan gu ibiltzen giñan bezela. Des-kuidoren bat egiten bagenduan, illea moztuko ote zuten bildurrez. Koarteleko txuskero oiekin mendian ibili ziranak obeto ezita etorri ziran.

Aspertu ziranean, alkartzeko agindu ziguten. *Paso de maniobra* egiñez, danak koartelera. Poza zan beraiekin ibiltzea.

Soldaduska

(Etxalar)

BAIÑAN urrengo egunean esan ziguten atera egin bear genduala Etxalarko mendira, lenago koartelean geundenak. Asi giñan prestatzen. Laster etorri ziran kamioi batzuk. Sartu giñan ganaduak bezela pillan. An eraman giñuzten Etxalarko errira.

Andik gora bi orduko bidean oiñez. Ederki nekatuta iritxi giñan. Orduan eman ziguten arrai lata bana, bollo banarekin. Zerbait zanean, gustora.

Laster partitu giñuzten bost lekutara. Gu erdiko baserrian gelditu giñan. Taberna bezela zerbait ematen zuten.

Egun batean eskatu nien bi arrautza prejituak, eta oliorik etzeukala esan zidan. Ea uretan pasatzea nai al nuan. Baietz esan nion. An etzegoan bankete aundirik eskatzerik.

Oso pameli ona zan. Gizonezkoak etziran agertu ere egiten. Egun guzia lotan eta gauean kontrabandoan danak, batzuetan oiñez gertura nunbait eta besteetan zaldia ta astoarekin ere bai. Aiek ortatik bizi ziran.

Ama iru alabarekin etxean. Ondo etortzen giñan. Ni sega artu ta joaten nintzan neskei laguntzera. Gustora artzen zuten nere laguntza. Neretzat iru bei gobernatzea etzan lana. Zerbait laguntzean, ematen zidaten ogi koskor batekin trago bat ardo. Baiñan ni ez nintzan joaten tragoa egitearren, neskekin berriketan denbora pasatzearren baizik.

Konpañian ere lana jarri ziguten Leitzako lagun bat, Migel Arraras, eta neri. Sukalderako egurra ekartzeko kargua eman ziguten. Ori egin da libre, mandoa lotuta. Ni gustora nenbillen: goizean egurra ekarri ta gero nai nuen lekura edo neskekin naiko berriketak egiñez.

Baiñan luzaroko ez nuan izan. Illunabarrean kapitanak beregana ni joateko deitu zuala. Ustez ez nuan utsegiterik egin da lasai joan nintzan. Saludatu nuan al nuan bezela eta esan zidan:

— *Bueno, Barandiarán: en la sección de abajo hace falta uno. Coja usted todo lo que tiene y después de desayunar vaya usted abajo.*

Agindu bezela, neskei agur egin nien da bisitatzera etorriko nintzala esanda alde egin nuan. Jetxi nintzan bera. Lengo lagunak danak. Presentatu nintzan alperezarengana. Esan zidan:

— *Hola, Barandiarán. Para mañana tenemos buen trabajo para ustedes. José Mari y usted van a ir a buscar huevos por los caseríos.*

Bestea an ingurukoa zan. Arraiotz erriaren izena. A zer bikoa bildu giñan! Eman ziguten kirtenakiko zesto bat; eta, ea betetzen genduan esanez, dirua ere bai.

Baserri batetik bestera ordu laurden bat bear zan gutxienez. Iritxi giñan lenengora. Deigu genduan:

— Ave, Maria!

Sukaldeko atetik begi bat bakarra agertzen zuten. Bildurrak aidean zeuden soldaduekin. Etorri zaigu emakume bat. Esan genion arrautzak biltzen genbiltzala.

— Ez degu arrautzarik, gutxi paratzen dute ta.

Esan nai zuan gutxi jartzen zutela. An antzeman genien bildurrez zeudela. Asi zitzaien Arraiotzko ori berak bezela izketan:

— Arrautzarik ekartzen badidazute, Lesakan saltzen dezuten prezioa emango dizuegu.

Batak besteari esan zion:

— Ea, begira zazu batere badagoan.

An etorri zaigu sei arrautzekin. Nere lagunak esan zien:

— Zenbatean ari da perian?

Ez naiz gogoratzen zenbat esan zion. Atera dirua ta eman zion, esanez:

— Geiago baldin badezute, orain dezute suertea.

Orduan asi zitzaigun esaten lenago etortzen ziranak, ondo pagatuko zutela esanda, zestoan arrautzak artutakoan, tasa emanda uzten zituztela. Baiñan guri zeuzkatenak emango zizkigutela.

An ekarri zituzten beste bi dozena. Ordaindu genien. Danak gustora gelditu ziran. Arraiotzarrak esan zien bere izenarekin:

— Orain olako baserrira joan bear dugu.

Ala zion batek:

— Esaiozu Prantziskari Josepak esan dizula emateko dauzkan danak. Emango dizkizu.

An joan giñan betik gora. Iritxi giñanean, deitu genduan. Danak bildurrez ateratzeko. Asi zitzaien nere laguna berak bezela izketan. Esan zien:

— Zu al zera Prantxiska?

— Bai.

— Or beko Josepak esan dit zuri esateko emateko dauzkazun arrautz danak. Guri berak aurrena dozen erdi bat ekarri digu. Ondo pagatu diogunean, beste bi dozena. Zuk ere ekarri dituzunak.

Iru dozenarekin etorri zitzaigun. Besteari bezela ordaindu genion. Gustora gelditu ziran. Lau base-rritan bete genduan zestoa.

Okerra nun zegoan billatu genduan. Len ortan zebiltzanak, arrautzak tasan ordaindu eta opizialei geiago kobratu. Gaizki dabillena lanik gabe gelditzen da.

Gu zestoa beteta ikusi giñuztenean, gustora ziran. Onela esan ziguten:

— *Pronto terminamos con estos.*

An gelditu giñan noiz aginduko ziguten berriz.

San Simon egunean, Urriak 28-an, elurra egin zigun, ogei bat zentimetro lodi. An egon giñan, ganbarako belar pillan jokuan egiñez, zortzi bat egunean. Eskerrak elurrak urtu zituala.

Berriz agindu ziguten arrautza billa joateko. Pozik joan giñan. Bagenekigun ondo artuko giñuztela.

Lenengo, Joseparen etxera. Atera zan Josepa ori. Ikusi orduko, onela esaten asi zitzaigun:

— Sartu, sartu barrena!

Joan giñan sukaldera.

— Trago bana artuko dezute.

— Ez. Gosalduta etorri gera.

Ikusi genduan gazta ta ogia ateratzera zijoala. Ezetz esaten genion, baiñan alperrik. Zuzen dabilenak, atek zabalik. Eserita jarri arazi giñun. Gu ere lasai, ain ondo artzen giñunean. Galdetu genion ea arrautzarik bazeukan.

— Bai —esan zigun—. Zenbat bear dezute?

Orduan nik esan nion lengoan lau baserrititik artu genduala. Oraingoan ere ala nai gendukela. Amabi dozena bear genituala, etxe bakoitzean iruna dozena.

— Oso ongi —esan zigun.

Ekarri zizkigun eskatuak. Danak ordaindu genizkion. Lengoan bezela, “urrena arte” esanda agurtu giñan Joseparekin.

Gero, Prantziskarengana. Deitu genduan ate ondoan. An agurtu zan gure etxeakoandrea:

— Emen zerate? —esanez—. Sartu barrena.

— Ez daukagu denborarik.

— Ardo piska bat artuko dezute.

Ezetz esatea alperrik zan. Ekarri zigun botilla bat ardo baso banarekin. Bete zigun basoa erdian gora. Egarrriak kendu zizkigun. Esan genion, besteari bezela, zer asmorekin genbiltzan. Arek ere ondo artu giñun. Ekarri zituan iru dozena. Berdin ordaindu genion. Agurtu ta alde egin genion irugarren baserrira.

Atea jo ta an azaldu zan. Ikusten genduan puntu asko irabazita geundela. Arek ere barrena sartzeko esan zigun. Ezetz erantzun genion, baiñan botilla ardoa artuta etorri zan. Asi zan basoa betetzen. Gutxi botatzeko eskatu genion. Trago bana eginda, galdetu genion ea arrautzarik bazeukan.

— Zerbait izango da —esan zigun.

— Besteiei iruna dozena artu dizkiogu. Zuri ere berdin nai genduke. Baldin badituzu, ekarri.

Bereala etorri zan bere oiekin. Besteiei bezela ordainduta, oso ondo partitu giñan laugarren baserrira.

An beste ainbeste espero genduan. Pozez ateaondora irixteko. Deitu genduan. Lengoan burua ager-

tzeko bildurrez egoten ziran. Oraingoan barrena sartu arazi nai danak. Or ere bai.

— Ez. Berandu gabiltza —esan nien.

Barrena sartu zan. Esan nion lagunari:

— Bigarren amaiketakoa seguru diagu.

An dator txorizo puska bana, ogia eta ardoa artuta. Seguru pentsatuko zuten: “Auek goseak ibiliko dira eta merezi dute zerbait ematea”.

Eskerrak apetitu ederra genduala. Jan da edan bapo eginda alde egin genduan. Esan genien beste baserrietan zenbat artu genduan. Aiei berdin egingo geniela. Gustora gelditu ziran.

Guk azkeneko buelta genduan. Andik bi egunera, beste leku batera aldatu giñan. Piska bat berago errota zar bat zegoan. Aruntza eraman giñuzten.

Lenago kastillano batzuk zeuden errota ortan. Inguru guzian gaztaiñadiak zeuden. Aiek etzeukaten goserik. Gaztaiñak bildu ta txapazko platerak zeuzkaten. Sua egin da brasa gaiñean erre. Aiek zeukaten mauka: gaztaiñak jan da errekatik ura edan. Zerriak ezkurrarekin bezela gizentzen ari ziran.

Mutil bat egoten zan errotan artoa egotzen edo irindutzen. Presa txiki bat zeukan. Errotaren barrendik iriki eta itxi egiten zuan. Egur luze bat zeukan, presatik errotara irixten zana. Gaiñezka asten zanean, palanka ori bajatzen zuan. An asten zan errota *kilik* eta *kalak*.

Ordu erdi bat etzuan irauten presako urak. Ori, elurra egin berria zalarik. Izango ziran momentuak gelditu gabe ibiliko zana. Beste garaitan, urik gabe geldi egon bear. Gaizki kaso egiña zegoan. Bazterretatik alde egiten zion urak. Mutil gazte ura lasai egoten zan.

Etzegoan ez pisurik ez baskularik. Zaku artoa ekartzen egotzeko. Lau kaja zeuzkan, olekin eginda.

Zaku arto aundia bazan, kajarik aundiena bete kentzen zion. Txikiagoa bazan, kaja txikia bete. An etzegoan gramoka ibiltzerik.

Zaku artoa betea ekartzen bazuan, larri ibiltzen zan. Nola iriñak bulto geiago artzen duan arto aleak baiño, zakuan ezin kabitu. Erremedio erreza zeukan: zakua betetakoan, besteak beretzat gorde. Baiñan etzuan ori egiten. Egur estaka motz bat edukitzen zuan. Zakua betetzen asten zanetik, egun orrekin ekiten zion estutu ta estutu, danak sartu arte.

Goizetik gauera antxe bere errotarekin. Illunabarrean, egun guzian aurreratutako iriñak bizkarran artu ta alde egiten zuan, etxean taloak jateko iriñarekin. Gu gelditzen giñan errotaren gaiñean, urrengo goizera arte lotan.

Gu altxatu baiño len, askotan errotan asten zan, zaku arto asko bazeukan beintzat. Arek ere bere lanari segi egin bear.

Orrela bukatu genduan mendi aldeko txanda. Esan ziguten beste leku batera joan bear genduala. Gu, batean eta bestean, etxera noiz bialduko geunden. Bitartean, agindutakoa egiñez ibili bear.

Mendi altutik erri ingururaino bajatu giñan. Bagatea baserriaren izena. Pena ematen zuten baserri artan bizi ziranak. Gure aurretik falanjeak egon omen ziran.

Siñale zuten supritzen bizitu zirala. Etxe inguruko egur danak erre omen zizkioten. Soroan zeuzkaten arto danak ekarrita, sutan berotu ta jan zizkiotela. Bistara etzuten agertu nai. Sukaldetik koartora joateko korrika pasatzen ziran. Kastigua ez al da norbere etxean besteen mende supritzen bizi bearra?

Guk amabost bat egun pasatu genituan. Andik errira jetxi giñan. Azkeneko saltoa. Lenago eskola

izandako batean zeuden batzuk. Gu ere an sartu giñan. Egun ederrak pasatu genituan antxe. Nik, egon giñan denbora guzian, bi goardi bakarrik egin nituan.

Goizean jeki ta, eguraldi ona bazan, pelotara. Txarra bazan, tabernara jokura.

Bi laguni eskuetako beatz tarteetan grano batzuk sortu zitzaizkigun. Laguna, len aitaturako Migel Arraras. Goiko mendian sukalderako egurretan ibili giñan biok. Berriz ere alkarrekin gertatu giñan. Azkure aundia ematen zigun.

Agertu arazi ziguten kapitanarengana. Ikusi zizkigun da esan zigun urrengo goizean Lesakara joateko sendagillearengana.

Ala, alde egin genduan. Iritxi giñan amarrak aldera. Galdezka billatu genduan. Erakutsi genizkion gure eskuak, eta gorputzean ere bai, eta eman zigun pote bana pomada ori bat. Egunean iru aldiz emateko, aurrena dutxatuta. Gauean zerbait jazteko, oia mantxatu etzedin.

Atera giñan andik. Bagenekigun palta aundirik ez genduala egiten koartelean. Esan genion alkarri:

— Etxera joango al gaituk?

— Goazen!

Elizondotik urrena zetorren trena artu genduan Iruna biok. Andik, nik Nortekoa artu nuan. Bestea, autobusen bat-edo artu bearko zuala esanda gelditu zan, Leitzara joateko.

Itzegin genduan, medikuarengana berriz joan bear genduan bezperan, arratsaldeko bostetako trenera biltzeko.

Eguraldi ederrak egin zizkigun. Etzitzaien gaizki etorri nere bisita gure aita eta anaiari.

Arto sail bat zeukaten beren zuztar da guzi, barrena sartzeko. Asi ziran, ni ikusi niñutenean,

lana eskeintzen. Aiek moztuta jarriko zutela. Ea nik mandoarekin ekartzen nituan.

Jarri zidaten mandoa pronto. Gora joan bear zan. Kargatu ta goitik bera. Kargatzen nion bildurrik gabe. Baldarra zan, baiñan indar asko zuana. Kilo pilla ederra sartu genduan bi egunean.

Izardiarekin erre egiten ziran nere beatz tarteetako granoak. Berotu nituan ederki. Gauean pomada emateko moduan nintzan.

Bi edo iru egunean saiatu ziran neri lana egin arazten. Ni ere gustora jardun nintzan, aspaldian nekatu gabe nengoan da. Alde egin nuan egunean, pozak joan nintzan etxeko bisita eginda. Soldaduskan nola lanik ez neukan, lagunetara joateko deseatzten.

Ni, esan bezela, bostetarako trenera inguratu nintzan. Baiñan laguna etzan azaldu. Nere zer pentsatuak zer pasa ote zitzaion. Makiña bat buruauste eraman nuan Irundik Lesakara arte. Trena iritxi zanean, erne nengoan. Atean azaldu nintzanean, asi ziran oska:

— Emen dek! —esanez.

Nere poza laguna an zala ikusi nuanean. Esan zidan Leitzatik kamioi bat zetorrela Lesakara, eta arekin etorri zala goizean.

Izeba zeukala Igantzin. Aren etxean bazkaldu zuala, eta biok apaldu ta lo egitera bertara joateko esan ziola. Neri ajola gutxi. Bera gustora ikusten nuan; da nik ere, koarteleko lasto gaiñean baiño naiago.

Mendian gora igo bear zan ogei bat minutu. Bereala iritxi giñan. Gau onak eman da sartu barrena. Asi zitzaigun:

— Etorri zerate gizajuok? —esanez.

Emakume baserritar, ona besterik etzuan oieta-ko bat zan. Asi zan esanez:

— Eseri! Eseri!

Neska bat zegoan. Besteak oera joanak. Atera zigun oillaskoa egosi ta aren saldarekin egindako zopa, platerkada bana. Gero, oillasko erdi bat. Ura bizirik lau kilo izango zan. A zer jana egin genduan! Gaiñetik, katillukada bana esne.

Kontu batzuk esan da lotara joan giñan. Biok ez genduan kontu asko esan, nekatuta geunden da.

Ura lo lasai egitea! Gure koartoaren ondoan erleju altu bat zegoan. Gure baserrian ere bazan ola-koa. Asi zan ordua jotzen. Berandu esnatu nintzan. Nola orduak bi aldiz jotzen zituan, zai nengoan bigarrenari. Kontatu nituan da goizeko zortziak. Lagunari esan nion:

— I, Migel! Zortziak jotzen ari dek.

Atera giñan oietik. Bederatzietarako gendukan ordua Lesakan sendagillearekin.

Izeba konturatu zanean, asi zitzaigun lo ondo egin al genduan esanez. Nik esan nion zortziak arte ez giñala esnatu. Esan zigun esertzeko.

Gosaltzeko, gaueko apariaren berdiña eman zigun. Lenengo, zopa ederra. Gero, oillasko erdia. Ura janda, gaiñean katillukada bat esne. Medikua-gana joateko moduan jarri giñan. Nik beintzat esker beroak eman nizkion, ondo merezita. Alkarri eskua emanda partitu giñan.

Laster jetxiak ziran gure anak gaztaiñadian bera. Bederatzietarako medikuaren atean giñan. Sartu barrena. Erakutsi genizkion eskuak. Galdetu zigun ea gorputza eskuak bezela sendatuta al gendukan. Baietz esan genion. Konpañira joateko esanda bialdu giñun.

Laster giñan Etxalar aldean, bildurrez nun ibili giñan galdetuko ote ziguten. Agertu giñan kapitana-ren aurrean. Gogoratzen zan gure izenekin.

— ¡Hola, Barandiarán y Arrarás! —esan zigun—
¿Qué tal estáis?

— Bien —esan genion.

Eskuetara begiratu zigun. Ikusi zigunean senda-
tuta geundela:

— *Muy bien. Seguid en la misma sección* —esanda utzi giñun.

Arek etzeukan gu nun ibili giñan kuidadorik, danok alperrik geunden-da noiz etxera bialduko giñuzten.

Urrengo egunean alferezak esan zigun rejimentuan ez omen zegoala botarik eta ondo kaso egiteko lengoei. Nik autsita neuzkan da esan nion, permisoa ematen bazidan, etxetik ekarriko nituala. Poz artu zuan ori esatea. Nai nuanean joateko esan zidan. Astebeteko permisoa neukala.

Laster nintzan Lesakan. Ordubete barru neukan trena, An sartu ta Iruna. Gero Nortekoa artu ta Itsasondora. Laister nintzan nere baserrian.

Bazkaldu ta siesta piska bat eginda, lenago artoak sartu genituan lekuan ere lana zegoan. Gariak ereiten berriz.

Baserrian lanik ez da falta. Lana falta dan baserrian, gauza geiago ere faltako dira. Gurean, beintzat, beti sobra zan.

An jardun giñan lurrak gorritu eta garia bota. Berrizko jarri egin bear. Piska bat lagundu nien.

Banekian anaiak bota pare asko zituala, soldaduskatik ekarriak. Esan nion bota billa joan nintzala. Erdi parrez jarrita, esan zidan:

— Aukera ederra badaukak: nai badek, italianoak, alemanak edo rusoak.

Bera italianoekin ibili zan. Danetatik ekarri zitan. Nik italianoak aukeratu nizkion.

Berriz joateko ordua iritxi zanean, amak ekarri zizkidan bi galtzerdi pare artillezkoak. Beraiekin jantzita gustora joan nintzan. Illunabarrerako sartu. Atea jo ta nere saludoa “Gau on Jainkoak” izango zan seguru. Ikusi niñunean, alperezak:

— *¡Hombre, Barandiarán! ¿Con botas italianas? Muy bien. Está usted el más elegante de todos. Vaya a cenar. Ahora la están repartiendo.*

Sartu nintzan lagunetara. Danak nere bota pareari begira. Orgulloso gelditu nintzan, danen gaiñetik nintzala pentsatuz.

Ezer ez genduan egiten. Danok etxerako abisoa noiz etorriko zai geunden.

Urrengo astean, abenduak 8, gure patroia. Nola egun ortan bazkari ohea jartzen zuten, gure alperezak nola zekian ni etxera gustora joaten nintzala, esan zidan:

— *Barandiarán, ¿quieres ir a casa esta semana? Aquí tienen fiesta el día de la Virgen, Te puedo dar permiso.*

— Eskerrik asko —esan nion.

Erderaz mintzatzen zan, baiñan euskeraz bazekian.

Laster nintzan Lesakan trenaren zai. Etorri zanean, sartu ta alde etxera. Iritxi nintzanean, aitak esan zidan:

— Zertarako ez aute erabat bialtzen, bueltaka ibili gabe?

Beste bost egun pasa ta joan nintzan berriz. Agertu nintzan beragana. Ikustean, parrez asi zitzaidan, esanez:

— *¿Quieres marchar otra vez?*

Laster esan nion:

— *Igual.*

Orduan esan zidan:

— *No, no. Hasta las Navidades no.*

Abenduak 15 zituan da ez neuzkan egun asko. Baiñan andik bi egunera lizentziatu zan gure kintaren erdia. Beste erdiak kasi urtea pasatu zuan lizentziatu arte.

Iruñera eramán giñuzten lizentzi billa. Urtezar egunera arte etziguten eman. Etziran egun aiek motzak izan. Nai orduko ez genduan papera eskuetan ikusi, alde egiteko bistatik.



Altzako Garbera-bekoa, Bizente Barandiaran
gaur bizi dan baserria.

Urrestillako buelta

SOLDADUSKATIK etorri berria nintzan. An izan nuan Azpeitiko lagun bat, Urrestil ballararkoa. Oso alkar maiteak giñan Iruñan. Alkarrekin etorri ere Zumarragara arte, Urtezar egunean.

Urrengo udaran pentsatu nuan igande arratsalde batean bisita egitea. Bururatu eta egin.

Irten nintzan etxetik irurak aldera. Goiko ermitatik aurrera, ango gaztaindegi guziak pasata, Lizardi baillaran gora, Zategi izeneko zelaitik Gorosagastin bera, Iutsa deitzen zaion lekuan sartzen giñan Azpeitira dijoan kamiñoan. Andik Nuarbera eta segi aurrera, Urrestillara iritxi arte.

Orduan asi nintzan baserri orren galdezka. Jose Aizpuru zan mutillaren izena. Etxeak, Mendizabal. Segituan erakutsi zidaten. Urraki aldera bastante goian dago. Gaur ere an egongo da noski.

Atea jo nuan da atera zitzaidan bera. Ikusi niñunean, eldu zidan lepotik. Ematen zuan ito egin bearrean nintzala. Aiek estutuak eman zizkidan!

Segituan deitu zion amari. Uste det siestan egongo zala. Etorri zan bereala. Esan zionean bere soldadu laguna nintzala, zer ongi etorria egin zidan!

Uste det lenengo kafea artu genduala. Gero erakutsi zizkidan ganaduak, etxea, terrenoak, danak. Armarioko kartera etzidan azaldu; besteak bai.

Baserri ederra zegoan, lur ta guzi. Gaur ez dakit nola egongo dan. Batzuk badira gora egin dutenak; besteak lur joak. Gurea ere larri dabil.

Bazter guziak erakutsi zizkidanean, esan zidan meriendatu egin bear genduala. Ni ortarako beti pronto. Eseri giñan mai ederrean. Ala zion bere amak:

— Itsasondotik onuntzaiño bisitatzera etorri! Ori dek laguna izatea!

Ministro bat bezela artua izan ninrzan. Asi giñan jaten. Ango txorizo, solomo eta arrautzak artindu genituan ederki. Azkenean, oraindik gogoan daukat, berrogei ta amar urte badira baiña, ontzi dezentean, erderaz *arrozcoleche* esaten dana atera zigun. Andik ere saiatu giñan. Ordu batzuk pasatzeko jarri giñan bapo.

Gero, bueltan etortzeko, bide luzea eta txarra gauerako. Pentsatu nuan trenean etortzea. Lagunak esan zidan lagunduko zidala Azpeitira.

Orduan, bere ama agurtuta, atera giñan biok. Iritxitakoan, estaziora. Esan ziguten etzegoala trenik urrengo goiza arte.

Ez nintzan asko estutu. Soldaduskatik etorri berria nintzan. Inñun lanean asi gabe nengoan, etxean anaiari lagunduz. Ez neukan orduaren zai egon bearrik. Apuratzen nintzan etzekitelako nun nenbillen. Gauean etortzeko idean atera nintzan, da deitzeko telefonorik etzegoan garai artan gure baillaran.

Lagunak esan zidan:

— Goazemak gure etxera. An lo egingo dek eta biar goizean joan adi Tolosara perira. Eguna an pasatuta, arratserako lasai famelira.

Ontzat artu nion bere idea. Bertan baso erdi batzuk artuz denbora piska bat pasatuta, abiatu

giñan lotara. Bide luze samarra dago, baiñan kontuak esanez lasai joan giñan.

Ama oean zegoan. Arek etzuan espero ni berriz an agertzerik. Deitu zion da etorri zitzaigun erdi parrezka, gaixoa.

Bereala jarri zigun aparria. Ez naiz gogoratzen zer jan genduan. Bakarrik dakit postrea meriendatzen bezela genduala. Bukatu genduanean, bialdu genduan ama. Jarri giñan biok lasai. Zenbat kontu berritu ote genduan?

Alako batean pentsatu genduan oera joatea. Esan zidan nun lo egin. Ala, erretiratu giñan.

Urrengo goizean, ni jaiki nintzanean, ikulluko lanak eginda zegoan gure Jose. Biok gosaldu genduan eta euria goien da bean. Eman zidan aterki edo guardasol bat, bere arreba Tolosako *Zeru-txiki* tabernan zeukala serbitzen eta ari uzteko esanda.

Berriz agurtu nuan bere ama. Atera giñan, lagunduko zidala piska bat esanez. Ia Urrakiraiño igo zan. Ezin partitu. Pena ematen zigun alkar uzteak. Alako batean esan nion:

— *Bueno*, alde egin zak. Berriz ere alkar ikusiko diagu.

Esku eman, arpegira begiratzuz. Geren biotzak bigundu ziran. Malkoak etziran urruti.

Ekin genion ni gora eta ura bera. Pauso batzuk eginda, atzera begiratu nion. Bera neri begira zegoan. Besoa altxatu nionean, jira ta alde egin zuan.

Euria etzuan atertzen. Bota ta bota. Zapatak urez beteta, gaiñetik ateratzen zala. Urraki mendia altu dago. Aizea ta eraso, dutxa ederra artu nuan.

Jetxi nintzan Goiazetik Bidanira. Sartu naiz *Toki-alai*-ko tabernan, baso bat ardo eskatuz. Esan nion ea Tolosarako ba ote zegoan autobusik edo ezer.

— Orain ez dezu —esan zidan

Arto trago bat eginda, martxa berriz. Urrena, Santutxu. Aruntza iritxi nintzanean, Beizamatik jetxi ote zan astelenetan Tolosara joaten zan autobusa galdetzeko sartu nintzan tabernan. Ango nagusia ezaguna nuan lendik. Bere izena, Antonio. Galdetu nion:

— Autobusik ba al dago bera joateko?

— Ni preparatzen ari naiz. Oiñez nijoa.

— Orduan ni ere banijoa —esanda, irten nintzan. Ez niñun arrapatu. Atertu zuan.

Banekian gutxi gora-bera, baiñan seguru ez, nun zan *Zeru-txiki*. Ez nuan pauso asko galdu. Galdetu nuan Mendizabalko alaba zein zan. Bereala etorri zitzaidan. Esan nion nola izan nintzan. Ontzat artu zidan bisita egitea. Etzait azten zer esan zidan:

— *A ze zaparraie artu dezun birien!* —Azpeitiko izketie.

Orrela, eman nion aterki ori; eta, bazkaltzera geroxeago joango nintzala esanda, utzi nuan.

Peri plazara joan da buelta batzuk eman nituan. Ez nuan lagunik topatu. Ordubata aldera an nintzan berriz taberna ortan. An zebillen nere lagunaren arreba maiak serbitzen. Laster etorri zan neregana ere, zer nai nuan esanez.

Dana ez daukat gogoan, baiñan batzuk bai. Lenengo, aragi zopa; gero, baba txikia; urrena zer jan nuan ez naiz gogoratzen. Postrea fruta zala badakit, eta ardoa ere bai.

Gaztetan ez nuan asko edaten. Gaur errezago sartzen det, baiñan kalterako, *goterak* asita nago ta.

Bukatu dezadan bazkaria. Kafea artu nuan. Beste kopa bat ere bai. Kontua eskatu nion da iru pezeta esan zidan. Ordaindu nion, “beste bat arte” esan da despeditu nuan.

Berriz plazara jo bearra zegoan, zerbait ikusteko. An ibili nintzan. Zer ikusi aundia izaten zan orduan. Orain asko bajatu da. Ganaduak erritik atera egin zituzten eta asko tristetu da. Ordu pare bat pasa ta aspertu nintzanean, alde egitea pentsatu nuan.

Estaziora joan da artu nuan billetea. Trena etorri arte zai an egon giñan. Azaldu zanean, sartu ta errira.

Ez det uste inun gelditu nintzanik. Aspertuta nengoan da zuzenean etxera. Danak galdezka:

— Nun ibili zera?

Aitortu nien atera nintzanetik ordura arteko pasadizo dana.

Orduan jakin nuan zer kezka zeukaten. Nola nengoan soldaduskatik etorri ta kanpoan lanean asi gabe, lantoki billa joan ote nintzan. Beren artean itzeginda zeuden, urte betean etxean gelditzeko esan bear zidatela, neri esan gabe artean.

Beti ondo konpondu izan giñan, eta gero ere ez nuan nai gaizki alde egin. Bertan jardun nintzan, aitak mantendu ta jantzi. Sei milla erreal agindu zidan, urtea pasatzeko. Ez nion gaizki artu. Kanpoan ere etzan asko geiago sobratzen. Orrela bukatu nuan nere Urrestillako buelta.

Geroztik, Bidanin, festa egun batean, alkartu giñan. Geiago ez det ikusi. Ez dakit bizi dan edo illa dan. Ura ere naiko zartua, ni bezelaxe, bizi bada. Ondo izan dedilla, mundu ontan edo bestean. Neretzat etzan txarra izan.

Gure lagun baten bizitza

DANAK ez gera berdin bizi izanak. Ondo bizi-tzeko, "berez bear du Billabonakoa", esaera dan bezela.

Gure auzoan bazan fameli bat saiatua benetan. Beren aita gutxi bezelako langillea: baserriko lanak eginda, basoan egurrak bota neguan; txikitu udaberrian; ikatza egin...

Bost seme zituzten. Bai lanean ezi ere ondo. Aitak bere oitura omen zuan seme danei Aurrezki Kutxan kartilla ireki, duro bat benik beti jarri eta urtearen bukaeran diruak ematen zuana bertan utzi. Orrela segitu omen zuan, al zuan arte.

Bazituan bide ortan jarraitu zutenak, baiñan ez danak. Bat atera zan ondo bizi nai zuana. Aita ibili ezinda gelditu zanean, berak ikasi zuala Kutxara bidea.

Nik ezagutu nuanean, Beasaingo fabrikan zebillen. Diru asko irabazten zuala esaten zuten, eta asi zala Kutxara joaten. Urtero, zegoan diruak ematen zuana, atera egiten omen zuan.

Ura bizi zan! Traje ederra jantzi ta illeak orraztu, zeñek esan ura medikua etzanik? Baxo erdiak ordaintzeko, atzaparra bete diru aterako zuan. Zenbat inbiri pasatzen genduan ari begira?

Berak kontatzen zigun nola iru lagun joan ziran bein batez Sebilla aldera egunak pasatzera. Etziran ibilliko dirua gastatzeko bildurrez. Zer ibillerak egin ote zituzten?

Aspertu edo etorri egin bear da badatoz. Bidean iruetako batek esan ziela;

— Zertara joan bear diagu orain!

Eta onek:

— Nai dezutena. Oraindik milla erreal bazeuzkeat nik.

Gure auzoko ori bueltatzeko pronto. Baiñan irugarrenak motoak arreglatzeko tallarra omen zeukan itxita. Arek esan omen zien ura ezin zala geiago egon. Orduan etorri zirala Ordizira. An egoten zan gure lagun au apopillo.

Bertara iritxi diranean, esan diote loterian milla erreal bazeuzkala tokatuta. Besterik etzuten falta. Artu bizikletak eta or dijoaz Zaldibira. Garai artan *Joan-Krutzene-k* zeukan alako sona.

Sartu dira apaltzera, danak beraren kontura. “Zer zan ura?” esaten zuan. Danei aparria ordaindu omen zien eta danak saltoka azkenerako. Zerbeza-rekin illea orraztu ta dana egin omen zioten.

Len dirua sobra ta geiago tokatu. Orduan zeukaten Amerika bertan. Gozatu zuten urte aietan. Laneko orduak pasatu zai juerga egiten asteko.

Baiñan gauzak aldatu ziran gero: 31-garren urtean, errepublika etorri zanean, bukatu zan Amerika. Beasaingo lantokia asi zitzaien uelga eta lanak bajatzen. Langilleak arrotu egin zirala esaten zuten.

Nik amalau urte neuzkan. Gurasoei entzuten nien, bazkaldu ta zigarro purua errez asteazkenetan peria ikusita, “goazen lanera” esanez joaten zirala.

Apopillo zeudenak lau pezeta egunean ordaintzen zutela, eta zortzi edo geiago irabazi. Dirua sobra.

Laster bukatu ziran kontu aiek. Asi zan lana urritzen. Baita langilleak bialtzen ere. Ordizi aldean etzan lengoa. Beasaingo lantokiak inguruko erri danak mantentzen zituan. Millaka lagun ibiltzen ziran. Gure Joxe Iñazio ere kalean gelditu zan. Uste det azkena sartuak bialdu zituztela. Orduan kontuak.

Laster billatu zuan berriz Pasaiko puertoan bar-kuak pintatzen. Ura lengoa gero ere. Erreran oraindik an dago Perune baserria. An jarri omen zan apopillo, Gregorio eta Nikolasarekin.

Eguna lanean pasa ta etorriko zan etxera. Lenengo, ondo garbitu. Jantziko zituan arropa ederrak. Zerbait meriendatu ta aterako zan.

Bertan zeukan eta oraindik berdin segitzen duan *Bar Zubipe*-n sartzen ziran lenengo, Pasai aldean lana egiten zutenak. Atean sartu ta bere saludoa jakiña zuan:

— Eup! —esango zuan.

Ori entzutea naikoa zuten danak parrez asteko. Orduan asiko zan erronkan:

— Munduan da Astiasun baldin bada, aizkoran da atxurrean, bota dirua, berdinduko degu ta!

Etzuten besteren bearrik festa jartzeko. Tabernariari esango zion:

— Atera ardoa danentzat, dirua badago ta!

Gero asiko ziran *Ramontxo*, *Ongi-etorri*, *Nido*, *Uizi* taberna danetan, eta *Txingurri* bestea. Buelta osoa egingo zuten. Orduan danak apaldu ta lotara.

Larunbatean lasaiago. Lagunartean aparria seguru, urrengo eguna jai zutelako. Orrelaxe bizitu zan gure lagun Joxe Iñaxio.

Gero zoritxarreko anai arteko gerra sortu zan. Arek ondatu zuan, gu bezelaxe.

Alde egin zuan gudariekin. Bilbo aldean prisionero artu zituzten. Uste det ondo pagatu zutela.

Legun askoa ibili oi zan, baiñan ogei ta amar kilo galdu omen zituan. Gerrikoa askatzean, galtzak lurrera erortzen zirala esan oi zuan.

Etzeukan, libre utzi zutenean, permiso gabe len bizi zan lekutik ateratzerik. Errian, berriz, gorrotoa zioten, berak baiño obeto bizi izan zalako.

Egun batean pentsatu omen zuan ama ikusteko permisoa atera bear zuala. Ez dakit nun atera zuan, baiñan eman zioten beintzat.

Asteazkena izanik, pentsatu omen zuan Ordizira joan bear zuala. Lagun batzuekin tabernan zegoala, ondo nai zionen bat bazeukan. Abisatu dio reketeen buru egiten zuan bati. An etorri zaio otsoa bezela dokumentazio eske. Ama bisitatzeko permisoa omen zeukan. Ea zertara etorri zan paper arekin perira. Alde egiteko andik segituan. Bestela, kartzelan sartuko zuala.

Laster atera omen zan oiñez Itsasondo aldera. Beste errurik etzuan arek: berak baiño obeto bizitu zala. Orregatik ezin ikusia. Egun bat edo biko permisoa izango zuan.

Gerora lasatu zan gauza, baiñan lanik etzioten ematen. Bere ama ta anaiarengana etorri zan udara partean. Auzoko baserrietan segan lagundu ta orrela, zerbait irabazten ibiltzen segitu, garai bateko kontuak aztuta. Bere bizimodua kontatzen zigun lenago.

Gero anaiak esaten zizkigun arenak. Iñundik irabazirik etzuanean, dirua eskatu omen zion: Donostira joan nai zuala ta ea ogei duro emango zion. Bearbada etzion gustora emango, baiñan eman beintzat.

Bestea ere ez etorri egun berean. Astelenean agertu da. Asteartea etxean pasa ta asteazkenean perira joan nai. Esan dio anaiari bost duro emango al dion.

Besteak, erdi asarretuta:

— Bost duro berriz? Lengoan ogei duro eman da nun gastatu dituk?

— Diruak errez gastatzen zaizkidak. Aspaldian emakumetan ere ez niñuan izan da...

Eta anaiak:

— Demonio alua! Nere diruarekin emakumetara joanda i!

Berak etzigun olakorik esaten. Denboraldi tris-tea pasatu zuan.

Gero, bi baserri badaude Idoia izena dutenak. Bat Ordiziko partean dago. Besteak, berriz, sukal-dea bakarrik. Gaiñerakoa Itsasondoko partean. Taberna edukitzen zuten, eta aruntza joan zala morroi entzun nuan. Ni ordurako emen, Altzan, bizi nintzan. An uste det ondo izango zala, oso fameli ona zan da.

Igandean Urkiko jendea joaten zan bertara. Arentzako poza izango zan. Orrela pasatu zuan bere bizitza.

Edadetu zanean —ez dakit nundik billatu zuan—, Donostiko Ospital zarrean sartu zan. Oraingo Residentziaren inguruan dago ori.

Garai batean ganadu asko egoten zan, berak esaten zuanez. Ura etzan ikulluan ibiliko.

Loiolan badago *Bar Americano* izeneko taberna. Bertan nere osaba Bizente, aita pontekoa, eta izeba Pilar beren fameliarekin egon ziran bastante urtean.

Joxe Iñaxio beren lengusua zan. Askotan etor-tzen omen zan. Aiekin tertulia egiñez edaten zuan baxo erdia etzioten kobratuko. Oso maiteak ziran da merienda eman igual.

Izebari gustatzen zitzaion ura tentatzea. Galdetu ziola egun batean zer moduz bizi zan, da ala eran-tzun ziola:

— Oso ondo. Sukaldean monjekin ibiltzen naiz. Kroketak egin da prejitutakoan, bat edo beste ematen didate jateko. Ondo konpontzen naiz, baiñan aien esana egin bearra daukat.

— Zer agintzen die ba?

Izebak ere jakin egin nai zer lan ote zeukan. Ala erantzun omen zion:

— Gauero errosarioa errezatu bear.

— Ori ez dek lan txarra, motell.

— An aritzen naun, bulla puska bat ateratzen diñat eta.

— Jakingo dek ba?

— Ikasi giñunan, baiñan orain ari naun bigarren aldiz ikasten.

Klase askotako bizimoduak pasatu zituan. Egun ederra pranko bota zituan. Orain beste munduan gozatu dezala!

Dirua

GIZONAREN lagunak asko dira. Oietako bat dirua da. Kontuz ibili bear. Berak mendean artzen bazaitu, egin du zureak.

Danok gera orren zaleak, batzuk geixeago, besteak ez ainbeste. Baiñan gustatu bai beintzat danei. Egunero orrekin pentsatzen gabiltza, nola edo nondik sortuko. Nai badezu, bear dana bear diran gauzetan gastatzeko; bestela, zerbait aurreratuta edukitzeko badezu, oso ondo etorriko zaizu, baiñan asko nekatuta.

Milla duroren jabe egin da beste ainbeste egin naian era txarrean bazabiltza, ori diruaren mende zerorri jartzea da. Etzera sekula osatuko, eta izan litezke zuri osasuna galtzeko ta ondorengoak sesioan gastatzeko.

Diruaren gertaera bat entzun izan nuan gaztetan, aitonak edo ez dakit zeinek kontatuta.

Etxe batean bi seme omen zituzten. Zarrena, gurasoekin lanean; bestea, apaiz egin zala.

Aita edadean aurreratu zanean, testamentua egin zuala. Esan omen zien bera iltzen zanean ekartzeko. Ez omen zekiten nola egin zuan.

Alako batean bukatu zan gizon ori. Orduan asi ziran paper orren billa. An agertu zan. Zeuzkan ondasunak bientzat erdibana jarrita zeuzkan.

Ikusi zuanean anai zarrenak nola zegoan egiña, asarretu ta esaten dio besteari:

— Au etzegok ondo: erdibana biok. Ni etxean beti lanean; i eskolan ibili aiz. Ire gastuak ordaintzen jardun nauk. Lanik ez dek egin emen. Eta orain emengo gauzen partea nik bezela iretzat?

Orduan apaizak, apal-apal jarrita, erantzun zion:

— Motell, badakik gure gurasoak zein en onak izan diran. Aiek egindako lanekin asarretzen asi bear al diagu?

Besteak orduan:

— Ori zuzendu bearra zegok bion artean.

— Nola jarri bear dek?

— Ola ez beintzat. Zerbait utziko bear ko dek.

— Nik etzeukeat ezer uzteko. Biok erdibana ta kito —esaten dio.

Orduan bestea asarretu zaio, esanez:

— Nai dekena egin zak. Nik egiñik ez dek berriz jango.

Ala partitu ziran biak: bat etxean lanean, bestea errian bertan apaiz zegoan. Etzitzaion anaia konpatszera joango beragana seguru. Abadeak nai zuan itzegiten astea. Baiñan triste zebillen anaia.

Egun batean, soroan atxurrean ari zala, ondolik pasatu bearra gertatu zitzaion. Parera iritxi zanean, apaizak:

— Arratsalde on.

— Bai zuri ere —serio jarrita, besteak.

— Ari aiz lanean?

— Ari bear ko. Nora oa?

— Ortik gora. Goizekoetxeko Jose azkenetan dagoala ta joateko deitu zidatek. Arixe iltzen laguntzera nijok.

— Iltzen laguntzeko ohea aiz i, bizitzen laguntzeko baiño.

Bere pena agertu zion. Zenbat olako gertakizun ez da entzuten? Zoritzarreko dirua leku askotan!

Beste au ere orren antzekoa da. Fameli batean bizi ziran zortzi senide. Danak ondo. Gurasoak, ondasun askoren jabe ziranak. Gustoko bizitza zeramaten zarrak eta gazteak.

Aita urtetan gora zijoan, da egun batean pentsatu zuan zeuzkan diruak seinalatu egin bear zizkiela seme-alabei. Baiñan berak etzuan gelditu nai esku utsik. Beste munduan ere dirua bearko ote zan pentsatzen zuan.

Deitu zien danei. Bildu ziranean, onela itzegin zuan:

— Nik, emendik nihoanean, gauzak garbi utzi nai ditut. Ortarako, gauza guziak jarriko dizkizuet zuen izenean. Danei berdin.

Esan zien zenbat milloi zeuzkan. Danak gustora gelditu ziran. Baiñan enkargu bat eman zien:

— Ni iltzen naizenean, almuadaren azpian bi milloi pezeta jarri ala ere.

Ondo artu zioten. Orrela bizi ziran danak. Aitak urte batzuk igaro zituan munduan. Iritxi zan azken ordura. Bildu ziran danak bere ondora. An zeuden malkoak mardul ixuriz, naigabeturik, ikusirikan etzegoala beste zer egiñik. Batek esan zuan:

— Au bukatu dek eta badakizute zer eskatu zuan. Kaja ekartzerako, dirua atera egin bearko diagu.

An ari ziran beren ideak egiten. Baiñan bazuten beren artean anai bat apaiza aiek ere. Urte asko eskolan ibilia, ondo ikasia gauzak zuzentzen. Arek esan omen zien:

— Ori nik egingo diat.

Besteak, arrituta, galdetu diote:

— Nola?

— Almuadaren azpian txeke bat jarriko diot bere izenean, eta beste munduan berak kobratu dezala.

Ala bialdu zutela. Oraindik ez omen du sosik artu. Milloietan ez da bajarik etorri. Seguru, ez da an Bankurik izango. Baxo erdirik edan gabe ibiliko da. Semeak etzuan lur azpira dirurik bialdu nai. Sermoiak egiteko balioko zuan arek.

Zenbat kontu sortzen ote ditu diru orrek? Beste au ere entzun izan det. Gertatua da.

Egun batean, Beizamako baserri bateko aita-
-semeak ganadu bat saltzeko zeukaten etxean. Pentsatu dute, Tolosan astelenean egiten da peria eta bertara eramatea.

Irten dira biak, beia sokatik dutela, oiñez. Ez dakit zenbat kilometro egongo diran seguru. Amar bat inguru bai beintzat. Badijoaz *tapa-tapa*. Iritxi arte segi.

Plazan lotu dute. Etorri zaiote erostuna. Asi dira tratoan. Jabeak milla pezeta eskatu. Besteari asko iruditu.

— Guretzako galestia da —esan da alde egin omen zien albora.

An gelditu ziran biak alkarri begira. Baiñan bes-
tea gertuan omen zegoan. Etzuan alde egin nai. Bei
ona zeukaten da gustatu egiten nunbait. Berriz ger-
turatu zaie, esanez:

— Merkexeago emango dezute.

Aita-semeak:

— Gaur ez beintzat. Zenbatean jarri dezu azkena?

Besteak orduan:

— Len ere esan dizuet: zortzireun pezeta ordain-
duko ditut segituan, dirua artu ta libre etxera joateko.

— Ez. Gaur beiarekin joango gera.

Ura esan ziotenean, alde egin zien. Eguerdia zanda bazkaltzera sartu zan *Agustiñenea*-n. Besteak ere, gosetuak, esan diote alkarri:

— Guk ere mokau bat jan egin bear diagu.

Bestearen atzetik ez joatearren, sartu dira alboan, *Astelena* izena duan tabernan, leioaren ondoan beia ikusten zutela. An ari dira aita-sembleak, aldian bein begiratu.

Bukatu baiño len, an ikusten dute bestea, ganaduaren ondoan dabilela, adarretan begiratu, errapean ere bai... Poztu ziran saltzailleak. Esaten zioten alkarri:

— Orrek eramango du gure beia.

— Berago ez utzi, e? —esaten zion semeak aitari. Au ere artan zegoan.

Kafea artu ta irten dira biak lengo tokira. Etxean bazkalduta asko joaten dira arratsalde pasa. An zebillen jendea. Batek:

— Larrua mea du.

Begiratu besteak errapea. Batzuek jakin nai izaten dute zer moduzko titi zuloak dituan beiak. Alde aundia dago esnea kentzen, zailla edo samurra izan.

Batzuk ibiltzen dira ganadua ikusi ta prezioa jakin. Orduan asten dira esanez:

— Zenbat eskatzen dezu?

Badira gezurra ere azkar moldatzen dutenak. Ogei duro geiago igoal eskatu. Oiek berdin eskatu zioten danei.

Ola zebiltzala, an agertu zaie lengo erostuna. Inor trataoan ari ote zan begira egon ondoren, esan zien:

— Zer asmotan zaudete?

Aitak erantzun:

— Ni lengoan nago.

— Diferentzia erdibana egingo al degu?

Eta jabeak:

— Len ere esan dizut.

— *Bueno*, segituan ordaintzeagatik, zenbat bajatuko didazu?

Aita-sumeak alkarrekin itzeginda, esan diote:

— Bost duro.

Atera poltsa ta bi bosteun pezetako eman zien, eta besteak bost duro bueltan. Ola bukatu zuten tratoa. Bei jabeak esan zion:

— Suerte ona izan dezazula.

Erantzun ona eman zion:

— Osasunarekin gastatu zuk ere dirua.

Partira ederra egin zuten, berriz alkar ikusteko. Orduan lasaitu ziran beizamatarrak.

Illuntzean pentsatu dute, etxera abitu baiño len, zerbait jatea. Sartu dira bazkaldu zuten lekuan. Kontuak esanez gustora biak. Beia saldu ta dirua artu ere bai. Ederki meriendatu. Irten dira.

— Abituko al gaituk?

— Bai, bai. Goazen.

Etzegoan kotxerik eta trenik aientzat. Badijoaz Benta-aunditik aurrera Albisturko maldan gora. Konturatu dira aurretik dijoala norbait. Bestea ere, sentitu duanean atzetik badala jendea, geldi omen zijoan.

Aita-sumeak, ordea, ura arrapatu nai ez. Aurrekoa lasai, atzekoak bildurrean: beiazen dirua jaso eta zein izango ote zan? Aiek zaintzen ote zebillen?

Noizbait iritxi dira, Bidani baiño lenago dago Santutxo izeneko taberna bat eta araiño. Aren ondoan artzen da Santa Maiña eta Beizamarako

bidea. Aurretik zijoana an sartu omen zan. Semeak aurrera segitzea nai. Aitak ezetz:

— Guri segika baldin badabil, atzetik arrapatu egingo gatzek. Sartu egingo gaituk emen. Ezezaguna baldin bada, etzebillek onez. Bertan oia eskatu ta geldituko gaituk.

Ala, sartu dira barrena. Aien lasatasuna! Beren baserriaren beste bizitzako gizona maian eserita, botilla bat ardo ustuta.

Ala joan ziralara. Ori gertatu ta kontatua da.

Dirurik gabe gaizki. Askorekin, bildurrez. Orre-gatik da dirua zer pentsatu asko ematen duana. Zenbat bide txarretan sartu arazten ote du gizona diruak?

Askok ez daukalako, min. Zer ostuko, kalean boltsak edo patrikak miatzen. Edo etxeetan ateak eta leioak zabaldu, nun billatuko.

Beste batzuk, fameli artean, gurasoak ondasun asko utzi zutelako, ondorengoak lege gizonen artean era txarrean gastatzen.

Gertaera bat entzun izan det: etxe batean lau senide ziralara. Danak lanean egunez. Illunabarrean alkarte edo soziedade batean meriendatu ta gero, joku saio bat egiten zutela, beti alkarrekin.

Egunero ola ikusita, arritu egiten ziran lagunak. Bati bururatu zitzaion galdera bat egitea. Onela esan zien:

— Zuek danak anaiak izanda, orren maiteak nolaz bizi zerate?

Onela erantzun omen zioten:

— Gu alkarrekin onela gabilitza, gurasoak sosik etzigutelako utzi.

Ez al da egia izango? Diru asko ez da bear zoriontsu izateko. Daukaguna ondo gastatzea da bearrezkoena. Ori ez da erreza izaten beti.

Askotan egiten degu, lagun artean sartuta, bate-tik bestera ibili. Azkenean, ezin partitu. Batek ordaindu nai, besteak ere berdin, azkar eskua patrikan.

Nik esaten det: olakoetan alperrik botatzen diranak, ez al zan ohea izango jateko faltan dagoa-nari ematea? Ura litzake ondo gastatzea. Kontura-tu gaitzen.

Ardozaleak

GURE laguna degu alkoola ere. Baiñan kontuz ibili. Bera nagusitzen bazaizu, etzera ondo izango. Bearrean edaten badezu, indartu egingo zaitu. Baiñan neurritik pasatzen bazera, bildur izan. Ori, probatutakoak daki ondoena.

Asko gera zelebreek: baraurik gauden arte, egun on esateko balorerik ez. Baxo erdi batzuk ustutakotan, ixildu ezin. Orrekin egiten degun aldaketa! Itxura antzean etxeratzen bagera, nunbait or. Ikusi izan dira penagarri, zutik egon ezin da zer esaten duten ez dakitela. Burua nasten asi ta egunero beteta.

Gure ballaran, Urkian, bazan olatsu ibiltzen zana. Naikoa eginda etortzen zanean gauean, zeruan zeudenak azaltzen omen zitzaizkion. Egun batean ari zan esaten:

— Bart aitarekin itzezin diat. Ala esan zidak: "Iri errita egiten die ardo asko edan dekalako. Jarri zak taberna etxean da edan zak naikoa".

Beste bizitzako Ramon ere an zegoan, onela esanez:

— Edan ardoa lasai!

Gure lagun batek galdetu zion:

— Nere aita an al zebillek?

— Bai. Majoa zegok, besteekin batera, ura ere.

Eta besteak erantzun zion:

— Iritxi berria izango dek.

— Bai. Orain arteko lanak bazetian arek bidean.

Danak parrez utzi zituan. Orrela izaten dira ardozaleen kontuak.

Geiago baziran beste munduko berri ikasi naian. Inguratu zaio bat, aita il berria zuana, eta galdetu dio:

— Berriz laster ikusiko al dituk zeruko jende ori?

Orduan erantzun zion:

— Gaur bertan seguru egongo nauk danekin.

— Aizak: nere aita ikusten badek, galdetu bear diok ea nun utzi zituan txingura ta maillua. Ez dizkiat billatzen inun. Ori ikasten badek, botilla bat ardo emango diat.

Gustora bialdu zuan urrengo egunerako ardoa bazuala pentsatuz. Baiñan erremintak etziran azaldu. Berriak erosi bear.

Gure lagun batek kontatu zigun beste gertaera au. Bost anai ta beren aita omen ziran. Ez nolanaikoak. Danen arte seireun kilo pisatu zituztela. Bada zerbait. Litro erdi banarekin etziran balantzaka asiko. Baiñan geixeago gustatzen nunbait.

Berak oitura zuala illuntzero lagunartera joateko. Jokuan edo tertulian denbora errez pasatzen zuala. Etzan noski beti geldi egoten. Azkenerako, bete samarra askotan. Karga aundia zuanean, arnasa estu samartua, baiñan umore ederrean joaten zala.

Etxean sartzen zanean, konturatzen omen zan emaztea senarra etzetorrela baraurik. Asten zitzaio-la esanez:

— Au gizona! Jakin kaltegarri duala orrenbeste edatea. Ala ere, beti berdin. Zuek onak zaudete,

Matusalen bezela zazpireun urtean ardorik probatu gabe bizitzeko.

Eta senarrak:

— Zer naturaleza ote zuten gizon aiek, orrenbeste denboran bizitzeko urarekin? Ardo tanta bat izan balute, zenbat urtean biziko ote ziran?

Ura etzegoan ardoa kaltegarria zalakoan. Asko izan gustatzen zaigunak.

Beste bat ere bagenduan oso zalea. Egunero neurritik pasata, umoretsu beti. Batzuetan illea artzen genion, bestean lagundu.

Egun batean, ondo berdindua zegoala, asi giñan esaten:

— Baiñan, motell! Egunero ola, zutik egon eziñik? Etxera joatean, emazteari zer esaten diok?

Besteak:

— Lasai, lasai! Nik “Jainkoak gau on” bakarrik. Beste danak berak esaten zizkidak.

Danok parrez utzi giñuzen. Ditxa bat bazuan berekin: arek etzuan emaztearekin sesiorik jarriko. Ori ere ez da suerte txarra.

Batzuk badira, tabernan umore ederrean egonda, etxeratzean erritan asten diranak. Esaera dan bezela: “kanpoan uso eta etxean otso”. Garai bateko kontua da ori. Len ere izango ziran gaurko askoren antzekoak. Orrelako asko entzuten da tabernetan.

Au entzun berria det. Bi lagun bildu dira Donostiko Parte Zarrean. Denbora askoan alkar ikusi gabeak, batek:

— Kaixo, motell! Aspaldian ez diagu topo egin!

— Ez. Ala dek. Zer moduz?

— Ni oso ondo.

— Ezkondu al intzan?

— Bai, motell. Amar urte badituk. Bi seme ta alaba bazetoagu.

— Zer moduzko andrea dek: ona?

— Bai, motell. Uraxe dek nik bear bezelakoa. Kosta zitzaidan billatzea, baiñan suerte ederra izan nian arekin.

— Orduan gustora biziko aiz?

— Jainkoari eskerrak emanez bizi nauk.

— Pozten negok. Segi ola urte askoan.

— *Bueno*, ta i nola abil? Ezkonduta edo soltero ago?

— Ala egon banintz, obe. Nik ere andre ona artu nian ustez, baiñan suerte txarra izan diat. Bi seme izan giñuzean, eta danak utzi ta alde egin zian. Eskerrak ama bizi dedala oraindik, eta arekin bizi nauk.

— Alakoak alde egitea obe, motell.

Orrela, berriketa aldi bat egindakoa, esaten dio gustora bizi dan orrek lagunari:

— *Bueno*, baxo erdi bana artu bear dizkiagu.

Bestea etzegoan umorean da onela erantzun zion:

— Ez, motell. Ez diat ardorik nai, iru baxo erdi baraurik artu zetuat eta.

Serio-serio bestek:

— Baraurik iru artu al dituk? Nik bakarra artzen diat baraurik. Besteak gero.

Ura bromarako zegoan. Andre onak gizonari asko laguntzen dio bizitzen. Orra or bi lagunak zer alde zeukaten bizimoduan. Ortik pentsatu pakeak zer balio daukan. Orrela partitu ziran bi lagunak berriro.



Bizente Barandiaran, liburu onen egillea, segan.
"Lanik gabe ezin bizi", alegia.

Garai bateko ezkontzak

ORAINGOAN emakumeak aitatu nai ditut. Oiek dira lagunik bearrezkoenak mundurako. Jaungoikoak ori jarri zion gizonari. Geroztik orrela segitzen du bizitzak.

Zer esan asko daude bide ortan. Gaztetasunean asi ta bizitza pozgarria ondo ibili ta gero badator alkarrengana naitasuna, alkar ikusteko poza eta ori da bearrezkoena.

Bere urtetara irixtean, alkartu naia. Baiñan zein-ekin len, garai batean, gaur baiño geiago pentsatu bearra zegoan. Orduan betirako artzen genduan laguna. Gaur aldatu dira gauzak.

Gure gazte denboran esaten zuten ijitoak ezkontza egiten zutela lurrezko eltzea gora botata. Zenbat puska egiten zan, ainbeste urte alkarrekin. Andik aurrera partitzea libre.

Baiñan bazituzten beren tranpak. Batzuek luza-ro junto bizi nai. Orduan bide gogorrean botatzen zutela, ta al zan goraena bota, puska asko egin zedin, beren bizitza alkarrekin pasa nairik.

Besteak, berriz, gaurko askoren antzekoak. Gutxi ezagutzen bazuten alkar, lur bigunean bota eltzea. Austen ez bazan, naiago, urte bete barru partitzeko.

Gaur nik uste det ijitoak pasatu ditugula. Gaur asko, elizaratu gabe alkartzen zaizkigu; eta geiennetan oiek dira azkarren aspertzen diranak. Zeiñek du errua? Ez da asmatzen erreza. Geren famelietan olakorik ez degun artean, gustora bizi bear.

Garai batean, artistak eta kantanteak ziran bat utzi eta bestea artu ibiltzen ziranak. Gaur ez dago izen aundikoa ta aberatsa izan bearrik. Edozein dijoa bide ortatik. Maitasuna ta alkartasuna bukatzen ari dira. Nik uste det sinismenik ezak sortzen dituala oiek danak.

Egun batean bildu,
urrengoan bakar,
oien amodioa
bukatu da azkar.
Zortzi egun baiño len
jo bearrik alkar,
fede gabe egoteak
emen ori dakar.

Gaur arritu egiten gera gure gazte denborako ezkontzekin. Neronek ezagutu nituan. Bi alderdie-tako gurasoak bildu alkarrengana ta:

— Gure Jose ta zuen Mikela alkarrekin jarriko al ditugu?

— Guk esango diogu alabari.

Eta besteak:

— Gure etxean ez da gaizki izango. Al deguna lagunduko diogu bizi geran artean.

— Bai. Ortan badegu esperantza: zuen artean ez duala gose-egarririk izango.

Orrela partitu ziran nor bere etxeetara. Gauean, apaltzera biltzeko pozak, beren semeari esateko zer itzegin zuten. Eta semeak:

— Mikela? Naiko al du?

— Aitak eta amak baietz esan die.

Orduan erdi parrez erantzun omen zien:

— Biar joango naiz itzegitera.

Arek ateak jo zituanean, zer atsegiña izango zuten! Josek etzuan amagiarrebagaiak errita egingo zion bildurrik, beren gogoa zala jakinda. Zer arrera izango ote zan? Bien artean lenago ezagunak noski. Baiñan olako gauzarik pentsatu gabe egongo ziran bearbada.

Zer bizitza zoriontsua zan garai artakoa, orain pentsatzen jarrita! Etziran seguru zazpi urtean bueltaka ibiliko. Etxea billatu bearrik etzuten izango. Koartoren bat berria jartzen bazioten, noiznai pronto esposatzeko.

Aien artean izango zan alaitasuna. Nola gurasoak ala gazteak, Jaunaren laguntza besterik etzuten falta. Alkar ondo ikusteko deseatzten danak. Ori, alde batera begiratuta.

Garai batean etzan gaur aiñako dibortzio otsik izaten. Gaur ez dago ezkontzeko eliza bearrik, eta gutxiago partitzeko. Juzgaduan pentsatzen dutena egin da libre.

Baiñan beste gertaera asko datozkit burura. Alkarrengandik partitzea gaizki dagoala esaten degu. Zerbait egia izan liteke. Geiegi ote dan gaurkoa nago ni. Lenago, berriz, aldrebes askori entzun diet esaten ari dirala, kontu orrekin asi ta beren penak agertzen.

Nik ezagutzen det bikote bat errukarri bizi dana. Ezkondu bazan ezkondu, andre gaixoa ari da gurutzea eramaten.

Goizean aurrena jeiki, gosari txikia eman eta gerorako ogi tartekoa ipiñita bialtzen du senarra lanera. Eguerdian bazkaltzera zuzen, berriz lanera joan bear dualako.

Arratsaldea bukatu zai, tabernara bidea artzeko. Jokuan, zurrutean eta apaldu, goizaldera arte. Orduan, emazteari errita egitera.

Andreak, al zuan bezela fameliari aparia emanda, oiera bialdu. Gizona falta. Zer zorion zeukan emakume arek? Azkenean, aspertu ta lotara edo negar egitera, bere burua lasatzeko.

Goizaldera or dator senarra erabat zakartuta, geiegi edanda edo jokuan galduta. Erru guziak andrearenak. Urrengo goizean zuzen gosaria jarri bear.

Esan ditut gizonaren utsegiteak. Baiñan orain aiatatu nai nituzke besteak. Emen aragizkoak gera danak. Esaera bat bada: "emakume onak etxea jasotzen du; eta txarrak, erria galdu". Orduan, ezkontzeko zaudetenak kontuz ibili. Oiengatik ere entzun izan dira.

Andre onaren jabe egin giñanak suerte ederra izan genduan. Jaunari eskerrak eman deizkiogun.

Ordizian bizi nintzala, bagenduan lagun bat. Zelebrekeri asko esaten zizkiogun. Gustora egoten giñan berarekin.

Egun batean bildu edo alkartuta, bat bagenduan laster ezkontzeko asmoetan zebillena. Ari galdetu zion:

— Aizak: andrea artzeko idean omen abil.

Eta besteak:

— Bai. Asmo ortan gabiltzak.

— Ona tokatzen bazaik, ondo biziko aiz. Txarra baldin bada, eure buruari kastigu ederra emango diok.

Berak suerte aundia izan zuala esan oi zigun. Bere erriko festetan, arratsaldea plazan pasatuta, illunabarrean sartu zirala tabernara. An ardoa partitzen zegoan neskarekin asi omen zan berriketan.

— Ni zurekin ezkonduko nintzake pozik —esanda, parre egiten ziola esaten zigun.

Baiñan berak ez omen zuan beretzako nai. Ala aldegin zutela etxera. Urrengo egunean an agertu zitzaiola neskaren aita.

— Nere alabari, berarekin ezkonduko ziñakela esan omen diozu ta zuregana bialdu nau.

Besteak orduan:

— Nik, ezkontzezkeru, segituan bear det.

— Noizko bear dezu?

— Datorren igandean pregoia, nerekin jarri nai badu.

Garai artan iru aldiz deitzen zuten elizan, amabost egun eta urrengo larunbatean, boda danetara.

— Ogei orduan preparatuko degu.

Besteak bere artean: “Orain izurratu nauk! Bera artu bear!”

Nik uste det guri parre egin arazteagatik esaten zigula. Emakume on askoa zuan gaixoa.

Iru klase zirala esan oi zuan. Bat arra. Bizimodurako ona, baiñan berak agindu ta danak mendenan eduki bear; zakarra etxerako. Bestea enanoa. Ez arropak garbitu, otordu txarra, erdi elbarria, ezertarako gatzik ez. Azkenekoa onena, emea, piña benetan. Berari ala gertatu zitzaion. Langille ikaragarria zan bera.

Beasaiñen, alkarren gertu, egiten genduan lana. Gu makinetan; ura labetan. *Totxoak* deitzen zioten berotzen zituzten burni puskei. Aiek guritutakoan, gruarekin artu ta eramaten zituzten. Ortarako bi tresna zeuzkaten: batek diskoak egiten zituan; besteak bandejak. Gero, oztutakoan, bagoientzat erruedak egiten ziran.

Gizon au enkargatu zegoan. Ni bere anaiarekin apopillo egon nintzan. Arek esaten zidan bi illabete baiño geiagoan an egon zala papera idatzita nola enkargatu egin zuten. Arek etzeukala lana egin bearrik.

Penaz egoten zan nola ibiltzen zan ikusita. Arek etzuan geldi egoteko balio. Lantokian sartu orduko, artuko zuan barra aundi bat. Asiko zan labeko burniari bueltak ematen. Nola alde batean egoten zan sua, dena berdin berotu zedin jiratu bearra izaten zuten.

Langilleak lasai ikusita iñori agintzeko etzuan barrenik. Bera jarduten zitzaien, ango kea ta autsarekin dana beztuta. Guri esaten zigun:

— Auek zertara etortzen dira onuntz? Etxean egongo balira, obe.

Baiñan berai ezer esateko etzuan balio. Naiago zuan berak egin, besteren zai egon baiño. Bere orduak betetzean, lasai artuko zuan zestoa eskuan. Ala alde egiten zuan etxera.

Askotan goizeko seiretan asten ziran. Amar ordu, lan asko zutenean. Orduan, lenengo, siesta piska bat. Gero, lagunartera. Emazteak ataeran:

— Badakizu, Jose, biar goizean seiretarako lane-ra joan bear dezula.

Besteak:

— Bai, bai —esanda, lasai joaten zitzaion.

Lanari utzi ezkerro, beti berriketan lagunekin. Ekingo zioten jokuan, ardo tragoak egiñez. Asperetzen ziranean, apari-merienda danak. Gero, kafea musean, baiñan aparia bakoitzak berea ordaindu. Alkarri etzioten kastigu aundirik eman nai. Kopak eta purua, oiek jokatu.

Azkenerrako, berandutu. Emaztea oera joana. Koartean sartzean, asten omen zitzaion:

— Baiña, gizona! Biar goizean seiretan lanean asi bear da...

Azpeitiarrak ziran. Ango *izketie* egiten zuten, eta gizonak esaten omen zion:

— Esan bear dezuna azkar esan. Nik lo egin bear det orain.

Ixildu egiten zitzaiola esaten zigun.

Urrengo goizean bostetan jeiki emaztea; ta, kafea jarrita, oetik atera bear zuanean deitzen ziola, esanez:

— Tori kafe trago bat, onuzkero zure eztarria ondo sekatuta egongo da ta.

Ura omen zan emakumea! Plazara eraman da txakur aundi bat etziola iñork eskeiñiko. Baiña ura zala andrea suertatu zitzaiona!

Bearbada, askok ez dezute ulertuko txakur aundia zer dan. Amar zentimokoari esaten genion txakur aundia; eta bost zentimokoari, txakur txikia. Oiek galdu ziran danak. Gaur pezeta degu kasi ikusi nai ezik. Orrela goaz aldatzen.

Sartu nadin lengo arira, galdera auxe egiteko. Aitatu ditut zorioneko ezkontzak nolakoak ziran, eta ikusi oi ziran bestelakoak ere. Gaur, berriz, ezerk ez gaitu arritzen. Nik uste det geiegizkoa dala au. Lengoak nai nituzke aitatu.

Garai batean bazirala asko sufritzen zutenak lagunaren erruz. Gizonaren faltaz andreak. Beste aldekoak ere berdin. Baiñan partitu iñor gutxi. Ezkontzerakoan galdetu ziguten ea konforme giñan geren bizitza osoan alkarrekin izateko.

— Bai, jauna —esan genion.

Baiñan alkar maitatuz pakean bizitzeko esan zigun. Ori egiten ez duan lagunekin beti bizitzera beartua al dago? Au da nere galdera.

Olako gauzarik pentsatu bearrik ez nuan izan, Jaunari eskerrak. Berrogei ta bi urte pasatu genituan alkarrekin ain zoriontsu. Esan ezin dan naigabeaz gelditu nintzan bakarrik edo nere fameliarekin. Bera falta. Nik ezin gelditu arazi, goitik deia etorri zanean. Jaunak berekin dezala.

Apustuak

LEN esan bezela, gu sortu giñan baserritik ogei bat minutu bidera zeuden bi baserri Idoia izenekoak: Idoia-goikoa eta Bekoa.

Ni gaztea nintzala, Tolosako Aldaba baillaratik etorri zan pameli ori: gurasoak bi seme eta bi alabarekin.

Taberna jarri zuten. Seme zarrena soiñua jotzen asi zan. Gu ere sarri igotzen giñan. Bolatokia ere jarri zuten. Jende asko biltzen giñan. Eguraldi onean, amaika dantza saio egin genduan. Merienda bertan geienetan.

Piska bat indartzen giñanean, zaku garia egoten zan ganbaran, nai zuanak jaso. Zer ote da gaztea izatea? Eun bat kiloko pisua zeukan. Aiek zalapartak, ura jaso eziñik!

Andik bera jetxitakoan, erronka gora eta erronka bera, danak bullaka. Ardoa nagusi.

Gau batean, suertez ni an ez nintzala, asi dira teman desapioka alkarri iru Ordizikoak, bat Itsasondokoa, danak lagunak. Kontrariorik aundiena zurruta.

Egin dute apustua: Ordiziko plazan zegoan bos-teun kiloko arriarekin zeñek plaza geiago egin.

Laster enteratu nintzan nola egin zuten. Baiñan nola ez nintzan tartean, "or konpon!" esan nuan nere artean. Baiñan sartu arazi niñuten.

Jokatu bear zuten iru edo lau egun aurretik, deitu zidaten ea joango al nintzan dirua jokatzera. Itsasondokoak deitu zidan. Or sartu naute gogorik gabe. Danak lagunak ziran da ezetz ezin esan. Ura zan txarrena: bai esan bear.

Eguna iritxi zanean, jetxi nintzan ordubete aurretik. Esan zidaten nun egongo ziran. Goiko Bernardoren tabernan an billatu nituan.

Ezjakiñak beti nabarmen. Gu ere ala gertatu giñan. Galdetu nien nola jokatu bear genduan. Gaur ori pentsatzen jarrita, parrea irteten zait, nola giñan orren inozenteak.

Esan zidaten lau plaza baietz, lau ta erdi ta bost eta erdi baietz jokatzeko. Dirua eskeiñi zidaten. Esan nien nik baneukala orduan: gero egingo genituala kontuak.

Orrela, joan nintzan plazara. Bost eta erdi baietz zegoan dirua oska. Pentsatu nuan: “Nik zer egin bear det emen?” Bueltatu ta joan nintzan beraien-gana. Esan nien:

— Or etzegok dirua jokatzetik. Bost eta erdi baietz zegok dirua oska.

Ortik pentsa nola zebiltzan. Nondik edo andik dirua irabazi nai zuten. Orduan esan zidan bietako batek:

— *Bueno*, ik jokatu zak bost eta erditik lau t'erdira arte ezetz.

Joan nintzan plazara berriz. Bertan neuzkan bat osaba, bestea koñadoa. Nola zekiten nere berri, dirua jokatzera nijoala, jakin nai zuten nola jokatu. Esan nien bie:

— Mutillak, kontuz! Tongo egitera zetozek. Baietzik ez artu.

Jarri giñan irurok eskiña banatan. Asi giñan ezezkoa artzen, koñadoa, osaba eta ni. Danak kon-

turatu ziran tongo egitera zetozela. Azkenean, nere lagun batek otsegin zuan:

— Lau t'erdi baietz!

Ez nintzan atrebitu ari jokatzea, galdu egingo zuala nekialako. Bigarren aldian deitu zuanean, nere osabak artu zion. Neri pena ematen zidan jakinaren gainean ori egitea.

Azaldu ziran plazara. Indarra bai, bururik ez. Soka banarekin ekin zioten alde batera eta bestera. Giro oberik ezin eskatu. Gauean euri asko eginda, dana putzu zegoan. Arria, errekan aingira bezela zebillen, lokatza gainean. Alde batetik tiratu ta bestera joaten utzi egiten zioten. Askotan len baiño atzerago gelditzen zitzairen, jende guzia burlaka zutela.

Lotsatu egin bear zan berai begira. Lau t'erdi baietz jokatu zutenak egiñalak egin zizkieten oska lau t'erdi egiteko beintzat. Baiñan alperrik. Aiek berenarekin atera ziran. Dirurik irabazi ez, errespetoa galdu eta lotsagarri gelditu giñan.

Piska bat ibili giñan kalean, baxo erdi batzuk edanez, oso ondatu gabe gelditu ziran da. Ordubiak aldera bildu giñan lengo tabernara zortzi-amar bat lagun. Bazkaldu genduan ederki. Diruak etziran partitu zaillak, eta berriz arratsaldeko jokua ikusteko pozak.

Baiñan guk merezi genduana egin ziguten. Guk kendutakoak eta beste ainbeste kendu ziguten. Arratsaldean jokatu zutenak ere nere lagunak ziran. Plazatik atera ta bereala topo egin nituan. Joan nintzan beraiengana. Parrez asi zitzaizkidan. Alaxe nai nuan da esan nien:

— Guk merezi genduana egin diguzute. Ez genian besterik merezi. Goizean irabaziak eta doble geiago kendu. *Bueno*, nik zuekin lagun segitu nai diat.

— Bai, motell, bai. Irekin lagun izango gaituk berriz ere.

Bat nere kinto laguna zan. Il berria da gizarajoa.

Ni egun guzia kanpoan pasa ta aspertua nengonan, alako saltsarekin gaiñera. Etxera alde egin nuan.

Baiñan etzuten ori egin danak. Goizean jokatu zutenak meriendatzen ari omen ziran. Or etorri zaizkie goizean beraiekin dirua galdu zutenak ondora. Meriendatzen danak. Jaten ari ziran arte, ondo. Gero kontuak. Piska bat berotu ziranean, asi dira zipoka alkarri.

An badàgo erri txiki bat, Altzaga izena duana. Ango batek desapioa eman die: bere bi neskamerekin ondu baietz aiek egin zuten lana. Nola gelditu ziran lan gutxi eginda, ez omen zioten kasorik egin.

Baiñan bestea etzegoan lasai zerbaitetan progatu gabe. Berriz aizkoran desapioa egin omen zien. Tabernan jende asko orduan eta asi zaizka animatzen gazteari.

Egin dute apustua. Ez nago seguru sei kana erdiko edo zortzi ziran. Gure lagun gazte orren aldetik zortzi laguneren artean dirua botatzekotan.

Neri etorri zitzaidan osaba, ea sartu nai nuan sozio, milla erreal bakoitzak. Baietz esan nion, baztarrera ez gelditzearren.

Osabak esan zidan tartean genituala Jeronimo Agiñeta eta Ordiziko perratzaillea. Dionisio zala uste det bere izena. Gustora gelditu nintzan, Agiñeta batez ere gurekin zala esan zidanean.

Bere denbora guzian aizkolaria izanda, arek lagundu zigun geiena. Ura ez bagendu izan, ez dakit nola ibiliko giñan.

Zortzi lagun bildu arazi giñun urrengo igandean aizkolariaren etxera, prueba bat ikustera. Egurrak

ekarrita zeuzkaten. Jarri genituan danon artean. Asi zan lanean. Danok, erlojua eskuan artu ta ari begira.

Agiñetak uste baiño denbora geiago pasatu zion. Lanak bukatu zituanean, galdetu zigun:

— Zer pasatzen zaio?

— Zerbait meioratu ustean, asi da txuleta batzuk jaten, eta tripak gaixotuta dabil.

Orduan Agiñetak esan zigun:

— Orrela ez dago plazara joaterik. Medikuarengana joan da atzerapena eskatu bear dezute. Gero, nik nere etxera Zumarragara eramango det.

Or gelditu giñan ez gorako ta ez berako. Arek artu zuan salda piska bat emanaz. Guk baiño obeto bazekian arek gizona nola gobernatu. Amabost egunean indartu zuan ederki. Esan zigun bigarren igandean Zumarragara joateko trenean, prueba ikustera.

Joan giñan danak. Egurrak jarrita zeuzkaten. Asi zan lanean. Siñale zuan bizituta zegoala. Alde aundia eginda zegoan. Agiñetak esan zigun asteazkenean jokatu egin bear genduala. Guk aren esana egin bear.

Guk atzeratu genduanean, altzagatarrak beste aizkol joko bat moldatu zuten, egun berean jokatzeke.

Orrela, bildu giñan goizean Ordiziko Murua ize-neko tabernan. Danok, Agiñetak zer esango zai geunden. Trabesean dirua jokatu nai ta esan zigun:

— Nere ustez, amabi minutuan baietz eta amai-kan ezetz.

Eman genion lagun bati, nola jokatu esanda. Baiñan etzan dirurik jokatu. Milla pezeta bakarrik.

Agiñetak esan zion gureari, tokatu zitzaion tronko batek adarbegi bat zeukan da ari alde egiteko al zuana. Baiñan asi zanean, onela esan zigun:

— Amorratua! Azpiko iltzea arrapatuko dik.

Arek esan bezela gertatu zan. Moztu zuan entenga aundi bat. Aizkorari puska bota arazi zion. Artu zuan beste aizkora. Asi zan sekulako indarrean. Orduan Agiñetak esan zigun, azken aurreko trunkoa bukatu zuanean:

— Geratu arazi zazute mutilla! Apustua galtzen dik!

Beste bizitzakoak, arrimatu ta esan zion ura edatera joateko, aizkora utzita. Joan zan uraren billa maiera, jende guzia bullaka zuala.

Etorri ta ekin zion sekula baiño sasoi obean. Laster bukatu zuan azkena. Ez dakit ziran amaika minutu eta sei edo zortzi segundo. Gelditu ez bagendu, galdu egiten genduan. Eskerrak lagun beteranoari. Orrenbestean atera giñanean, gustora giñan bazkaltzera joateko.

Bildu giñan lengo tabernan zortzi lagunak. Kontua pranko kontatu zigun gure lagun Jeronimo Agiñetak: bere denboran zenbat eratako apustuak egin eta ikusi zituan; diruak zenbat buelta eman arazten dion gizonari; arratsalde artan jokatu bear zuan batek zer egin zion egun batean; egur baten mentaja eman ziola, eta esan ziola lagun orren alde aterako zala dirua; berak galtzeko eta ez dakit zenbat diru emango ziola; baiñan besteren batek geiago agindu zionean, berak eman zion mentaja ta geiago kendu ziola.

— Orrekin kontuz ibili! —esan zigun.

Umore ederrean bazkaldu genduan. Laster beste apustua zegoan. Itxura gutxiko gauza guretzat. Ikusten genduan alde aundia zegoala gizonetan.

Atera giñan kalera. An zebiltzan danak karterak eskuetan artuta. Emeretzi minutuan ezetz, Alzaga-koaren alde deitzen zuten. Agiñetak zion:

— Emen pasa bear dik gaur!

Pelotalekuaren aurrean kamiñoa betean jendea. Danak botatzen zuten dirua, batek artzen zuan. Azkenerako konturatu ziran etzutela gauza onik, bestea danak artzen ikusi zutenean.

An zegoan jokatu bear zuana pelotalekuaren eserlekuetan gora igota, kamiñora begira, nola jokutzen ari ziran, gabardina bizkarretik artuta.

Jendea aspertu zanean dirua botatzen, sartu ziran danak barrena. Gu ere bai, zer ikusiko ote genduan.

Egurak preparatuta zeuden. Jokatu bear zuanak gabardina utzi zuan. Zapatak kendu ta galtzerdi utsean jarri zan. Igo ziran biak egur gaiñera. Txistua jo zioten. Ekin diote lanari. Minutu bat baiño len buelta eman zuan espero genduanak. Bigarrenak jira eman zuanean, besteak ia bukatua zuan.

An etzuan orrurik iñork egiten. Danak begira, batzuk pozez, besteak erdi negarrez.

Entzun nuan Aurrezki Kutxatik aterata bost milla pezeta galduak izan zirala. Lenago ez, baiñan orduan jarri zituzten korrituan. Korritu zuten ederki.

Irugarren enborrean artu zion trunko baten mentaja. Andik aurrera berdin. Nai zuana egin zion. Bota zituan egur danak bi enborren mentajan.

Sartu zituan aizkorak egurrezko maleta batean, alkar ikutu gabe, txukun. Artu zuan maleta eta gabardina. Atera zanean, bi goardiazibil zeuden beraren zai. Alde egin zuten Martinez jatetxera. Goardiak kalean gelditu ziran.

Bildu ziran galtzailleak, jo ta garbitu bear zutela esanez. Leku ederrean! Aizkolariak, aldatu ta trago onak eginda, deitu zion tasista bati. Ura etorri zanean, bildu ziran goardiazibillak. An sartu ta alde egin zuten.

Irabaztunak esan zuan noski zer gertatu zan. Danak poztu giñan gertatu zanarekin. Aizkol jokia aurretik zegoan egiña. Irabazi zuanak galtzeagatik iru milla pezeta agindu zioten, eta arek baietz esan. Batzuk tranposoak, baiñan bestea ere bai. Nola nabarmen ibili bear zuan, arek pentsatuta edukiko zuan zer egin.

Agiñetak esan zigunez, etzuan aurrenekoa. Ori egitera joan da bere moduko lagun batengana. Esan dio zer gertatzen zaion: iru milla pezeta agintzen ziotela apustua galtzeagatik, eta lan txarra zeukala; lagun arekin nabarmendu egingo zala.

Besteak orduan esan dio lau milla pezeta eman-go diola irabazteagatik. Ori errezago zeukan, galtzea baiño, eta milla pezeta geiago eskeiñi zion.

Nere ustez, oso ondo egin zuan. Besteak ere tranpa egin nai zuten. Jendea engañatuta dirua irabazi nai zuten. Kukuak oker jo zien. Beste baterako ikasi zuten apustuan tranpa egitea ez dala libre.

Gurea oraindik ez det bukatu. Besteen komeriak ikusitakoan, geuren kontuak garbitzera sartu giñan bazkaldu genduan lekura. Pentsatu genduan ardo piska bat artzea, urdai azpiko ta ogia janez, ohea izango zala ta.

Ekin genion diruak biltzen: apustuan irabaziak, bi milla pezeta; trabesean, milla; plazako sarrerak ez naiz gogoratzen zenbat ziran. An bildu genituan diruetatik etzegoan milloi asko ostutzerik.

Asi giñan gastuak kontatzen: aizkolariak etxean lenengo egin zuan prueba egurren balioa; idiekin ekartzea; egurrak jartzea; gero, gaizki zebillelako, Zumarragako egurrak, janak eta lanak: gero, lagunari amabost eguneko amar pezeta ordaindu bear genion: aizkora ondatu zalako, beste ogei duro.

Danei zorrak ordaindu ta milla ta berreun peze-ta sobratu ziran. Berrogei ta amarna duro bota

genituan, eta ogei ta amarna jaso. Ogeina duro galdu, apustua irabazita. Galdu izan bagendu, leku ederrean geunden.

Agiñeta etzan asko apuratu. Berriz asi zitzaigun esanez:

— Beste apustu bat badago ortxe. Gaur jokatu duten bi Altzagakoak, Idoiako bi bizitzetako mutillekin. Apustu polita.

Nik esan nion:

— Nai badezute, egin neregatik. Baiñan nerekin ez kontatu.

Besteak ere etziran berotu. Artan gelditu zan gure apustua.

Neretzako ez du zer egiñik lan klase orrek. Ortarako ere berezkoa bear du izan. Beste bat ondatuta ere ajolarik ez diona askotan.

Apustuak egin litezke iñori paltatu gabe. Munduan kristau asko dira abilidade aundia dutenak, naiz aizkoran, korrika, segan, kantari, arri jasotzen, pelotan... Kirol klase askotan daude kategori aundi-koak. Baiñan apustuak gauza bat dauka txarra: batek galdu egin bear, besteak irabaziko badu.

Iñori kalterik egin gabe apustua egin litekela uste det. Bi lagun badira oso onak, beren lanean jarri apustu bat, berak nai duten eran. Baiñan jendeak gustora ikusiko duan lana, eta plaza bete arazi. Ara dijoana bere gozoz dijoa. Iñork ez du beartzen. Eta diru pilla ederra bildu liteke.

Baiñan dirua gizon askorentzat etsaia da. Diruak gizona atera arazten du bere onetik, eta sartu arazi bide txarretan. Diruaren mende jartzen dana, ez da bizi. Amar duro baditu, ogei nai. Ez da asetzen, eta askotan bide txarretik diruaren billa.

Guk ere bi apustutan parte artu genduan. Iru-garrena ikusi ere bai. Iruretan etzan etzan gizatasu-

nik ikusi. Diruaren mende danak. Apustu ona danean, dirua trabesean galduta ere, ez du ainbeste penarik ematen.

Gaur, berriz, ez dago bromarik. Garai batean, gu gazteak giñala, bost duroekin asi giñan. Gero, milla pezeta. Gaur, milla pezetagatik ez dute korredoreak paperarik egin nai. Bost milla gutxienez, edo andik gora.

Badaukat azten etzaidan idi apustu bat. Altzan korredoreak irurogei ta sei baietz, eta nik irurogei ta amar ezetz, milla duro deitu. Artu egin zidan, da nik galdu. Orduan esan nuan:

— Ez dek berriz nererik artuko.

Geiago ez det jokatu.

Diruagatik zenbat bide txarrean sartzen geran! Emen aurretik idatzi ditudan gertaera danak diruak egin arazitakoak dira. Ondo ikusten da diruaren mende jartzen dana ez dala bide zuzenez ibiliko.

Arkibidea

Lanik gabe ezin bizi	7
Jai arratsaldeak	9
Sorgin kontuak	15
Gaitz txarra	27
Medikuaren bixita	31
Piztiak	37
Gabon eguna	63
Udaran mendira	73
Astigarretako San Gregorio	76
Kizkitzako Ama	84
Beizama	87
Ernio	92
San Migel	95
Anai arteko gerra	99
Negozio ederra	115
Soldaduska (Iruñe)	119
Soldaduska (Etxalar)	131
Urrestillako buelta	145
Gure lagun baten bizitza	150
Dirua	156
Ardozaleak	164
Garai bateko ezkontzak	169
Apustuak	176



1051072
G-128/88



Bizente Barandiaran Sarasola

Mundu ontako bizitza antzerki bat dala esan oi da sarritan. Era berean, antzerki batean bezela agertzen digu Bizente Barandiaranek liburu ontan bere gazte denborako bizitza.

Itsasondoko Urkia mendi-baillaran jaioa izanik, aien orain irurogei urteko bizi-moduak ez du gure gaurko onekin antz aundirik. Arrigarria benetan XX mendeak ekarri digun aldakuntza.

Mundu bat badijoa, beste mundu bat badator. Denbora berean illunabarra eta egunsentia alegia. Zer datorkigun ezin igerri; zer dijoakigun ondo dakitenak or ditugu oraindik ere gure artean. Beren testigantza utzi dezaigutela, beraz, Euskal Erriaren sustraiak jende eta oitura apal aietan daude eta.

ISBN 84-89080-21-6



9 788489 080218

G